


ÍSILTASUNA HAUSTEN

1936KO GERRA SORALUZEN

LA GUERRA DE 1936 EN SORALUZE



Soraluze, 2015

Izenburua: Isiltasuna hausten. 1936ko gerra Soraluzen. La guerra de 1936 en Soraluze

Egilea: Soraluze 1936 lan-taldea

Harremanetarako: soraluze1936@gmail.com

Diseinua eta maketazioa: Iñigo Uribe txeberra

Itzulpenak: Asier Legarda eta lan-taldea

Bertsoen egilea: Egoitz Unamuno

Laguntzaileak:



AURKIBIDEA

HITZAURREA

PRÓLOGO	5
----------------------	---

II ERREPUBLIKA

II REPÚBLICA	13
---------------------------	----

Errepublikaren aldarria / Proclamación de la República	15
--	----

Hauteskundeak Soraluzen / Elecciones en Soraluze	18
--	----

Erreformak eta desadostasunak / Reformas y desacuerdos	24
--	----

Eskuindarrak gobernuan / La derecha en el gobierno	28
--	----

1936: GERRAREN ATARIAN

1936: LA ANTESALA DE LA GUERRA	33
---	----

Ezkerreko alderdien batasuna: Frente Popularra / Unión de los partidos de izquierdas: El Frente Popular	35
---	----

Herritarren egunerokoa / El día a día	39
---	----

Ospakizunak eta jaiak / Celebraciones y festejos	39
--	----

Eskolak / Escuelas	42
--------------------------	----

Gizarte laguntzak, langabezia eta pobrezia / Ayudas sociales, desempleo y pobreza	45
---	----

Harreman politikoak eta giroa / Relaciones políticas y contexto	48
---	----

Altxamenduaren aurrekariak / Antecedentes del Alzamiento	50
--	----

ALTXAMENDUA ETA LURRALDEEN OKUPAZIOA

EL ALZAMIENTO Y LA OCUPACIÓN DEL TERRITORIO	55
--	----

Altxamendua / El alzamiento	57
-----------------------------------	----

Gipuzkoarren defentsa / La defensa de Gipuzkoa	59
--	----

Okupazioa / La ocupación	80
--------------------------------	----

Okupazioaren aurreko gertaerak / Sucesos previos a la ocupación	85
---	----

Frontearen egonkortzea / Consolidación del frente	88
---	----

Euskal Gobernuaren sorrera / Creación del Gobierno Vasco	97
--	----

Okupazio garaia herrian, 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte	99
---	----

Época de la ocupación en el pueblo, desde septiembre de 1936 hasta abril de 1937	99
--	----

Udala berrantolatzen / Reorganizando el Ayuntamiento	99
--	----


Tropen egonaldi-kostua / Costo de las tropas	100
--	-----

Erregimenaren jomuga estrategikoak / Objetivos estratégicos del régimen	104
---	-----

Lantegiak militarizatzea / Militarización de fábricas	104
Konfiskatzeak /Requisas	106
Eskolak itxita eta irakasleak kargugabetuta / Cierre de escuelas y maestras y maestros inhabilitados	107
Aldaketak eguneroko bizimoduan / Cambios en la vida cotidiana	109
Anaiak anaien kontra / Hermanos contra hermanos	113
BIZKAIKO OFENTSIBA	
LA OFENSIVA DE BIZKAIA	121
Eraso handiaren hasiera / El comienzo de la gran ofensiva	123
Soraluzetik ihesi / Huida de Soraluze	124
Bilboko Burdinezko Hesia / Cinturón de hierro de Bilbao	129
Erbesteko ibilerak / El exilio	134
Santoñako ituna / El pacto de Santoña	143
ITZULERA HERRIRA	
REGRESO A CASA	153
ERREPRESIOA	
LA REPRESIÓN	165
Salaketak / Denuncias	168
Errepresiorako tresnak / Medios de represión	170
Erantzukizun politikoen legea / Ley de Responsabilidades Políticas	175
Zigorrak / Condenas	177
GERO, FRANKISMOA	
Y DESPUÉS, EL FRANQUISMO	185
HILDAKOEN ZERRENDA	
LISTA DE FALLECIDOS	189
BIBLIOGRAFIA	
BIBLIOGRAFÍA	195

HITZAURREA

PRÓLOGO



Memoria Historikoa berreskuratzeko gizarte mugimendu orokorraren barruan, hainbat lagun batu ginen orain dela bost urte Udalak egindako deialdiari erantzunez. Orduan taldearen zeregina izango zena adostu ondoren, asmoak eta eman beharreko urratsak finkatu genituen.

36ko gerran Soraluzean gertatu zena jakin eta gogoratzearekin batera, ahazturik gelditu zen sufrimenduari aitortza egitea izan da taldearen nahirik nagusia, eta horretan joan gara urratsak ematen urte hauetan, babes eta parte-hartze handiarekin. Herritar askorena ez ezik, babes instituzionala ere izan dugu, Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiena.

Bost urtean zehar hainbat ekimen burutu ditugu. 2011n orduko gertaerak eta bizipenak laburbiltzen zituen erakusketa jarri genuen ikusgai. Urtetako isiltasuna hautsi eta gerraren ondorioak sufritu zituzten guztien eta bereziki zilegitasun demokratikoa zuen erregimenaren alde egin zuten pertsonen memoria berreskuratzea betebeharrak etikoa zela adierazi genuen. Tropa frankistek 1936ko irailaren 22an herria okupatu zutela gogoan hartuz, urtetan orduko garaipenaren ospakizun eguna izan zena Oroimenaren Eguna izendatzea erabaki genuen eta oroimen ekitaldi publikoak antolatzearen konpromisoa hartzea. Hala, hitza bete dugu urte bost urte. Oroimen Egunean gerra garaian eta gerra osteko urtetan herrian gertatu ziren eskubide urraketak gogoratu ditugu; besteak beste, atxilotzea, lapurreta, fusilamendu, hilketa, debeku, umiliazio eta era guztietako tratu txarrak

En línea con el movimiento social para la recuperación de la Memoria Histórica, hace ya unos cinco años que un grupo de personas nos reunimos en respuesta a una convocatoria hecha desde el Ayuntamiento de Soraluze. En aquel comienzo, y tras varias sesiones de debate, definimos los objetivos de nuestro proyecto y los pasos a seguir.

Además de conocer y recordar lo sucedido en Soraluze durante la guerra del 36, el principal objetivo del grupo ha sido reconocer el sufrimiento olvidado, romper el silencio de tantos años y recuperar la memoria de todas y todos los que sufrieron las consecuencias de la guerra, sobre todo la de aquellos que defendieron al régimen legitimado democráticamente. Todos los pasos que hemos dado en estos años han ido encaminados en esa dirección. Pasos, por otra parte, para los que hemos contado con gran apoyo y participación, tanto de la gente del pueblo como de las instituciones y de los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento.

Durante estos cinco años hemos llevado a cabo distintas iniciativas. Comenzamos con un acto de presentación pública para, seguidamente, en 2011, organizar una exposición que resumía sucesos y vivencias de la época. Decidimos que el 22 de septiembre, día en que entraron las tropas franquistas en Soraluze en 1936, y que durante años fue recordado y celebrado como el Día de la Victoria, pasara a ser el Día de la Memoria, y nos comprometimos a organizar un acto público de recuerdo para ese día. Y así lo hemos hecho, año tras año, recordando la pérdida de derechos que sufrieron tantos y tantas vecinos y vecinas de Soraluze en los años de guerra y en la posguerra.

jasan behar izan zituzten soraluzetarren memoria aldarrikatu dugu.

2013ko apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zeneko 82. urteurrena izanik, ekitaldia antolatu genuen. Errepublika askatasunaren eta demokraziaren aldeko borrokaren sinbolo garrantzitsua izanik, beste behin, gerra garaian eta diktadurapeko urteetan gertatutakoaren memoria aldarrikatzeko helburua izan zuen ekitaldiak. Urte bereko Oroimen Egunean, “Isiltasuna hausten. Soraluzetarren gerrako testigantzak” izeneko dokumentala aurkeztu genuen eta DVDetan bildurik salgai jarri. Ordura arte Soraluze 1936 lan-taldeak zein Badihardugu Euskara Elkarteak batuak zituen testigantzekin osatutako lana izan zen, aipatutako bi taldeek elkarlanean egindakoa.

2014ko irailaren 22an eskultura bat ezarri genuen Iturburu kalean, 1936ko gerra sufritu zutenei eskainia, ahaztuak eta isilduak izan ziren sufrimendu eta ahotsei aitortza eginez. Tere Guenetxea eskultoreak dohaintzan emandako lanarekin leku hori oroimenerako, hausnarketarako eta memoriaren aldarrikapenerako gune sinboliko bihurtzea nahi izan dugu.

Lan-taldearen ibilbidea borobiltzeko, liburua

Bildutako datu, informazio eta testigantza guztiak liburuan jaso eta argitaratzeak taldearen zeregina borobiltzen du, gizarteak herriko historiaren zati ilun hori ezagutzeko balioko baitu, baina batez ere, Francoren diktadura urteetan zehar gordeta-

De la misma manera, escogimos el 14 de abril como fecha de reivindicación de la Memoria. Siendo la II República símbolo de lucha por la libertad y la democracia, y coincidiendo con el 82º aniversario de la proclamación de la misma, organizamos un acto público el 14 de abril de 2013 con dicha finalidad. El Día de la Memoria del mismo año presentamos el documental “Isiltasuna hausten. Soraluzetarren gerrako testigantzak”, puesto a la venta en DVD. En él se muestran testimonios recogidos tanto por el grupo de trabajo Soraluze 1936, como por Badihardugu Euskara Elkarteak, un trabajo en común de ambas asociaciones.

El 22 de septiembre de 2014, procedimos a la colocación de una escultura en la calle Iturburu, en reconocimiento del sufrimiento olvidado y de las voces silenciadas de todas aquellas personas que sufrieron la guerra de 1936. La escultura, donada por la escultora Tere Guenetxea, simboliza, además del reconocimiento, la reivindicación de la memoria, el recuerdo y la reflexión.

Para completar el recorrido del grupo de trabajo, el libro

Finalmente, plasmar en un libro los datos, informaciones y testimonios recogidos, y publicarlo, culmina el trabajo del grupo, ya que ello contribuye a que la sociedad conozca ese periodo oscuro de la historia de nuestro pueblo; pero, sobre todo, porque permite aflorar gran parte del sufrimiento ocultado y silenciado durante los años de la dictadura de Franco, un periodo de represión en el que callar era la me-

ko eta isildutako hainbeste sufrimendu eragin zuten bizipenak kontatzeko aukera eman duelako. Izan ere, 40 urte baino gehiagoz isildutako historia zatia izan da, edo isilarazitakoa. Zalantzarik gabe, gogoratzea mingarria gertatuko zen hainbatenzat, baina denboraren joanak eta garai berriek oroimen ariketa hori egiteko aukera eman digute.

Datuak jaso eta informazioa batzen joan ahala, konturatu gara urteetan isildutakoa inola ere ez zegoela ahaztuta; eta atentzioa ematen du zenbateko zehaztasunez gogoratzen zituzten orduan bizi izandakoak, eta zenbateko gogoia zeukaten guztia kontatzeko, errepresioaren beldurrik gabe iada, eta denborak emandako distantziaz.

Hainbat iturri erabili ditugu informazioa batzeko: artxiboek, testigantzak eta bestelako dokumentuak. Artxioben artean, udal artxioba izan da iturri nagusia baina parrokiak eta Kausa Orokorra ere erabili ditugu. Ahozko testigantzak, taldeak berak jasotakoak zein Ahotsak.eus-etik hartuak, edota herritarrek helaraziak izan dira. Bestelako dokumentuak soraluzetarrek utzi dizkigute. Hori guztia garaiko testuinguruan txertatu eta historia harilkatzen joan gara. Garaiko dokumentuen bidez ahozko testigantzak berretsi ditugu, eta horien bidez dokumentuetako eta historiografiako ezagutzak geure errealitatera gerturatu ahal izan ditugu herritarren ikuspuntuaz osatuz (askotan azalpenak ilustratzeko adibidez erabiliz).

Diktadura urte luzeetan ahazturik geratu zena eta jasandakoa aitortzeaz gain, ezinbestekoa iru-

jor opción. Recordarlo ha podido resultar doloroso, sin duda; pero la distancia y los nuevos tiempos han permitido perder el miedo a hablar y recordar lo vivido.

Conforme íbamos recabando datos y recopilando información, hemos podido constatar que lo silenciado no está, en absoluto, olvidado. Aquellas y aquellos que fueron protagonistas y testigos lo recuerdan con nitidez, y hemos podido comprobar el interés que tenían en hablar de ello, sin miedo ya a la represión, desde la distancia que otorga el paso del tiempo.

A lo largo del proceso, hemos utilizado diversas fuentes de información: archivos, testimonios y otro tipo de documentos. Entre los archivos, hemos recurrido, sobre todo, al archivo municipal (SUA); pero también hemos utilizado el archivo parroquial (SPA) y la Causa General (PARES). En cuanto a los testimonios orales, hemos recogido los de aquellas y aquellos de entre nuestros mayores que, habiéndoselo solicitado, accedieron a recordar y contar sus vivencias y recuerdos; aunque también hemos recurrido a los testimonios disponibles en Ahotsak.eus. Igualmente, hemos podido recopilar diversos documentos facilitados por particulares, bien por iniciativa propia, bien a petición nuestra; y consultar la ya extensa bibliografía publicada al respecto.

Gran parte de nuestro cometido ha sido situar toda esa información en el contexto de la época e hilar la historia. Gracias a los documentos hemos podido contrastar los testimonios orales, y gracias a esos testimonios hemos podido comprender y traer a nuestros días los conocimientos que proporcionan los

ditzen zaigu historiaren testuinguru horretan soraluzetarrek izan duten protagonismoa ezagutzea, hartu zituzten erabakiak eta horiek eragin zizkieten ondorioak. Honela jaso nahi izan dugu kontakizunean.

Eskerrik asko

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Soraluze 1936 lan-taldearekin modu batera edo bestera elkarlanean aritu diren guztiei, izan erakunde, talde zein norbanakoei. Testigantza eman duten plazentziatarrek, haien senide eta gertukoak, gaiarekiko interesa azalduz informazioaren bat eman digutenak, Soraluzeko Udala, Soraluzeko Udal Artxiboa, Kontrargi Argazki Kolektiboa, Pil-pilean Euskara Elkartea, Soraluzeko parrokia, Badihardugu Euskara Elkartea, Osintxuko Musiraka dantza taldea, Intxorta 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta beste asko. Eskerrik asko denei.

Hutsunerik edo akatsik topatuz gero, edo bestelako ekarpenik egin nahi izanez gero, eskertuko genuke horren berri lan-taldeari helaraztea.

documentos y la historiografía. Conocimientos que, además, hemos podido completar con el punto de vista y las informaciones proporcionadas por las y los distintos protagonistas (informaciones utilizadas, en muchos casos, como apoyo a la exposición).

Decimos, pues, que este libro pone cima al proyecto que iniciamos hace ya cinco años. Pretende recoger en él aquellas finalidades consensuadas y definidas al comienzo, tales como la recuperación de la Memoria, la reivindicación de libertades y el reconocimiento del sufrimiento padecido; pero, además, da testimonio del protagonismo que las y los soraluzetarras tuvieron en ese contexto histórico, de las decisiones que tomaron y de las consecuencias que de ellas derivaron.

Agradecimientos

Por último, queremos dar las gracias a quienes han colaborado con el grupo de trabajo Soraluze 1936, instituciones, grupos o personas. Plazentziarras que han ofrecido sus testimonios, que, mostrando interés por el proyecto, han proporcionado información o documentos, particulares, Soraluzeko Udala, Archivo Municipal de Soraluze, Kontrargi Argazki Kolektiboa, Pil-pilean Euskara Elkartea, Soraluzeko Parroquia, Badihardugu Euskara Elkartea, Osintxuko Musiraka dantza taldea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza y muchos más. Muchas gracias.

El grupo de trabajo agradecerá cualquier nueva aportación así como la notificación de posibles erratas presentes en esta publicación.



GERRA BIZI IZAN ZUTENEI

Zer da gerra bat irabaztea?
Ta zer da gerra galtzea?
Zer da gerra bat bizi beharra?
Zer da gerra sufritzea?
Zer da amorrua eta egia
erraietan gordetzea?
Zer da urteak pasatu eta
ahaztuta sentitzea?
Omenaldirik ederrena da
zuekin goratzea.

Mortero eta bonba artean
galdu zen askatasuna,
gorroto eta malko artean
gorde zen gizatasuna.
Dena barruan gorde beharra
ez al da karga astuna?
Oroimenaren haizeak dakar
irrintzien oihartzuna,
zuen ahotsak entzuten dira,
hautsi da isiltasuna!

Ahantzuraren ostean dator
oroimenaren ordua,
urak bezala beti aurkitzen du
ateratzeko modua,
oraindik ere bizirik dago
loreen pentsamendua,
zuen bihotzen barruan zena
mendez mende harildua,
koloretako ametsak eta
koloretako mundua.

*Doinua: Benito Lertxundiren
"Itsasoari begira"*



II. ERREPUBLICA

II. REPÚBLICA



ERREPUBLIKAREN ALDARRIA

1936ko altxamendu militarraz eta ekarri zituen ondorioez aritu aurretik, ezinbestekoa da II. Errepublikaren garaia eta bertan gertatu zirenei erreparatzea, baita Soraluzeko herria historiaren eremu orokorrean kokatzea eta izan zuen bilakae-raren berri ematea ere.

1931n, Alfonso XIII.a monarkaren irudia gain-behera zetorren. Depresio Handiaren testuingu-ruan, garai hartan krisi ekonomikoan murgildua zegoen Europa, eta Espainiar Estatua ere bai. Espainiaren kasuan, populazioaren gehiengoa neka-zaria zen, oso soldata baxukoa eta latifundisten lurrak lantzen zituena. Baziren baita lur sail txi-kien jabeak ere; baina errendimendu gutxiko sai-len jabetza zuten eta klima eta uztaren menpe bizi ziren. Industria sektorean, berriz, krisiak eragin-dako gatazkak zabaldu ziren eta langileen greba, liskar eta aldarrikapenak ugaritu. Krisi ekonomi-koak, beraz, gizarte krisia eta krisi politikoa ekarri zituen.

Egoera horretan, eta egonezin orokorrari eran-tzunez, errerepublikaren aldekoek udal-hauteskun-deak irabazi zituzten 1931ko apirilaren 12an. Gehiengoa monarkiaren aurka agertu zenez, Al-fonso XIII.ak alde egin zuen eta II. Errepublika aldarrikatu zuten apirilaren 14an.

1930eko abuztuaren 18an izandako Donostiako Hitzarmenak zerikusi handia izan zuen bilakaera hartan, bertan batu baitziren alderdi errepublika-rrak monarkiarekin amaitu eta errepublika ezar-

PROCLAMACIÓN DE LA REPÚBLICA

Antes de abordar la cuestión del alzamiento militar de 1936 y sus consecuencias, se hace necesario re-pasar brevemente la coyuntura histórica en que se enmarca. Conocer la II República y comprender los sucesos acaecidos en ella ayudará a situar el pueblo de Soraluze en el marco general de la Historia y en-tender su evolución.

En 1931, la monarquía de Alfonso XIII vivía sus horas más bajas. En el contexto de la Gran Depre-sión, Europa padecía una grave crisis económica y el Estado español no era ajeno a la situación. País sustancialmente agrario, la mayoría de la pobla-ción española vivía de la agricultura, con sueldos muy bajos, explotando las tierras de los latifundistas. Los pocos agricultores propietarios de su tierra, en la mayoría de los casos eran propietarios de tierras de bajo rendimiento, y vivían pendientes del clima y de las cosechas. Por otro lado, en el sector industrial del país, las huelgas de trabajadores, los enfrentamien-tos y las reivindicaciones de la clase obrera afloraban con gran fuerza. La crisis económica llevaba consigo una crisis social y una crisis política.

Fue en este contexto que, en respuesta al des-contento generalizado, el 12 de abril de 1931 los partidos que defendían la República ganaron las elecciones municipales. Aquellas elecciones se convirtieron en una especie de plebiscito sobre la monarquía, y trajeron consigo la abdicación del Rey y la proclamación de la II República el 14 de abril de 1931.

tzeko estrategia adosteko. Gerora PSOE eta UGT ere batu ziren; ez ordea, EAJ, Donostian bildu zirenak erlijioaren kontrakoak zirelako.

Ezaguna da oso Eibar izan zela II. Errepublikaldarririkatu zuen lehen herria. Soralezera ere berehala heldu zen berria. Luis Larrea soralezetarrak Eibarren taberna zeukan eta hark lau haizetara zabaldu zuen albistea herrian.

El Pacto de San Sebastián (reunión promovida por la Alianza Republicana, que tuvo lugar el 18 de agosto de 1930), fue decisivo en ese triunfo. En él se aliaron los partidos republicanos y se comprometieron a derrocar la Monarquía e instaurar la República. Posteriormente se adhirieron el PSOE y la UGT, no así el PNV, que veía con recelo el anticlericalismo promovido por los aliados en San Sebastián.

Por otra parte, es de sobra conocido que fue Eibar el primer pueblo en proclamar la II República. La noticia llegó rápidamente también a Placencia.

“Urte pare bat edo aurretikan, Primo de Riveran zera zeuan, diktaduria esaten jakona, eta Plaza Zaharrari ipini otsen izena Plaza de Alfonso XIII eta hamabi urtekin, goguan daukat, kuadrilla bat hari harrika zela ibili ginan.[...] Hasieria hori izan zan neria Errepublikiana.”

Iñaki Iñurrieta

“Cuando se proclamó la República, yo tenía entonces diez años. Vivíamos en Baltegieta y el pasillo tenía un balcón grande. Luis pasaba por el puente con el puño en alto y gritaba “¡Viva la República!”. [...] Y yo “¡Ama! Están gritando viva la república” “¡Entonces hemos ganado las elecciones!”

Emilia Hernaites

“Yo me acuerdo que cuando vino la república una de Placencia solía ir con un gorro frigio, de la república es eso, y aquello metido solía llevar por la calle. Yo una vez o dos ya he visto”.

Resu Gallastegi



<http://legoibarra.eus/eu/argazkiak/errepublika>

Eibarko banderadun errepublikanoetariko bat – 1931.
Castrillo Ortuoste Fonda. Eibarko Udal Artxiboa



HAUTESKUNDEAK SORALUZEN

Beste herri askok bezala, gureak ere egin zuen bere hautua errejimen aldaketa horretan.

1931. urtean Soralezek, orduko erroldaren arabera, 2.893 biztanle zituen eta industria zen jarduera ekonomiko nagusia, armagintza batez ere. Gizonezkoak aritzen ziren lan horretan. “The Placencia de las Armas Company Limited” zen orduko lantegi handiena, aurretik “La Euscalduna” izandakoa, eta gerora, 1935ean, S.A. Placencia de las Armas (SAPA) izango zena. Izen hori hartu zuen 1888.urtean, ametralladoreen asmatzaile Hiram Maxim-ek eta kainoi ekoizlea zen Nordenfeld suediarrek fabrika erosi zutenean. 1908an, berriz, munduko artilleria enpresarik garrantzitsuenetakoa zen Vickers-ek erosi zuen. Une hartatik aurrera, eta Sociedad Española de Construcción Naval-ek egindako enkarguei erantzunez, artilleriaren ekoizpena izan zen jarduerarik garrantzitsuena, Espainiako armadarako kainoiak eta ametralladoreak egitea, hain zuzen

ELECCIONES EN SORALUZE

Como tantos otros municipios, el nuestro también hizo su elección en ese cambio de régimen.

Según el censo de la época, en 1931 Soraluze tenía 2.893 habitantes y la principal actividad económica era la industrial, industria armamentística, sobre todo, a la que se dedicaban mayoritariamente los hombres. “The Placencia de las Armas Company Limited” era la fábrica más importante. Anteriormente conocida como “La Euscalduna”, adquirió el nuevo nombre cuando en 1888 fue comprada por Hiram Maxim, inventor de las ametralladoras, y por el productor de cañones sueco Nordenfeld, dedicándose, a partir de ese momento, a la fabricación de artillería. Más tarde, en 1935, se convertiría en S.A. Placencia de las Armas (SAPA). En 1908 fue adquirida por Vickers, una de las empresas de artillería más importantes del mundo. Desde ese momento, respondiendo a los encargos de la Sociedad Española de Construcción Naval, la producción de artillería fue su actividad más importante; se fabricaban ametralladoras y cañones para la armada española. Había, además, otras empresas dedicadas a la fabricación de armas. Según el censo de la industria armamentística

ere. Arma fabrika gehiago ere baziren: 1929ko armagintzako Industria Erroldaren arabera, 31 sinadura.

Gutxi ziren lantegietan lan egiten zuten emakumeak eta gehienek Osintxuko ehundegian jarduten zuten. Oinez joan beharra izaten zuten baina 1918an Durango-Zumarraga linearekin bat egiten zuen Gasteiz-Osintxu linea bukatu zutenean, tren-geltokia Osintxun bertan jarri zuten.

Nekazariak biztanleen artean gutxiengoa baziren ere, herriko lur-sail gehienak lantzen zituzten. Gainera, emakume baserritarrak aña joaten ziren

ca de 1929, un total de 31 firmas se dedicaban a este negocio en Soraluze.

Sin embargo, eran pocas las mujeres que trabajaban en fábricas, y la gran mayoría de éstas lo hacía en la fábrica textil instalada en Osintxu. Acudían habitualmente a pie, hasta que en 1918, gracias a la conclusión de la línea Vitoria- Los Mártires, que enlazaba con la línea Durango-Zumarraga, se construyó la estación de tren de Osintxu.

Por otra parte, los agricultores de Placencia trabajaban prácticamente todas las tierras del municipio; aunque, a menudo, muchas de las mujeres



hirietako aberatsen etxeetara, haien seme-alabei bularra eman eta haiek haztera.

Orduko iturriek islatzen dutenaren arabera, egoera zaila zen eta krisiaren eragina nabarmena, gure herrian eta ingurukoetan.

baserritarras acudían como nodrizas a servir a las casas de la gente rica de las ciudades.

Según apuntan las fuentes de la época, los tiempos eran difíciles y los efectos de la crisis evidentes.

“Gero, hamalau urtekin, hasi nintzan pistola fabrika baten, hori zan Star. [...] Han aprendiz naola hiru bat hilebetera edo, lanik eza etorri zan ta bialdu genduzen 85 kalera batera. Han irabazten nittuan hamalau errial.”

Inazio Ernabide

“Tailerrak be txikixak ziran, oso txikixak, gehixenak familiarrak. Unicamente fundiziñuan eren hiru andra alargun geldittuta, ez dakit ze lan ingo eben fundiziñuan. [...] Andrak juaten ziran lanera Osintxura. Han tailar bat euan, textila euan. Eta nik entzunda hara juaten zirala andrak lanera.”

Arantxa Lasa

Beraz, gure herria ez zegoen testuinguruak bizi zuen egoeratik kanpo, ezta politikari zegoionean ere. Horrela, hauteskunde-prozesua egin zen eta bertan herriko indar politikoan banaketa islatu zen.

Ohi bezala, hauteskunde prozesuak luze jo zuen (hiruzpalau hilabete bai): errolda birpasatu, beharrezkoak ziren aldaketak egin, hauteskunde-errolda finkatu, hautagaien izendapenak eskatu, mahaiak prestatu... Zinegotzi kopurua zehazten zuen Legearen arabera (1877ko urriaren 2ko Udal Legea) hamar zinegotzi izatea zegoen Soraluze, eta herria bi barrutitan banatuta zegoenez (bigarrenak bi sekzio), barruti bakoitzari bost zinegotzi aukeratzea zegoen.

Hautesleen errolda horrek ez zuen emakumerik jasotzen, oraindik ez baitzegoen baimenduta andrazkoak hautagai izatea ezta haiek botoa ematea ere. Gerora, Errepublikak ezarri zenean, aurreko legeak aldatzen hasi ziren eta 1931ko urrian emakumei boto-eskubidea aitortu zitzaion.

Apirileko hauteskunde haietan eskuineko 6 ordezkari eta EAJko 4 izan ziren aukeratuak. Baina, beste herri batzuetan bezala, hauteskundeak inpugnatu egin zituzten eta, maiatzaren 19ko aginduari jarraiki, maiatzaren 31n errepikatu egin behar izan ziren. Beraz, prozesua berriz antolatu behar izan zen eta berriro aurkeztu behar izan ziren hautagaitzak; ez ziren, ordea, aurreko denak aurkeztu. Monarkiaren kontrako taldearen hautagaiak (bloke antimonarkikoa) eta zinegotzi ohiak bakarrik aurkeztu ziren.

Así pues, Soraluze no era ajeno a la coyuntura histórica, tampoco en lo que a política se refiere. Al igual que en el resto de territorios, en 1931 se llevó a cabo el proceso electoral, y los resultados evidenciaron el reparto de las fuerzas políticas del pueblo.

Como era habitual, el proceso se dilató en el tiempo, unos tres o cuatro meses. Se hacía necesario actualizar el censo, hacer los cambios oportunos, establecer el censo electoral definitivo, solicitar el nombramiento de los candidatos, preparar las mesas... Según la ley que definía el número de concejales (Ley municipal del 2 de enero de 1877), a Soraluze le correspondían diez concejales, cinco por cada uno de los dos distritos en que se dividía el pueblo (el segundo de ellos dividido, a su vez, en dos secciones).

El censo electoral no incluía a ninguna mujer, ya que aún no se les permitía ni votar ni ser candidatas. Fue, después, en octubre de 1931, con el establecimiento de la II República y la promulgación de nuevas leyes, cuando se reconoció el derecho al voto para las mujeres.

En aquellas elecciones de abril, la derecha obtuvo seis representantes en Soraluze, y el PNV, cuatro; pero, como en otros pueblos, las elecciones fueron impugnadas y, siguiendo la Orden del 19 de mayo, el 31 del mismo se procedió a la repetición de las votaciones. Hubo de organizarse un nuevo proceso electoral, teniendo que volver a presentar las candidaturas.

Hauteskunde horien ondorioz, ondorengo udal-taldea osatu zen Plazentzian:

Lehenengo barrutian aukeratutakoak:

- Pedro Mari Iriondo Arriola
- Timoteo Laskurain Ganuza
- Lino Alberdi Arregi
- Tiburcio Castañares Larreategi
- Ángel Mendia Iraolagoitia

Bigarren barrutian (2. Sekzioa)

- Venancio Iñurrieta Aguirregomezcorta
- José Sesma Bustinduy
- José Zubiaurre Maiztegi
- Celestino Cano Lizarralde
- Ricardo Joaristi Gabilondo

Pedro Mari Iriondo izendatu zuten alkate.

Sin embargo, a esta nueva convocatoria no se presentaron todos, sólo presentaron candidatura el grupo contrario a la Monarquía (Bloque antimonárquico) y los anteriores concejales en el Ayuntamiento.

Este fue el equipo municipal resultante de este proceso electoral:

Elegidos en el primer distrito:

- Pedro Mari Iriondo Arriola
- Timoteo Laskurain Ganuza
- Lino Alberdi Arregi
- Tiburcio Castañares Larreategi
- Ángel Mendia Iraolagoitia

Segundo Distrito (2ª Sección)

- Venancio Iñurrieta Aguirregomezcorta
- José Sesma Bustinduy
- José Zubiaurre Maiztegi
- Celestino Cano Lizarralde
- Ricardo Joaristi Gabilondo

Pedro Mari Iriondo fue nombrado alcalde.

por el artículo 52 de la repetida Ley, proclamo Concejales a los señores que han alcanzado mayor número de votos y que son :

- Don Pedro María Iriondo Arriola.
- Don Timoteo Lascourain Garza
- Don Lino Alberdi Arregui
- Don Tiburoio Castañares Larreategui.
- Don Angel Mendia Iraolaogitia.

 SECCION SEGUNDA

Seguidamente se dio lectura al pliego recibido de esta Seccion, que arroja el resultado siguiente :

Don Venancio Ihurrieta Aguirregomezcorta.....	150	votos.
Don Jose Sesma Bustinduy.....	143	id.
Don Jose Zubiaurre Maistegui.....	143	id.
Don Celestino Cano Lizarralde.....	143	id.
Don Ricardo Joaristi Gabilondo.....	147	id.
Don Jose Ma Iraolaogitia Larrañaga.....	146	id.
Don Cesareo Ezenarro Querejeta.....	137	id.

Y como tambien este Distrito ha de elegir cinco Concejales, quedaron proclamados :

- Don Venancio Ihurrieta Aguirregomezcorta.
- Don Jose Sesma Bustinduy.
- Don Jose Zubiaurre Maistegui.
- Don Celestino Cano Lizarralde.
- Don Ricardo Joaristi Gabilondo.

Cumplidas las disposiciones legales, se acordó archivar en esta Junta el acta y documentos inherentes, ordenandose al Secretario que cumpla lo dispuesto en los artículos 53 y 54 y en la Real Orden de 26 de abril de 1909.-

En fé de lo cual se levanta la presente por duplicado, firmando firmando los señores de la Junta presentes en el acto, de que doy :

Nicomedes Inchaurre
Pedro Fernandez
José Zubiaurre
Juan María Iriondo

Eulogio Artola
José Maria de Iraolaogitia
Lino de Alberdi

ERREFORMAK ETA DESADOSTASUNAK

II. Errepublikak aldarrikatzearekin batera, Alcalá Zamorak zuzendutako gobernu probisionalak ezarri zen apirilaren 14an, honako osaketarekin: Alcalá Zamora eta Miguel Maura monarkiko ohiak, Lerroux eta Azaña errepublikarrak eta Prieto, Largo Caballero eta Fernández de los Ríos sozialistak.

Espainiako gobernu berriak hasieratik ekin zion erreforma programa sakona egiteari: lana banatzeko irizpideak finkatu, zortzi orduko lan jardunaldia, kultura eta irakaskuntzaren zabalkuntza, neska eta mutilentzako irakaskuntza laikoa eta abar. Era horretako aldaketak egitea aurreikusten zuten. Halaber, behin 1931ko ekainaren 28an Gortetarako hauteskundeak irabazi ondoren, Konstituzio berria sortzeari ekin zioten errepublikarrek eta sozialistek. Konstituzio horrek, berriz, honelakoak jasotzen zituen: herri eta lurraldeen autonomia onartzen zuen (autonomia estatutuak), estatuari ematen zion desjabetzeak egiteko ahalmena, estatuak ez zuen erlijioa lehenetsiko, ezta laguntza ekonomikorik emango ere inongo erlijiori, eta beste hainbat.

Konstituzioak errepublikarren, sozialisten, Esquerra Republicanaren, euskal nazionalisten, eta ezkertiar erradikalen aldeko botoa izan zuen, baina eliza eta sektore kontserbadoreen oposizioa jaso zuen, indar politikoen arteko banaketa areagotuz. Euskadiren kasuan, indar politikoak hasieratik zatitu zituzten gaiak lau izan ziren: gobernu

REFORMAS Y DESACUERDOS

Con la proclamación de la II República, el 14 de abril se constituyó un gobierno provisional liderado por Alcalá Zamora y formado por éste mismo y Miguel Maura, ex-monárquicos; Lerroux y Azaña, republicanos y Prieto, Largo Caballero y Fernández de los Ríos, socialistas.

El nuevo Gobierno español puso en marcha un profundo programa de reformas, tales como, el establecimiento de criterios para el reparto del trabajo, la jornada laboral de ocho horas, la divulgación de la cultura y la enseñanza, la educación laica para chicas y chicos, etcétera. De la misma manera, tras ganar las elecciones a Cortes el 28 de junio de 1931, republicanos y socialistas comenzaron a redactar la nueva Constitución. Ésta recogía, entre otras cuestiones, principios como el de la autonomía de los pueblos y los territorios (estatutos de autonomía), otorgaba al Estado la capacidad de expropiación, no concedía prioridad a la religión, ni contemplaba ayudas económicas para ninguna.

La Constitución recibió el voto favorable de republicanos, socialistas, Esquerra Republicana, nacionalistas vascos e izquierda radical; pero tanto la Iglesia como los sectores más conservadores mostraron su rechazo, agrandándose así la brecha entre los distintos partidos políticos. En el caso de Euskadi fueron cuatro las cuestiones que desde un principio enfrentaron a las distintas fuerzas políticas: el tipo de gobierno,

mota, gizarte gaiak, erlijioaren arazoa eta lurraldetasuna; azken bi horiek batez ere. Horien inguruan joan ziren lerrokatzen edo elkarrengandik aldentzen ezkerreko errepublikanoak eta eskuineko katolikoak.

Hasieran, erlijioa zela-eta, EAJk karlismoarekin egin zuen bat. Lehenengoa Bizkaia eta Gipuzkoan nagusi zen; bigarrena, berriz, Araba eta Nafarroan. Biek sinatu zuten, nagusiki, Lizarrako Estatutua 1931ko ekainaren 14an. Horren bidez, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarako estatutu-autonomoaren izaera eskatzen zuten Espainia barruan. 548 udalen artetik, 427k sinatu zuten. Plazentziako herriak ere Lizarrako Estatutuari baiezkoa eman zion hauteskunderen bidez eta 1933an berretsi zuen ordurako hainbat aldaketa jasan zituen estatutu berriarekiko atxikimendua. Aldarrikapen horiek, ordea, ez ziren onartu eta gobernuak eskumen gutxiago onartzen zituen beste estatutu-proposamen bat egin zuen.

Gerora, lurraldetasunak eta estatutuaren eskaerak errepublikaren alde egitera eraman zuten EAJ, Frente Popularrarekin bat eginik eta karlismoari kontrajarriz. Izan ere, karlistek elizaren interesak lehenetsi zituzten autonomia estatutuaren gainetik. Lurraldetasunaren gaiak, beraz, eragin handia izan zuen ezker eta eskuinaren arteko hausturan eta errepublikaren garaiko gatazka politikoa areagotu egin zuen.

Aipatutako indar politiko horiek beraien lekua zuten herrian eta haien gaiak kudeatzeko eta bazteko elkarguneak zituzten. Batetik *Casino Unión*

los temas sociales, la religión y la territorialidad; estas dos últimas, sobre todo. En torno a dichas cuestiones se fueron alineando o alejando entre sí republicanos de izquierdas y católicos de derechas.

Al principio, y teniendo en cuenta el tema de la religión, el PNV se alineó con el carlismo. El primero era mayoritario en Bizkaia y Gipuzkoa, mientras que el segundo dominaba en Araba y Nafarroa. Ambas formaciones firmaron el Estatuto de Lizarra del 14 de junio de 1931, exigiendo un estatuto de autonomía para Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa, dentro de España. De 548 municipios, 427 firmaron a favor del Estatuto. Mediante votación, Soraluze también dio el visto bueno al Estatuto de Lizarra, y en 1933 volvió a confirmar su adhesión a un Estatuto que ya había sufrido unos cuantos cambios. Sin embargo, las reivindicaciones de los firmantes fueron desoídas y el Gobierno central propuso otro estatuto con menos competencias.

El tema territorial y la petición de estatuto hicieron que el PNV pasara, más tarde, a defender los postulados republicanos, alineándose con el Frente Popular y enfrentándose al carlismo, ya que éstos últimos dieron prioridad a los intereses de la Iglesia antes que al Estatuto de autonomía. La cuestión territorial, por tanto, tuvo gran influencia en la ruptura de relaciones entre izquierda y derecha, y acrecentó el conflicto político de la época republicana.

Liberal. Federación de Izquierdas izeneko zegoen, *El liberal* moduan ezagunagoa, Errabal kalean Zubi Nagusiaren ondoan. Bestetik, abertzaleek Batzokia zuten, Santa Ana kalean lehenik eta 1932. urtetik aurrera Plaza Zaharrean. Azkenik, karlistek *Círculo Tradicionalista* zeukaten Kalebarreneko lehenengo zenbakian, 2. solairuan. Beste elkargune garrantzitsu bat katolikoena zen, *Círculo Católico* izeneko eta abadetxeko beheko solairuan zegoen. Antzerkiak, dantzaldiak, hitzaldiak eta beste hainbat jarduera antolatu ohi zituzten.

Las fuerzas políticas citadas anteriormente tenían presencia y representación en Soralueze, y disponían de sedes sociales donde reunirse. Por un lado, estaba el llamado *Casino Unión Liberal. Federación de Izquierdas*, sede de los republicanos, más conocido como El liberal, estaba situado en la calle Errabal, junto al Zubi Nagusia. Por otro, los abertzales tenían el Batzoki, en la calle Santa Ana al principio, y en Plaza Zaharra a partir de 1932. Por último, los carlistas tenían su sede en el *Círculo Tradicionalista*, en el segundo piso del número 1 de Kalebarren. Otro importante centro

“**N**uestro padre solía ir al Liberal y estaba, donde estaba el Banco Vizcaya. Era en el primer piso y era una casa gris y era de madera, los miradores. Solíamos ir allí y el padre y jugaban al billar. Y allí tenía una oficina mi padre en un cuarto pequeño porque mi padre escribía en la prensa.”

Esperanza Alberdi

“**S**olía haber bailes, iban al baile y claro, iera más pecado! Todas las mujeres que iban allí eran unas pecadoras. Hasta el cura dicen que decía del púlpito.”

Resu Gallastegi

Aipatzekoa da, EAJren kasuan, Emakume Abertzaleen Batza ere bazegoela. Politika eta hezkuntza helburu zituen taldea Batzokian batzen zen. Gabon sasoiari, esaterako, umeentzako arropak eta beste hainbat zituen otartxoak prestatzen zituzten behartsuentzat. Ume dantzariak jaztera ere haiek joaten ziren eta hauteskundeetan ere izaten zuten zereginik.

de reunión era el *Círculo Católico*, sito en el bajo de la casa parroquial, y donde se organizaban actividades diversas como teatro, danzas, charlas y otros muchos actos.

Igualmente, en el caso del PNV, también existía el Emakume Abertzaleen Batza, grupo que se reunía en el Batzoki con el objetivo de fomentar la

“Hauteskundieta ibiltzen ziran andrak listekin kalia. Etortzen ziranian botatzera ikusten eben “halako etorri da, botua emon dau”, gurutzia. Eta ia eguna aurrera bazoian eta bateron bat falta bazan, generalian basarriko jendia izaten zan, andrak edo mutilak, juan eta ekarri.”

Arantxa Lasa

EUKADI POR SU ECONOMIA
COOPERATIVISMO, LIBERTAD, TRABAJO
EIZKOLUEN ALKAR LANGINTZA
Por otro nombre
E I A L
representa esas frases que encabeza este anuncio
¿POR QUE?
Porque los solidarios vascos escopeteros tienen montada la primera Cooperativa de producción que se basa en los antiguos gremios de la raza.
PATRIOTA O SOLIDARIO QUE ESTO LEES,
MANDA TUS PEDIDOS A LOS MISMOS
Maria Angela, 11, 1.º E I B A R (Guipúzcoa)

política y la educación, y realizaba también distintas actividades como, por ejemplo, preparar cestas para la gente más necesitada, vestir a las niñas y niños dantzaris o contribuir en algunas tareas de los procesos electorales.

En cuanto a la situación económica, las dificultades continuaban y el trabajo escaseaba, y hubieron de desarrollarse distintas iniciativas para hacerles frente. Así, siguiendo el modelo de cooperativa de Alfa, los obreros de Soralueze, Eibar y Elgoibar, afiliados a ELA-STV y dedicados a la fabricación

Era berean, erreformak erreforma, egoera ekonomiko zailari irtenbideak topatzeko ahaleginak egiten jarraitu beharra zuten herritarrek. Hala, 1933an, Alfaren kooperatiba ereduari jarraituz, Soraluzeko, Eibarko eta Elgoibarko ELA-STVra afiliatutako eskopetaginek armagintzan jarduteko kooperatiba sortu zuten. EIAL izena jarri zioten enpresari (Euzko Izkilluginen Alkar Laguntza – Cooperativa de Armeros Vascos). Langabezian ziren armaginak berriz batu eta haiei lana ematea zuen helburu. Era askotako milaka eskopeta egin zituzten.

ESKUINDARRAK GOBERNUAN

1933an izandako uzta txarrei eta greba-giroari PSOE barruko krisia gehitu zitzairen, eta Espainiako Parlamentua desegin eta hauteskundeak izan ziren berriz azaroaren 19an. Ordurako, eskuindarrek CEDA (Confederación Española de Derechas Autónomas) sortua zuten, Gil Roblesen lidergopean eta, ezkerre sakabanatuta zegoenez, CEDAk irabazi zituen hauteskundeak.

Espainiako gobernuak aurrekoek bultzatutako aldaketak geldiarazi zituen, legedi berria sortuz: nekazal erreformaren lege berria, esaterako, desjabetzearen aurkakoa eta beste. Aldaketa horien artean, berriz, euskal foruen azken hondarra zen Kontzertu ekonomikoa indargabetzearena zegoen. Horrek indar politikoen arteko bi bloke jarri zituen aurrez aurre: batean, EAJ, PSOE eta ezkerreko errepublikarrak; eta bestean, eskuineko errepublikarrak, CEDA eta monarkikoak.

de escopetas, crearon una cooperativa armera en 1933. La empresa se llamó EIAL (Euzko Izkilluginen Alkar Laguntza – Cooperativa de Armeros Vascos), y el principal objetivo era agrupar a los armeros en paro y conseguir trabajo. Fabricaron miles de escopetas de distintos tipos.

LA DERECHA EN EL GOBIERNO

El plan de reformas del Gobierno no sirvió para mejorar la situación, y a las malas cosechas y las huelgas de 1933 se sumó la crisis interna del PSOE. El descontento social y político era general, y derivó en la disolución del Parlamento español y en la convocatoria de nuevas elecciones para el 19 de noviembre del mismo año. Para entonces, la derecha ya había creado el CEDA (Confederación Española de Derechas Autónomas), bajo el liderazgo de Gil Robles; y ante una izquierda fragmentada, la CEDA resultó vencedora en los comicios.

El nuevo Gobierno español paralizó las reformas promovidas por sus antecesores creando una nueva legislación, como la nueva ley de reforma agraria, que impedía las expropiaciones y expulsaba a aquellas personas que habían ocupado tierras; el freno a los estatutos de au-

Halaz, kontzertu ekonomikoa indargabetzeak zergen arloan ere aldaketak eragin zituen eta udalak diru-iturri garrantzitsua zen ardoaren zergaren eskumenik gabe geratu ziren. Horri erantzunez, euskal udal asko gobernu zentralaren aurka altxatu ziren. Horrenbestez, 1934ko uztailearen 29an Bilbon egindako bileran, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Udalen Batzarrak kontzertu ekonomikoaren eta udal-autonomiaren defentsarako batzorde bat aukeratzea

tonomía, enfrentándose a los nacionalismos; o la reconciliación con la Iglesia, entre otras. Esta contrarreforma arremetió contra los últimos resquicios de los fueros vascos, derogando el Concierto Económico, lo que llevó a la formación de dos bloques: por un lado, PNV, PSOE y las fuerzas republicanas de izquierdas; y por otro, las fuerzas republicanas de derechas, la CEDA y las fuerzas monárquicas. La derogación del Concierto Económico trajo consigo importantes

“Kontzejupia, hori behe gúztia zan. Alondigía izaten zan, ardauak inpuetua zeuken, diputazinuana edo izango zan, eta ardauak pasatzen ziran. Direktamente ezin zeikian ekarri tabernarixak eta ardaua, zerian hartu bihar eben, alondigán. Alondigátikan zerbitzen ziran, zaragixak izaten ziran orduan. Precisamente, deretxak erela, kendu egin otsen ardauana eta aiuntamentuan dimitidu egin eben.”

Julen Iñurrieta

erabaki zuen, herriz herri egingo ziren hauteskunde bidez. Erabaki horri jarraiki, indar militarrez inguratuta, Plazentziako udal ordezkariak udal artxiboan bildu ziren abuztuaren 12an eta batzordea osatzeko bozketa egin zuten. Egindako bozketa legez kanpokoa izateak,

cambios en temas fiscales, y los ayuntamientos se quedaron sin una de sus fuentes de ingresos más importantes al quedarse sin competencias sobre los impuestos del vino. Muchos municipios vascos optaron por rebelarse contra el Gobierno central, y de esta manera, en una reunión

ordea, Jose Mari Iriondo alkatea kargutik kentzea izan zuen ondorio.

Gertatutako guzti horrengatik, euskal udal gehienetako ordezkariak dimititu egin zuten, baita Plazentziakoek ere, eta gobernadore zibilek kudeaketa-batzordeak osatuz ordezkatu zituzten. Plazentziako udalean, esaterako, Luis Bolunburu jarri zuten jarduneko alkate.

Kontzertuaren eta udal autonomiaren gatazka honek Euskadiko indar politikoen banaketa berretsi zuen: batetik, eskuineko indarrak, CEDA, karlistak eta monarkikoak. Bestetik, abertzaleak, sozialistak eta ezkerreko errepublikarrak, dimititu zuten euskal udalen erabakia babestu zutenak, alegia.

celebrada en Bilbao el 29 de julio de 1934, los municipios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa debatieron sobre la creación de una comisión para la defensa del Concierto Económico y la autonomía municipal, decisión que debería tomarse mediante votaciones a realizar en cada uno de los municipios. Hubo, sin embargo, prohibición expresa, por parte del gobierno, a la realización de dichas votaciones. Por ello, rodeados de fuerzas militares, los representantes municipales de Soraluze hubieron de reunirse en el archivo municipal el 12 de agosto para votar acerca de la formación de la citada comisión. El hecho de que la votación fuera ilegal trajo consigo que el alcalde Jose Mari Iriondo perdiera su cargo.

Todo lo acontecido propició la dimisión de los representantes de la gran mayoría de los municipios vascos, incluidos los de Soraluze; y los gobernadores civiles tuvieron que sustituirlos creando las llamadas Comisiones de gestión. Así, en Soraluze Luis Bolunburu fue nombrado alcalde en funciones por el Gobernador Civil. El conflicto por el Concierto y la autonomía municipal no hizo sino confirmar la polarización de los partidos políticos de Euskadi: por un lado, las fuerzas de la derecha, CEDA, carlistas y monárquicos; por otro, nacionalistas, socialistas y republicanos de izquierdas, precisamente, los que defendieron las decisiones de los municipios cuyos representantes dimitieron.

Paralelamente a ese complicado contexto político, los conflictos sociales seguían a la orden del día, con enfrentamientos entre sindicatos y el paro como ejemplos de ello. El número de huelgas fue incrementán-



Testuinguru politiko korapilatsuarekin batera, gizarte-gatazkak bere horretan iraun zuen, sindikatuen arteko tirabirak eta langabezia lekuko. Horrela, greba-giroa areagotu egin zen 1934ko lehenengo seihilekoan eta urrian iraultza piztu zen. Estatuan, Katalunian eta Asturiasen hartu zuen indarra eta 1.335 hildako izan ziren. Gipuzkoan, berriz, Arrasaten eta Eibarren izan zuen grebak arrakastarik handiena. Eibarren 400 iraultzaile armatuk kaleak hartu zituzten eta borroka gogorrak gertatu ziren: 6 pertsona hil ziren eta 300 lagunetik gora atxilotu zituzten. Greba hartan parte hartzearen, biharginak kaleratu ere egin zituzten; esaterako, lanposturik gabe geratu ziren zazpi gizonak Alberdi Guridi Esnal lantegia sortu zuten Gabolats kaleko etxepe batean.

Soraluzen greba baketsua izan zen, urriaren 5etik 11ra. Hala ere, ekintza armatuak saiheste aldera eta Gipuzkoako Komandantzia militarrek aginduta, Plazentziako Udalak agintaritza zibil edo militarren baimenik ez zuten armak jasotzeko agintzen zuen bandoa zabaldu zuen.

Egoera zaila zen eta herriko bihargin langabetuen kopurua altua. Plazentziako Udal Gobernu Interinoak erabaki zuen herriko eragileen arteko bilera irekia deitzea, 1934ko urriaren 25ean. Bileran horren helburua egoera larri hori arintzeko irtenbideak bilatzea zen. Horrela, besteak beste, eta udalaren ekimenez, langabezia zeuden biharginentzako dohaineko sukaldeak antolatu ziren 1934. eta 1935. urteen artean eta udaleko diruz sostengatutako Sukaldean Administrazioarako Batordea sortu zen.

dose a lo largo del primer semestre de 1934, hasta que culminó en la revolución de octubre, movimiento huelguístico en el que la clase obrera y el campesinado se alzaron contra un gobierno cada vez más a la derecha. En el Estado se hizo notar, sobre todo, en Catalunya y Asturias, y hubo 1.335 personas muertas. En lo referente a Gipuzkoa, las huelgas tuvieron especial eco en Arrasate y Eibar. En Eibar, por ejemplo, 400 revolucionarios armados tomaron las calles y hubo duros enfrentamientos, con 6 personas fallecidas y más de 300 detenidos. Además muchos obreros fueron despedidos por tomar parte en aquella huelga; y a raíz de tales despidos, algunos de ellos se asociaron formando nuevas empresas, como por ejemplo, la fábrica Alberdi Guridi Esnal en Placencia, creada por siete trabajadores despedidos y situada en un bajo de la calle Gabolats.

La huelga fue pacífica en Soraluze, y duró desde el 5 hasta el 11 de octubre. Sin embargo, para evitar acciones armadas, y siguiendo instrucciones de la Comandancia Militar de Gipuzkoa, el Ayuntamiento promulgó un bando instando la recogida de todas las armas que no tuvieran permiso de las autoridades civiles o militares correspondientes.


La situación era complicada y la tasa de desempleo era muy alta. El Gobierno municipal interino convocó una reunión de los principales agentes locales el día 25 de octubre de 1934, con el objetivo de buscar soluciones a la grave situación por la que atravesaba el municipio. Así, en 1934 y 1935 se organizaron cocinas gratuitas para la gente del pueblo que estaban en paro, y se creó una comisión administrativa de dichas cocinas sostenidas por las arcas municipales.

1936

GERRAREN ATARIAN

1936

LA ANTESALA DE LA GUERRA



EZKERREKO ALDERDIEN BATASUNA: FRENTE POPULARRA

Ez zen giro Espainiar estatuan. Hala ere, 1936ko urtarrilean ezkertiarrok batu, hitzarmena sinatu eta Frente Popularra sortu zuten. Hitzarmen horren bidez Errepublikak hasierako erreformen dinamika berreskuratu nahi izan zuten eta horrelako neurriak hartzeko asmoa azaldu zuten: 1934ko iraultzaileentzat amnistia orokorra eskatzea, nekazal erreforma ezartzea, Kataluniako estatutua ezartzea, udal-legedi berria indarrean jartzea, lehen eta bigarren hezkuntza unibertsalizatzea eta beste hainbat neurri. Union Republicana, Izquierda Republicana, PSOE, PCE, UGT, Kataluniako Esquerra Republicana eta beste batzuek sinatu zuten. CNTk eta anarkistek ez zuten sinatu, baina aldeko botoa eskatu zuten. EAJ, ostera, bere aldetik aurkeztu zen.

Plazentzian koalizioetako programak ezagutzarazteko mitinak egin zituzten Gayarre zinemaren. Horieta bat Frente Popularrak eman zuen. Dokumentuen arabera, 600 bat lagun bildu zituzten. Bestea, bloke kontrairaultzaileak eman zuten, Euskadiko zibilizazio kristauaren alde, iraultza eta konplizeen aurkako botoa eskatuz.

1936ko otsailaren 16an hauteskundeak egin ziren eta Frente Popularrak irabazi zituen. Euskal Herrian, quorumik ez eta, bigarren bueltan, martxoaren 1ean EAJ nagusitu zen, Euskadin lehenengo partidua izatera helduz. 9 diputatu lortu zituen EAJk (5 Bizkaian eta 4 Gi-

A las Agrupaciones socialistas y organizaciones obreras pertenecientes a la U. G. T.

CARABAS:

Próxima la fecha simbólica del Primero de Mayo, en que el proletariado de todo el mundo — con la persona excepción de los países sometidos al esclavismo fascista — despliega sus demostraciones de fuerza, de expresión y de voluntad revolucionarias, el Partido Socialista Obrero Español y la Unión General de Trabajadores, exponen ante vosotros de la personalidad colectiva de la clase obrera de España en lo político y en lo social, dirigidos a sus Secciones un cordial llamamiento para que, guiadas en su acción, organicen el paro y fomenten en la tribuna y en la calle las aspiraciones que son hervir y anhelo de las clases productoras y llaman a que hoy encuentren en el seno de las siguientes aspiraciones, desbordadas, busca horizontes más amplios en que agosten y realicen plenamente el ideal tanto como el programa.

El mundo capitalista es hoy, a nuestros ojos, el triste estado de ruina de una economía anarquizada que se mueve de viaje, de criminal y de codicia. Sus progresos, depositados en la ciencia, explotados en el ejército de desorganización que está asediado con él y con el ataque al escudo de la paz que se disputa la Humanidad en guerra civil sin tregua, sin piedad y sin otro sitio de redención que el Socialismo, socialista, de fórmula socialista, es realidad social.

Hoy de muerte, el capitalismo se defiende utilizando sus últimas armas: en lo extremo, con medidas imperiales; en lo interno, con el apuro arrojado de las dictaduras fascistas o fascitoides; y armas exhaustivas de los sectores del pasado, movidas por el odio de los siglos y condicionadas por sucesivas generaciones de reacciones políticas y económicas que el proletariado rompa con su solidaridad internacional y con su cohesión de clase, opacando, frente al fascismo y al capitalismo rapaz, el Socialismo emancipador.

Ahora de una noche de martirio materiales y de sacrificios morales en el momento social español. Deramados los países fascistas que se apoderan el recurso social de nuestro país, abatidos en la política las fuerzas reaccionarias, un ancho campo se ofrece al proletariado español, unido espiritualmente como jamás lo estuvo. El porvenir va a ser lo que nosotros queramos que sea. Y lo que queremos nosotros, felices intérpretes del pensamiento de Marx y de Engels en la doctrina, hermanos espirituales en lo acción de todas las corrientes proletarias decididas a seguir una ruta de bienestar social, es que terminen las luchas de la clase para que sólo exista la clase de los que rinden cotidianamente el fruto de su trabajo molecular e intelectual.

Cadauno que perderá un amigo que ganar. No otra es la conciencia del momento. En las jornadas hacia esa meta, el Primero de Mayo de 1936 es fecha de alta significación, a la cual hay que consagrar todo esfuerzo, a fin de que nuestro pueblo en festividad superficial lo que en demostración silenciosa de energía, conciencia y decisión revolucionaria.

Las Comisiones ejecutivas del Partido Socialista Obrero Español y de la Unión General de Trabajadores expresan así, en todos los pueblos de España, el paro alcance la mayor amplitud posible y las manifestaciones públicas sean presididas por representantes de todos los Partidos obreros que se inscriban en una fórmula clasista, como expresión del deseo de unidad que a todos nos anima, sin la cual será muy difícil el aplazamiento de la reacción, y desean que en todas las actas públicas se verifique colectiva para servir los fondos destinados a realizar el propósito humanitario al proletariado socialista, que tan alto rango cob-

rar, con hechos imborrables y asertivos hechos, sea posible hoy que va a darse el Primero de Mayo.

En marcha la realización del programa del Frente popular, que tendrá en nosotros apoyo y estímulo, aunque su éxito sea nuestra aspiración de clase, reclamamos su cumplimiento rápido y la implantación de las siguientes medidas:

- 1.º Castigo inflexible de los delitos que actúan de peligro y obstáculo en la realización del movimiento de octubre, y reparación moral y económica a las víctimas.
- 2.º Humanización del régimen de prisiones.
- 3.º Revisión de los salarios públicos.
- 4.º Repoblación de la magistratura, del ejército y de la administración del Estado.
- 5.º Revisión de la ley de Orden público y de la de Vigas y materiales, suprimiendo en esta la mal llamado "policialismo social".
- 6.º Regresión implacable de la usura.
- 7.º Disminución de rentas abusivas.
- 8.º Exención del crédito agrícola.
- 9.º Derogación de la ley de Arrendamientos, promulgada de una nueva y revisión de desahucios.
- 10.º Intensificación de las explotaciones agrícolas relictivas.
- 11.º Remate inmediato de los bienes comenales.
- 12.º Restitución de los bienes de la titulación obrera.
- 13.º Lucha más enérgica de coherencia laboral, y establecimiento de jorales mínimos.
- 14.º Establecimiento del control obrero en las industrias.
- 15.º Auxilio del Estado a los Sindicatos para atender urgentemente los parados forzados.
- 16.º Construcción de viviendas urbanas y rurales.
- 17.º Castigo del delito de sevillamiento del salario, y establecimiento de jorales mínimos.
- 18.º Restablecimiento y revisión de la legislación social de las Corporaciones.
- 19.º Nacionalización de la Banca y de las industrias básicas.
- 20.º Sometimiento de la Banca a las necesidades del país.
- 21.º Censado intertrámula de escuelas primarias.
- 22.º Acceso de la juventud obrera a las aulas universitarias.
- 23.º Estudios profesionales y análisis económico a la juventud que los realiza.
- 24.º Restablecimiento de las relaciones diplomáticas y comerciales con la U. R. S. S.

CARABAS:

Que el Primero de Mayo constituya solemnidad real de nuestros laborables principios socialistas; cohesión firmeza de cuantos los sentamos arraigados en la conciencia y vinculados a la conciencia; homenaje a los que separen servicios con el sacrificio, y espíritu de una fuerza que vele por la democracia anti-fascista como estrecho necesario para acrecentar al dominio de la economía socialista.

¡Abajo la guerra imperialista!
¡Abajo las dictaduras fascistas!
¡Viva el Socialismo universal!

Madrid, 18 de abril de 1936. — Por el Partido Socialista, Juan Simón Vitoria. — Por la Unión General de Trabajadores, Francisco Largo Caballero.

Unión Socialista: San Sebastián, 18.

UNIÓN DE LOS PARTIDOS DE IZQUIERDAS: EL FRENTE POPULAR

El descontento y la conflictividad social iban en aumento y el Gobierno español reaccionaba endureciendo las medidas. La polarización entre "las izquierdas" y "las derechas" era cada vez ma-

(Oficial)

Alcalde a Gobernador Civil.-San Sebastián.

Celebróse anoche Cinema Gayarre autorizado mitin Frente Popular con asistencia de 600 oyentes, gran parte de ellos forasteros. Oradores atacaron derechas. No se registraron incidentes.

Salúdale.

Alkateak Gobernadore Zibilari bidalitako oharra, Frente Popularraren mitinaz.

(Oficial)

Alcalde a Gobernador Civil.-San Sebastián.

Celebrado mitin Bloque Contrarrevolucionario cinema Gayarre con asistencia de 600 oyentes y sin que se registrase ningún incidente. Oradores han atacado el supuesto de manifiesto peligro que supone para los intereses de la Religión y de la Patria el triunfo de los revolucionarios y han propugnado porque todos los que son amantes de la civilización cristiana y de Euzkalerria voten contra la revolución y sus cómplices.

Le saluda

Eguen

Bloke Kontrairaultzaileak mitinean esandakoak helarazi zizkion alkateak gobernadore zibilari.

puzkoan), eskuindarrek 8 (7 Nafarroan eta 1 Araban) eta Frente Popularrak 7 (4 Bizkaian, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban).

yor. En ese contexto, se convocaron elecciones para febrero de 1936, y los partidos de izquierda se unieron en enero para presentar una candidatura conjunta, creando el Frente Popular. Pretendían retomar la dinámica reformista de comienzos de la República, recuperando anteriores medidas y propiciando otras nuevas: amnistía general para los revolucionarios de 1934, implantación de la reforma agraria, establecimiento del Estatuto de Catalunya, puesta en marcha de una nueva legislación municipal, universalización de la educación primaria y secundaria... Firmaron el acuerdo Unión Republicana, Izquierda Republicana, PSOE, PCE, UGT, Esquerra Republicana de Catalunya y algunos otros grupos; y aunque la CNT y los anarquistas no lo firmaron, pidieron el voto a favor. El PNV concurreó en solitario.

En Soraluze se celebraron diversos mítines en el cine Gayarre, dando a conocer los programas de las coaliciones: uno, el celebrado por el Frente Popular, al que acudieron, según documento de la época, unas 600 personas; otro, el del bloque contrarrevolucionario, en defensa de la civilización cristiana de Euskadi, y pidiendo el voto en contra de las personas revolucionarias y sus cómplices.

El 16 de febrero de 1936 se celebraron las elecciones y ganó el Frente Popular, aunque en el País Vasco no hubo quórum, es decir, el candidato más votado no alcanzó el porcentaje de votos que la ley establecía; por ello, se impuso una segunda vuelta el 1 de marzo, en la que el

Plazentziako hauteskunde emaitzak

Juan Antonio Irazusta - EAJ	723 boto
Manuel Irujo - EAJ	723 boto
Rafael Picavea - EAJ	720 boto
José María Lasarte - EAJ	723 boto
Mariano Ansó - IR	226 boto
Luis Apraiz - IR	265 boto
Miguel Amilibia - PSOE	266 boto
Jesús Larrañaga - PCE	263 boto
Hainbat	6 boto
Zuriz	8 boto

PNV resultó ser el primer partido: PNV, 9 diputados (5 en Bizkaia y 4 en Gipuzkoa); la derecha, 8 (7 en Nafarroa y 1 en Araba); y el Frente Popular, 7 diputados (4 en Bizkaia, 2 en Gipuzkoa y 1 en Araba).

Resultados votaciones en Placencia

Juan Antonio Irazusta - PNV	723 votos
Manuel Irujo - PNV	723 votos
Rafael Picavea - PNV	720 votos
José María Lasarte - PNV	723 votos
Mariano Ansó - IR	226 votos
Luis Apraiz - IR	265 votos
Miguel Amilibia - PSOE	266 votos

“Nere aitta zan mikeletien kabua eta ni gogoratzen naiz botazino denpora baten, zubixan demaseko burrukia euan. Hasarre alkarrekin eta, bai, oso gogor, karlistak eta nazionalistak uste dot izan zirala. Nere aitta jua zan eta ikusi ebanian ezin zebala apartatu, tiro bat bota eban gora eta orduan desegindu zan haura.”

Lucia Etxabe

Gobernu berriak berehala eman zien amnistia 1934ko iraultzan inplikaturakoei. Horrekin batera, 1934ko irailean gobernadore zibilak izendaturako kudeaketa-batzordeak kargutik kendu zituen eta 1931ko hauteskundeetan aukeratutako zinegotzien itzulera ahalbidetu zuen, baita Plazentziako Udalaren kasuan ere. Gobernadore Zibilak telefonema bidez jakinarazi zuen herriak hautatutako zinegotziei amnistia eman zietela eta beraien karguetara itzuli zitezkeela otsailaren 22tik aurrera; izan ere, otsailaren 2an, zinegotzi guztien portaera agiriak eskatu zituzten Donostiako Audientziatik indultuak tramitatzeko. Otsailaren 23an, beraz, aurrekoek berreskuratu zituzten kudeaketa-batzordeko kideek utzitako karguak eta Pedro Mari Iriondo alkatetzara itzuli zen.

Espainiako gobernuak apirilean II. Errepublikako presidente izendatu zuen Azaña, eta Soraluze honako indar politikoek osatu zuten Udala: EAJko zortzi zinegotzik eta PSOEko bik. Horretaz gain, baziren herrian karlista tradizionalistak, monarkikoak eta eskuindarrak ere.

Jesús Larrañaga- PCE	263 votos
Varios	6 votos
Blanco	8 votos

El nuevo Gobierno emprendió medidas inmediatas para revocar decisiones del anterior: amnistió a las personas implicadas en la revolución de 1934; cesó en sus cargos a los miembros de las comisiones de gestión nombradas por el Gobernador Civil en septiembre de 1934; y favoreció el regreso de los concejales electos en las elecciones de 1931, también en el caso del Ayuntamiento de Soraluze.

En el caso de nuestro pueblo, el Gobernador Civil informó por telefonema que los concejales elegidos por los vecinos habían sido amnistiados y que podrían volver a sus cargos a partir del día 22 de febrero. Para ello, el 2 de febrero, la Audiencia de San Sebastián había pedido los certificados de conducta de todos los concejales, para así, poder tramitar su indulto. El 23 de febrero recuperaron sus anteriores cargos, ocupados por los miembros de la Comisión de gestión, y Pedro Mari Iriondo regresó a la alcaldía.

En abril de 1936, el Gobierno español nombró a Azaña presidente de la II República, y en Soraluze el Gobierno municipal quedó formado por 8 concejales del PNV y 2 del PSOE. Además, había en el pueblo carlistas tradicionalistas, monárquicos y derechistas que, como se ha mencionado anteriormente, no habían presentado candidatura en la segunda convocatoria de las elecciones municipales de 1931.

HERRITARREN EGUNEROKOA

Osterantzean, herritarren bizimoduak bere horretan jarraitzen zuen. Orduan gazte zirenen esanetan giro lasaian bizi ziren, nahiz eta pentsakera politiko ezberdineko jendea egon.

“ Vivíamos con tranquilidad, cada uno tenía su centro. En el Batzoki los nacionalistas, nosotros estábamos en el Unión Liberal. El Circulo Carlista en el primer piso (sobre el bar Bolia). ”

Emilia Hernaltes

“ Batzokixan danak egoten zittuazen orduan. Geu be juaten ginuazen bilarrera, pelotara be bai. Karlistak eta be bai. Nerekin ibiltzen zittuazen pelotan. ”

Justino Gabilondo

Ospakizunak eta jaiak

Errepublikara garaiako denbora haietan bazegoen jai eta kultura adierazpenetarako tarterik. Ohikoa zen herri-elkarteek eta batzorde batzuek jaietako programak osatzen laguntzea, Udalarri proposamenak luzatuz edota diru-laguntzak eskatuz.

EL DÍA A DÍA

Por lo demás, el día a día transcurría con normalidad. Según rememoran algunas personas, entonces jóvenes protagonistas, vivían con tranquilidad, a pesar de la coexistencia de diferentes ideologías políticas.

Celebraciones y festejos

Aún en tiempos difíciles, las fiestas y expresiones culturales eran importantes en la vida cotidiana. Era habitual que las agrupaciones de vecinos y diferentes comités ayudaran en la confección de los programas de fiestas, mediante propuestas al Ayuntamiento o peticiones de subvenciones.



Club Deportivo Ez Bildurtu. Neska zein mutil, alderdi bateko zein besteko ageri dira argazkian. Besteak beste, pankartari eusten Jose Mari Lete (geroago Frente Popularreko herri-batzordeko Lehendakaria izan zena) eta mendizaleen artean Miguel Larrañaga (altxatuek herria okupatu ostean alkate izan zena).

1936ko udaberrian, esate baterako, Casino Liberalak II. Errepublikaren bostgarren urteurrena ospatzeko programa helarazi zion Udalari, kalejira goizean, kontzertua eguerdian eta dantzaldia plazan, iluntzean; herriko babes-etxeke nagusientzako bazkaria barne.

Bestalde Euzko Nekazarien Bazkunak San Isidro eguna ospatzeko diru-laguntza eskatu zuen, nekazariak kutxa publikoari egindako ekarpenak aldarrikatuz.

En la primavera de 1936, por ejemplo, el Casino Liberal facilitó al Ayuntamiento el programa para la celebración del 5º aniversario de la II República: pasacalle por la mañana, concierto al mediodía y verbena en la plaza por la noche; incluido el almuerzo para las personas mayores del asilo del pueblo.

Por otra parte, la Asociación de Agricultores Vascos, Euzko Nekazarien Bazkuna, pidió una subvención para la celebración del día de San Isidro, reivindi-



San Ignacio banda, karlistena. Liberalen musika banda desagertu ostean, herriko banda bakarra izan zen.



Paz y Labor musika banda, liberalena.

Abuztuko Andramari jaietako programan, gandu lehiaketa, txirrindulari lasterketak, tiro al plato... eta era horretako ekintzak programatu zirela azaltzen da. Hala ere, altxamendu militarren eraginez, 1936ko Andramarietako ospakizunak bertan behera utzi behar izan zituzten.

Herriko ospakizun gehienetan San Ignazio herriko bandak jotzen zuen, baita Eibarkoak edo Bergarakoak ere batzuetan. Udal-txistulariak ere baziren (Basauritarrak) eta Batzokiko dantzariak ere emanaldiak egiten zituzten herrian bertan zein inguruko herrietan.

cando la aportación a las arcas públicas hecha por los agricultores. Igualmente, se programaron actividades para Andramaris, como la feria de ganado, carreras ciclistas o tiro al plato. Sin embargo, estas fiestas de agosto de 1936 no llegaron a celebrarse, teniendo que ser suspendidas a consecuencia del alzamiento militar.

En casi todas las celebraciones del pueblo era la banda municipal San Ignacio quien amenizaba las fiestas y, a veces, también se podía disfrutar de las bandas de Eibar o Bergara. Igualmente, los txistularis municipales (Basauritarrak) y los dantzaris del Batzoki también ofrecían recitales tanto en Soraluze como en los pueblos vecinos.



Batzokiko dantzariak (poxpolinak) Gernikara egindako irteera batean, laguntzaileekin.

Eskolak

Eskolak bat baino gehiago zeuden. Erregetxean *Escuela Municipal de Párvulos* eta Eskola Nazionala (neskak eta mutilak bereizita) zeuden. Bertan irakasle zeuden Maria Teresa Bandaormaetxea (txikiena), Gillermina Altolagirre, Juan Antonio Allue eta Angel Navarro. II. Errepublikak ezarri zenean, estatuko agintaritzak eskatu zuen Errepublikaren sinboloren bat eta Konstituzioaren testu laburrak eskolan erakustea. Horrekin batera, eskola publikoetako gurutzeak kenduarazi zituzten eta haiekin erretaula bat eraiki zen elizako aldarearen eskuinaldean. Ramiro Larrañagaren ustetan, neurri horiek ekarri zuten ikastola sortzea edota erlijioari lotutako eskolak indartzea. Eskola erlijiosoak bi ziren, Maristen Colegio del Sagrado Corazón de Jesús mutilentzat eta Colegio de Nuestra Señora de las Mercedes neskontzat. Herriko lehen ikastola, berriz, Batzokian jarri zen martxan, berau oraindik Santa Ana kalean zegoela, 1931 inguruan. Euskarazko irakasgaiak izaten zituzten eta Xabiartxo liburua erabiltzen zuten, besteak beste. Guzti horiez gain, baziren marrazketa linealeko eskola (Udalak diruz lagundutakoa), marrazketa artistikorako eskola eta musika akademia ere.

Ikasketak burututakoan, agiria lortu nahi zutenak Eibarrera joaten ziren azterketa egitera eta bidaiaren gastuen kargua Udalak edo Diputazioak hartzen zuen bere gain.

Gainera, 1936an inguruko auzoetan eskola berriak eraikitzea ere aurreikusi zen, bertako

Las escuelas

Soraluze contaba con más de una escuela. Estaban la Escuela Municipal de Párvulos y la Escuela Nacional (de chicas y de chicos, separadamente), en Erregetxe. Maria Teresa Bandaormaetxea (parvulario), Gillermina Altolagirre, Juan Antonio Allue y Ángel Navarro fueron algunos de los maestros y maestras de la época. Con la proclamación de la II República, la autoridad estatal exigió que en las escuelas se enseñara algún símbolo republicano, además de textos breves de la Constitución. Igualmente, hicieron quitar los crucifijos de los colegios públicos, y con las cruces se construyó un retablo en la parte derecha del altar de la Iglesia.

A juicio de Ramiro Larrañaga, esas medidas trajeron la creación de la ikastola, o la implantación de escuelas con marcado carácter religioso. Había dos escuelas religiosas, el Colegio del Sagrado Corazón de Jesús de los maristas para los chicos y el Colegio de Nuestra Señora de la Merced para las chicas. La primera ikastola del pueblo, por otra parte, se puso en marcha en el Batzoki, cuando éste estaba aún en la calle Santa Ana, en torno a 1931. Impartían enseñanzas en euskara y, entre otros, usaban el libro Xabiartxo. Además de todas las anteriores, Soraluze contaba con una escuela de dibujo lineal, (subvencionada por el Ayuntamiento), otra de dibujo artístico y con una academia de música.

Una vez finalizados los estudios, había que superar un examen para obtener el certificado. Dicho examen se realizaba en Eibar, y los gastos del viaje eran sufragados entre el Ayuntamiento y la Diputación.



Erregetxeko eskola nazionaletako ikasleak 1924an



Erregetxeko eskola nazionaletako ikasleak 1930ean



Merzedarietako neskak 1923an



Maristetako ikasleak 1929an

“*Tuve tres maestras. Doña Bernarda, le odiaba yo hasta más no poder. Era de Navarra, vestida de negro con su sombrilla para que no le diera el sol. A mí me entraba dolor de tripas cada vez que tenía que ir a la escuela. Doña Felisa, era de Bilbao. Aquella era buena profesora. La última que es la que yo más quise, y ella también a mí me parece, Guillermina Altolagirre, era de San Sebastián.*”

Emilia Hernaites

“*Sei urtekin sartu ginuazen maristetan, ba orduaintxe, treinta y unuan. Maristetan, oso zera zuan, internaua modukua zuan haura. Filan juaten ginuazen elizara domeketan. Elizan berbetan harrapatu ezkeru, kastigatuta han gératu eta. Baina asko erakusten juen maristak.*”

Julen Iñurrieta

umeak joan zitezten. Maltzagako auzoan, adibidez, Eibar eta Plazentziako alkateen eskaerari erantzunez, Diputazioko kudeaketa batzordeak, otsailaren 14an, eskola eraikitzea erabaki zuen.

En 1936 se planteó la necesidad de construir nuevas escuelas en los barrios de la periferia, para que las criaturas residentes en ellos pudieran acceder a la enseñanza con mayor facilidad. Así por ejemplo, la Comisión Gestora de la Diputación, el 14 de febrero, decidió crear una escuela en Maltzaga, en respuesta favorable a la solicitud realizada por los alcaldes de Eibar y Soraluze.

Gizarte laguntzak, langabezia eta pobrezia

Ezin ukatu krisiaren eragina nabarmena zenik herrian. Langabeziari buruzko aipamenak etengabeak dira garaiko udal-dokumentu eta iturrietan, eta baita zailtasunei aurre egiteko araututako baliabideei buruzkoak ere. Horrela, langabetuendako sukaldeen gain, ugariak izan ziren tramitatutako pobrezia espedienteak, eta ondasunik ezaren kasuetan, Udala, Diputazioarekin batera askotan, gaixotasun larriak artatzeko erietxeetako gastuen ordainketaz arduratzen zen.

Era berean, “Kaxako Umeen Babesarako Herri Batzordea” delakoa sortua zen herrian eta horren bidez, besteak beste, bularra emateko emakumeak kontratatzen ziren soldatapean, Diputazioak erregulatuta.

Halako egoeran, biharginen errebindikazioek berebiziko garrantzia hartu zuten. Herriko biharginak sindikatuetan antolatuta zeuden, metalurgiako langileez, armaginez eta zenbait ofiziotako elkarteez osatutako Plazentziako Solidaridad de Trabajadores Vascos Herri Federazioa lekuko. Sindikatuak bere lokal propioa zeukan Batzokian. Solidaridad de Obreros Vascos sindikatu (1933tik aurrera ELA-STV deitua) 1911n sortu zen eta Gipuzkoako lehen elkarte Soraluzekoa izan zen (1912). Apaiz soraluzetar batek, Don Policarpo Larrañagak, partehartze garrantzitsua izan zuen sindikatu horren sorreran, baita sindikatu horren baitan sortutako Euzko Tostarteko Bazkuna (arrantzaleena) eta Euzko Nekazarien

Ayudas sociales, desempleo y pobreza

No se puede negar que los efectos de la crisis eran evidentes en el pueblo. Las referencias al desempleo son innumerables en la documentación municipal de la época y en las diversas fuentes consultadas; al igual que las referencias a los recursos destinados a hacer frente a las dificultades. Así pues, además de las cocinas para la gente desempleada, fueron numerosos los expedientes de pobreza tramitados, y, en casos de ausencia de patrimonio, el Ayuntamiento, junto con la Diputación, se hacían cargo de los gastos hospitalarios ocasionados por enfermedades graves.

Asimismo, se creó la llamada “Asociación Municipal para la Protección de Niños Huérfanos”, que, entre otras cosas, contratava nodrizas que trabajaban bajo salario, mediante un procedimiento regulado por la Diputación.

Ante una situación así, las reivindicaciones de la gente trabajadora adquirieron una gran importancia. Se organizaron en sindicatos, como por ejemplo, la Federación Local de Solidaridad de Trabajadores Vascos que aglutinaba a obreros de la metalurgia, a armeros y a varias agrupaciones de diferentes oficios, y que tenía su sede en el Batzoki. El sindicato Solidaridad de Obreros Vascos (llamado ELA-STV a partir de 1933) se fundó en 1911 y la primera federación local guipuzcoana fue la de Soraluze (1912). El cura placentino Don Policarpo Larrañaga tuvo una participación directa en la fundación del sindicato, y también fue importante su participación en la creación de la Asociación de Marineros Vascos o la Asociación de Agricultores Vascos dentro de ese

Bazkunaren sorreran ere. ELAkoekin batera, baziren Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatura afiliatutako langileak ere.

1936ko maiatzaren lehenengoaren harira, Udalari igorritako idatzi baten bidez, sindikatu metalurgikoak hainbat aldarrikapen egin zituen. Agiria Antonio Eguren presidentek eta Timoteo de Laskurain idazkariak sinatu zuten. Larunbat arratsaldeetan tailarrak ixtea eskatzen zuten, euren esanetan, ez biharginek, ezta patroiek ere, ez baitzuten betetzen asteko 44 orduko jardunaldi metalurgikoa. Herrian langabetu zirenei lana ematea ere aldarrikatzen zuten, herriko enpresetan edo herri-lanetan eta, hori posible ez bazen, langabetuei subsidioa

sindicato. Además de los de ELA, había también afiliación al sindicato Unión General de Trabajadores, UGT.

Con motivo del primero de mayo de 1936, mediante escrito enviado al Ayuntamiento, el Sindicato metalúrgico ELA-STV hizo valer sus reivindicaciones, firmando la misiva el presidente Antonio Eguren y el secretario Timoteo de Laskurain. Pedían el cierre de las fábricas los sábados por la tarde, ya que a su juicio, nadie cumplía con la semana de 44 horas del sector metalúrgico; reivindicaban trabajo para los desempleados del pueblo, en las empresas del pueblo o en las obras que se hicieran en él, y no siendo ello posible, pedían un subsidio para la gente en paro; solicitaban, también, la

24

87

San Sebastián de Enero de 1936

Sr. Alcalde-Presidente de la Junta Local Protectora de Expósitos de ELACENCIA.

JUNTA PROVINCIAL DE EXPOSITOS
DIPUTACION DE GUIPUZCOA

Muy Sr. mío: La Junta provincial de expósitos de mi presidencia remite a V. por conducto de la Administración principal la cantaría a fin de que con arreglo a lo que determina el art. 70 del Reglamento de expósitos, pueda V. satisfacer los haberes del cuarto trimestre 1935 a las nodrizas que residen en esta localidad comprendidas en la presente relación que va por duplicado.

Una de estas relaciones se servirá Vd. devolver convenientemente diligenciada, firmada y sellada, a la Junta, después de hacer constar el estado sanitario de cada expósito y el domicilio actual de la nodriza.

Dándole por ello las gracias anticipadas, me ofrezco de Vd. afectísimo s. s. q. d. s. m.

EL PRESIDENTE,
J. de L. L.

Número del expósito	Nombre del mismo	Nodriza	HABER		Estado del expósito (1)	Domicilio de la nodriza
			Pesetas	Cts.		
8981	M ^{te} Consolación	Guadalupe Ariznabarreta	36, 80			
			36, 80			

*Recibido las 26'80 pta.
Elacencia, 15 de enero de 1936
Guadalupe Ariznabarreta*

ematea eskatzen zuten. Azkenik, herrian Oinarritzko Lanbide Eskola ezar zedin aldarrikatzen zuten. Sindikatuaren arabera, langabetuen formazioa eskasa zen eta beharrezkotzat jotzen zuten eskola maila profesionala hobetzeko. Bide batez, eraikitze lanetan, herriko langabetuei enplegua emango zitzaien. Horretarako, biharginen elkarteek kontrolatutako lan-poltsa osatzea eskatu zuten.

Gizartearen zati handi batek krisiaren ondorio gogorak pairatzen zituen arren, gizarte premiei erantzun asmoz eta eskuindarrek aurrez ezarritako neurriak bertan behera uzteko Fronte Popularraren politikak desadostasun handiak eragin zituen.

Harreman politikoak eta giroa

Egoera politikoari dagokionez, iraunkorra zen Udalaren eta gainontzeko erakundeen arteko harremana. Esaterako, maiatzean bidalitako idatzi baten bidez, udalak Azaña zoriondu zuen Errepublikako Presidente izendatu zutelako eta, bide batez, Euskal Herriak Estatutua onartua ikusteko zuen irrika gogorarazi zion.

1936ko ekainean, berriz, Gipuzkoako Diputazioak horrela eskatuta, Udalak telegramak bidali zizkien Euskal Estatutuaren Parlamentuko Presidenteari eta Gobernuburuari. Horietan, Euskal Estatutua onartzearekin batera, Kontzertu Ekonomikoa mantendu zedila eskatzen zuen, hiru euskal probintzietako kudeaketa-batzordeek Gasteizen izandako bileran lortutako akordioa berretsiz.

creación de una Escuela Básica de Oficios, ya que, según el Sindicato, la formación de los desempleados era muy pobre y consideraban necesaria una escuela para mejorar el nivel profesional. Además, argumentaban, la propia construcción de la escuela serviría para dar ocupación y proponían para ello la formación de una bolsa de trabajo que controlarían las asociaciones de trabajadores.

A pesar de que gran parte de la sociedad sufría directamente las consecuencias de la crisis, las políticas del Frente Popular para dar respuesta a las necesidades sociales e invalidar las políticas aprobadas anteriormente por la derecha generaron grandes desavenencias.

Relaciones políticas y contexto

En cuanto a la situación política, la relación entre el Ayuntamiento y el resto de instituciones era permanente. Por ejemplo, en mayo, tras ser nombrado presidente de la República, el Ayuntamiento envió un escrito de felicitación a Azaña, recordándole, al mismo tiempo, el deseo de Euskal Herria de ver refrendado el Estatuto.

Igualmente, en junio de 1936, y a petición de la Diputación, el Ayuntamiento envió sendos telegramas al presidente del Parlamento del Estatuto Vasco y al jefe de Gobierno. En ellos solicitaba que el Estatuto Vasco fuera aceptado y que se mantuviera el Concierto Económico, refrendando, de esta manera, el acuerdo logrado en Vitoria, en la reunión de las Comisiones Gestoras de las tres provincias vascas.



Policarpo Larrañaga

(1883, Soraluze – 1956, Baiona)

1908an apaiztu eta Eibarren eman zituen gerra aurreko bere apaiz-bizitzako urterik emankorrenak. Kristautasuna oinarri nagusitzat hartuta, bi ezaugarri nagusi izan zituen haren lanak: sindikalgintza eta justizia soziala, eta euskaltzaletasuna. Pilotazale amorratua zen, musikazalea oso, piano eta organo-jolea, antzerkia ere asko maite zuena. Antzerki taldeak eta obrak sortu zituen, baita musika-obrak ere (“Mendiko Eguna” zarzuela eta “Amets-larria” opera) eta hainbatetan saritua izan zen. ELA-STV sindikatuaren sortzaileetako bat izan zen, baita Euzko Tostarteko Bazkuna eta Euzko Nekazarien Bazkunarena ere. Emakume Abertzale Batzaren sorreran ere zerikusia izan zuen. 1929an omenaldi handia jaso zuen Eibarren eta 1931n Elizaren giza ekintzetarako idazkari izendatu zuten. “Argia” eta “Yakintza” aldizkarietan eta “El Día” eta “Euzkadi” egunkarietan artikuluak idazten zituen, baita han-hemenka hitzaldiak eman eta mitinetan parte hartu ere.

1936ko Gerra Zibilak ihes egitera behartu zuen eta Baionan bizi izan zen hogeitaz hamar urtez. Han iheslariei laguntzen saiatu zen, eta “Contribución a la historia Obrera de Euskalerría” eta “Emakume Abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco” lanak idatzi zituen (bera hil ostean argitaratu zirenak), besteak beste. Ordukoak ditu “Pierre Duhalde”, “Andoni de Soraluze” eta “Xabier de Bursain” ezizenak. Ameriketara zehar ere bidaiatu zuen gerraostean. 1956an Baionan hil zen.



Beste adibide bat: Donostiako Sasiain alka-teak horrela eskatuta, eta Madrilen egin behar ziren kudeaketak bultzatzeko, Udalak telegrama igorri zion Ministro Kontseiluko Presidenteari, Euskal Estatutua lehenbailehen onartu eta Kontzertu Ekonomikoa mantendu zezala eskatuz.

Baina, Espainiako gobernu berrian, errepublikarren eta sozialisten arteko harremana ez zen 1931n bezain sendoa, denak ez zeuden 1931ko konstituzioarekin ados, eta errepublikarrak bakarririk aritu ziren programa gauzatzen.

Frente Popularrak irabazi zuenetik, ia hasieratik, eskuma konspirazioak prestatzen hasi zen. Bozetan galtzea onartu ezinda, monarkikoak, falangistak, eskuin klasikokoak eta karlistak sistema politiko harekin amaitzeko konspirazioetan hasi ziren eta ekintza armatu isolatuak gauzatu zituzten. Gipuzkoan eta Bizkaian egoera lasaia bazen ere, ez zen hala izan Araban eta Nafarroan. Kolpe militarra Nafarroan bertan hasi zen prestatzen.

Istiluak saiheste aldera, berriz ere armak konfiskatu zituzten Plazentzian eta beste behin, udalak Gobernadore Zibilarari eskatu behar izan zion jabeei armak itzultzeko. Izan ere, martxo hasieran armaginen kexa jaso zuen Udalak, fabrikatutako armak aurreko hiletik Guardia Zibilen kuartelean gordeta zituztela adieraziz, eta inguruko herrietan konfiskatu ez zituztenez, itzultzea eskatzen zuten. Armak hondatu eta galera handiak izatearen beldur ziren armaginak.

Con ese mismo motivo de solicitud de aceptación del Estatuto y mantenimiento del Concierto Económico, también se envió otro telegrama al presidente del Consejo de Ministros. Este fue enviado a petición del alcalde de San Sebastián, señor Sasiain, como forma de apoyo a las gestiones que, a tal fin, debían realizarse en Madrid.

Sin embargo, en el nuevo Gobierno español, la relación entre republicanos y socialistas no era tan sólida como en 1931; no todos estaban de acuerdo con la Constitución de 1931, y sólo los republicanos se implicaron en la aplicación del programa. La derecha, por su parte, incapaz de aceptar la derrota en las urnas, conspiró casi desde el principio. Monárquicos, falangistas, clásicos derechistas y carlistas conspiraron para acabar con aquel sistema político y con el gobierno del Frente Popular, y protagonizaron acciones armadas aisladas.

Aunque la situación era más calmada en Bizkaia y Gipuzkoa, no era así en Araba y Navarra. De hecho, fue en esta última donde se empezó a gestar el golpe militar. Por ello, con la intención de evitar altercados, de nuevo fueron confiscadas armas en Soraluze, y el Ayuntamiento tuvo que solicitar otra vez al Gobernador Civil la devolución de las mismas a sus propietarios. Y es que el Ayuntamiento recibió una queja formal de los armeros, aduciendo que las armas fabricadas por ellos estaban desde el mes anterior guardadas en los cuarteles de la Guardia Civil y, por no haber confiscaciones de este tipo en las localidades vecinas, exigiendo su devolución. Los armeros temían que las armas se estropearan, con las consiguientes pérdidas económicas que ello les reportaría.

Excmo. Sr. :

En sesión celebrada por el Ayuntamiento de la presidencia el día de ayer, se adoptó el siguiente acuerdo:

91
/

"El señor Abarrieta dice que varios fabricantes armeros de la localidad le han manifestado que desde el pasado mes se hallan recogidas en la casa-cuartel de la Guardia Civil las armas que tenían fabricadas, y como parece que no en todos los pueblos de la zona armera se ha efectuado esta recogida y, por otra parte, las armas tienen peligro de que se oxidan, como ocurrió en otra ocasión, dadas las malas condiciones del local en que están depositadas, con los consiguientes perjuicios para los interesados, le ha rogado que el Ayuntamiento adopte el acuerdo de solicitar del Excmo. Sr. Gobernador Civil de la provincia la inmediata devolución de dichas armas a sus dueños.- Así lo acordó el Ayuntamiento, por unanimidad."

Pasencia, 5 de marzo de 1.956.

M. ALCALDE,

Excmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa.
SAN SEBASTIAN.

Alkateak Gobernadore Zibilari mezua bidali zion, lantegietan konfiskatutako armak itzultzeko baimena eskatuz.

“ Calvo Sotelo hil ebenian juliuan 14an, nere aittak esan otsan Artiağako Basiliori “Ointxe jatok gerria!” porque jeuan ya Madrilen eta mobimentu haundixa eta somatzen genduan gük. ”

Ramon Mujika

ALTXAMENDUAREN AURREKARIAK

Lehen ere aipatu dugu nola 1931ko apirilko hauteskundeak funtsezkoak izan ziren II. Errepublikaren aldarrikatzeko; modu berean, 1936ko otsailekoen garrantzia azpimarratu beharra dago altxamendua eta gerra zibila nola gertatu ziren ulertzeko.

Espainiako Estatuaren kasuan, hauteskunde horietan bi bloke handi definitu ziren: batetik, ezkerreko alderdiak Frente Popularrean bilduta eta, bestetik, eskuineko alderdiak batzen zituen bloke kontrairaultzailea. Euskal Herrian, berriz, hiru multzo nagusitu ziren: bloke kontrairaultzailea, Frente Popularra eta EAJ.

Frente Popularrak hauteskundeak irabazi ondoren, eskuindarrak ez zeuden gustura, ezta errepublikaren kontrako jarrera zuten gainerakoak ere: armadako buruzagiak, Elizako esparru garrantzitsu bat eta karlismoa, esate baterako. Hilabeteetan zehar konspirazioak izan ziren, eta horien artean Francisco Franco, Emilio Mola eta José Sanjurjo jeneralena nagusitu zen, Calvo Soteloren hilketari aitzaki, Errepublikaren gobernuaren kontra altxatu ziren. Konspirazio bateratuak, ordea, huts egin zuen, eta altxamendua gerra bilakatu zuten.

Euskal Herrian haustura izugarria eragin zuen, lurralde mailan zein gizartean. Bertan harilkatu zen konspirazioa hein handi batean, Nafarroan hain zuten ere. Eskuindarrek, karlismoaren bitartez, parte-hartze handia izan zuten altxamendua sustatzeko. Izan ere, Lizarrako Estatuak huts

ANTECEDENTES DEL ALZAMIENTO

De la misma manera que las elecciones de abril de 1931 fueron cruciales para la proclamación la II República, las de febrero de 1936 resultaron igualmente decisivas en la gestación del Alzamiento y la Guerra Civil.

En el caso del Estado Español, en aquellas elecciones de febrero se definieron dos grandes bloques: por un lado, el Frente Popular, que aglutinaba las fuerzas de izquierda; por otro, el bloque contrarrevolucionario, que reunía a las de la derecha. En el caso de Euskal Herria los bloques fueron tres: el contrarrevolucionario, el Frente Popular, y el PNV.

La derecha mostró su descontento tras la victoria del Frente Popular en las elecciones de febrero de 1936, al igual que el resto de los contrarios a la República, entre los que se encontraban mandos militares, un sector importante de la Iglesia y el carlismo. Durante meses se sucedieron conspiraciones diversas, y entre todas ellas se impuso la comandada por los generales Francisco Franco, Emilio Mola y José Sanjurjo, quienes, tras el asesinato de Calvo Sotelo, se alzaron en contra del Gobierno de la República. Dicha conspiración, sin embargo, fracasó, y el alzamiento derivó en guerra.

La fractura fue trágica en Euskal Herria, tanto a nivel geográfico como social. En gran medida, la conspiración se gestó en nuestro territorio, más concretamente, en Navarra, donde la derecha, a través del carlismo, resultó decisiva para promover el alzamiento. De hecho, tras el fracaso del

egin ostean, karlismoak albo batera laga zuen autonomia lortzeko asmoa. Beraz, 1931tik karlistek altxamendua prestatzeari ekin zioten, eliza eta tradizioak defendatzeko eta monarkia klerikala ezarri nahian. Karlismoaren beso-armatua ziren erreketek armak eskuratu zituzten eta tiro-ariketak eta maniobrak egiten hasi ziren. Ordua iritsi zenean, beraz, Nafarroan aurkitu zuten altxatuek babesik garrantzitsuena, karlismoaren indar-militarra ziren erreketek beraien aginduetara jarritz.

Estatuto de Lizarra, el partido Carlista abandonó la idea de la autonomía, y desde 1931, se afanó en preparar el alzamiento, con el objetivo de defender a la Iglesia y las tradiciones, tratando de establecer una monarquía clerical. Consiguió armas y comenzó a hacer prácticas de tiro y maniobras. Así pues, cuando llegó la hora, los insurrectos encontraron su mayor apoyo en Navarra, donde el partido Carlista puso su brazo armado, los requetés, a su servicio.



**ALTXAMENDUA ETA
LURRALDEEN OKUPAZIOA**

(1936ko uztailaren 18tik 1937ko apirilera)

**EL ALZAMIENTO Y
LA OCUPACIÓN DEL TERRITORIO**

(desde el 18 de julio del 36 hasta abril del 37)

ALTXAMENDUA

Legezkoa zen erregimen errepublikarraren kontrako kolpe militarra 1936ko uztailaren 18an eman zuten ofizialki. Baina Franco jenerala egun bat lehenago altxatu zen Maroko iparraldean. Sanjurjo hegazkin istripuan hil ondoren, Mola jeneralak prestatu eta gidatu zuen euskal lurraldeen konkista. Nafarroatik hasita, oztopo gutxi izan zuen Molak; izan ere, Iruñeko Guardia Zibilaren buru zen José Rodríguez Medel komandanteak ez zuen altxamenduarekin bat egin, eta Errepublikaren defentsa antolatzen ari zela, kuartelean bertan hil zuten.

ALZAMIENTO

El golpe militar que derrocó al legítimo régimen republicano se oficializó el 18 de julio de 1936, aunque el General Franco se había alzado un día antes en el norte de Marruecos, tras haber fallecido el general Sanjurjo en accidente aéreo. Fue el general Mola quien preparó y dirigió la conquista de las tierras vascas. Empezó por Navarra, donde apenas encontró oposición; de hecho, el comandante José Rodríguez Medel, mando de la Guardia Civil de Pamplona que no se unió al Alzamiento, fue asesinado en el mismo cuartel mientras preparaba la defensa de la República.

“A Franco le dejaron en Africa y desde allí se gestó todo. Todo el golpe de estado contra un gobierno constituido con las elecciones.”

Emilia Hernaites

Araban ere antzera gertatu zen eta altxatuek lurralde osoa hartu zuten mendean.

Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, altxamenduak huts egin zuen. Bizkaian, ez zuen aurrera egin. Militarrak Errepublikari leialak ziren eta ezkertiarren indarra nagusitu zen.

Igualmente, conquistaron el territorio de Araba sin gran dificultad.

Sin embargo, el Alzamiento fracasó en Bizkaia y Gipuzkoa, ya que los militares se mantuvieron leales a la República y prevalecieron las fuerzas de izquierda.

Gipuzkoan, berriz, lehia izan zen. Altxamendua-
ren aldeko militarrek zeuden arren, ez zituzten tro-
pak mobilizatu uztailearen 21era arte, eta ordurako,
ezkerreko indarrak miliziatan antolatuta zeuden.
Laster hartu zituzten altxatutakoen eskuetan zeu-
den lekuak: Maria Cristina hotela, eta Loialako eta
Ondarretako kuartelak. Azkenean, negoziatu on-
doren, altxatutako militarrek amore eman zuten
Loiolako kuartelean.

No obstante, al principio hubo enfrentamientos
en Gipuzkoa, donde había militares favorables al
Alzamiento; aunque no movilizaron sus tropas
hasta el 21 de julio y, para entonces, las fuerzas
de izquierda se habían organizado en milicias. Es-
tas últimas no tardaron en conquistar las plazas
que estaban en poder de los alzados, tales como
el hotel María Cristina o los cuarteles de Loiola y
Ondarreta. Los militares sublevados negociaron,
y se rindieron en el cuartel de Loiola.

*“G*erriak urten ebala edo, barixakua zuan, ondo goguan jaukat.
Afrikan urten dabela gerriak eta, zer ba? Baina gero segiduan
hasi zuan zatartzen-zatartzen eta grabedadia gehitzen. Peninsulan
sartu zala gerria, baietz! Hasi zittuan reunixotan. Guk geukan orduan
batzokittik Gorbeara eskurtziñua, bi autobus. Mondraora sartu
ginanerako, zer da eta, “alto!”. [...] Buelta hartu, Elgetara juan eta gu
eruan genduzen txoferra oñatikua, “La Oñatiarra”, bera etxera juango
litzakiela, bildurra sartu jakola eta situaziñua ikusten zebala grabedadia
sartzen zoiala. Bera etxera eta gu taka-taka herrira.
Beherutz gatozela, “altoooooo!””

Gerardo Ezenarro

GIPUZKOARREN DEFENTSA

Gipuzkoan ezkerreko miliziek egin zioten aurre gogorren altxamenduari. EAJk Frente Popularrarekin bat egin zuen altxamendua-
ren kontra, baina hasieran, ordena publikoa
gordetzeko zaintza-taldeak bakarrik antolatu
zituen herrietan. Gero, abuztuan, boluntario
taldeak osatu zituen eta irailean fronteetako
borroketara batzen joan ziren gudariak. EAJ-
ren baitan baziren gerran parte hartu behar ez
zela uste zutenak.

LA DEFENSA DE LOS GUIPUZCOANOS

Fueron las milicias de izquierda las que con mayor ímpetu lucharon en Gipuzkoa contra el Alzamiento; ya que, aunque el PNV se unió al Frente Popular en contra del mismo, al principio, se limitó a organizar grupos de vigilancia para mantener el orden público en los pueblos. Más tarde, en agosto, fueron organizando grupos de voluntarios; pero no fue hasta septiembre, que se unió a los frentes de lucha. En el PNV había quienes pensaban que no debían tomar parte en la guerra.

*“Bajeuazen batzuk esaten zebenak ez zala hartu bihar parte gerran,
hori espainolen gauzia zala eta. “Laga berak alkar apurtzen”.
Gero enteratu zittuan abertzaliak hiltzen ziharduela Naparruan
eta horrek be asko zertuko zeban.”*

Julen Iñurrieta

Bestalde, 1936ko uztailaren 27an Errepublikaren Defentsarako Batzordea sortu zen Gipuzkoan, lurraldeko agintariak ordezkatzeko. Amilibia diputatu sozialista presidente zela, batzorde horrek altxamenduaren kontra zeuden alderdi politiko eta sindikatuak batu zituen: PSOE, PC, IR, EAJ, CNT, ANV, STV, UGT eta UR.

Por otra parte, el 27 de julio de 1936 se había creado en Gipuzkoa el Comité para la Defensa de la República, reemplazando a los dirigentes de la provincia. Bajo la presidencia del diputado socialista Amilibia, el Comité aglutinó a los partidos políticos y sindicatos contrarios al Alzamiento: PSOE, PC, IR, EAJ, CNT, ANV, STV,

Gipuzkoako eguneroko bizimodua zuzendu eta bideratzeko komisariak sortu ziren: gerra, hornidura, garraioa, ordena publikoa, informazioa, batza-ondasunak (finantzak)... Hasierako egunotan eskuindarrak atxilotu eta preso batzuk hil egin zituzten.

Errepublikaren Defentsarako Gipuzkoako batzorde horren menpe, eskualde-mailako batzordeak ere sortu ziren, Eibarkoa esate baterako, gehiengoz izaera sozialista zuena. Abuztuaren hasieran sortua, Deba bailarako herriak biltzen zituen: Elgoibar, Mutriku, Deba, Eibar, Soraluze, Elgeta, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga.

UGT y UR.; y en su interior, se fueron creando comisarías para gestionar y dirigir la vida cotidiana: guerra, suministros, transporte, orden público, información, finanzas... Fue en esos primeros momentos que se produjeron detenciones y matanzas de presos de la derecha.

De la misma manera, bajo dependencia del mencionado Comité para la Defensa de la República, surgieron otros comités, el de Eibar, por ejemplo, de mayoría socialista, que se formó a comienzos de agosto y reunió bajo su control a los municipios del valle de Deba: Elgoibar, Mutriku, Deba, Eibar, Soraluze, Elgeta, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Eskoriatza y Leintz-Gatzaga.



Herritik ateratzeko baimena, Frente Popularreko herri-batzordeak Marcelina Arluciaga eta Fidela Beiztegui eman-dakoa.

Herrietan Frente Popularreko herri-batzordeak antolatu ziren. Soraluzean, besteak beste, Jose Maria Lete, batzordeko lehendakari izendatu zuten; Manuel Mugika “Carol” eta Jose Vazquez “el asturiano” batzarkide izan ziren, beste batzorekin batera. Alondegian egiten zituzten bilerak. Batzorde horrek, lehen aipatutako funtzioak beregain hartu zituen: armak, ordena publikoa, altxatuen aldekoak kontrolatzea, herriko sarrera-irteerak... Herrian sartu eta irtetzeko, adibidez, beharrezkoa zen batzordearen baimena.

Jose Maria Lete (abertzalea eta ELA-STVra afiliatua) makinariaren arduraduna zen Kainoi-fabrikaren. Geroago, Eusko Jaurlaritzak mobilizatutako industrien arduradun izendatu zuen, eta Bilbo jausi ondoren, gerra industria Gijonera aldatzeko koordinatzailea izan zen.

Gerora, Frente Popularreko kide haien kontra errepresio neurriak hartu zituzten eta erabakiorra izan zen kargudun izatea. Izan ere, batzordekide bi fusilaturik hil zituzten: Jose Maria Lete (Oviedon preso hartuta, Trubian fusilatu zuten 1938ko ekainaren 8an) eta Manuel Mujika (Begoñan preso hartu eta Donostian fusilatu zuten). Jose Vazquezi buruz ez dugu informaziorik aurkitu.

Gipuzkoan, gerra giroa zabalduz joan zen heinean, miliziano boluntarioak batailoietan antolatuz joan ziren Frente Popularrak deituta, eta defentsarako instrukzioa jaso zuten. Aurretik, erakunde politiko eta sindikalak beraien milizia-indarrak osatuz joan ziren. Honela, Unión General de Trabajadores, Partido Socialista, Iz-

Paralelamente, se organizaron comités municipales del Frente Popular en los municipios. En el caso de Soraluze, fueron miembros del Comité, entre otros, José Mari Lete, a quien nombraron presidente; Manuel Mugika, “Carol”; y José Vázquez, “el asturiano”. Celebraba sus reuniones en la alhóndiga municipal, y asumió el control de todas las funciones: armas, orden público, control de los alzados, entradas y salidas del municipio... Así por ejemplo, era necesario el permiso de dicho comité para entrar y salir del municipio.

José Mari Lete, abertzale y afiliado a ELA-STV, era el encargado de la maquinaria en la Fábrica de Cañones, y pronto, fue nombrado responsable de las industrias movilizadas por el Gobierno Vasco. Además, tras la caída de Bilbao, asumió la coordinación del traslado de la industria de guerra a Gijón.

A posteriori, la asunción de esos cargos resultó decisiva a la hora de establecer medidas represivas contra ellos; de hecho, fueron dos los miembros del Comité Municipal fusilados: José Mari Lete, apresado en Oviedo y fusilado en Trubia el 8 de Junio de 1938; y Manuel Mujika “Carol”, apresado en Begoña y fusilado en Donostia. No se ha encontrado información alguna sobre José Vázquez “el asturiano”.

A medida que el clima de guerra se iba extendiendo en Gipuzkoa los milicianos voluntarios, llamados por el Frente Popular, se fueron organizando en batallones y recibieron instrucciones de defensa. Previamente, los organismos políticos y sindicales habían organizado sus fuerzas milicianas. Así, muchos jóvenes afiliados en Unión General de Trabajadores,



Jose Mari Lete Larrañaga

(1908, Soraluze – 1938, Gijon)

Aita Juan Jose Lete Oregi osintxuarra eta ama Elena Larrañaga soraluzetarra zituen. Santa Ana kalean eskopeta kainoien barrenaturako tailerra zeukaten gerra aurrean. Aitak idazteko zaletasuna zuen eta egunkarietan artikulua idazteaz gain, hainbat antzerki obra idatzi zituen, herrian bertan taularatu zirenak. Gerra hasi zenean, herri-ritik alde egin zuen familia, Bilbotik pasatuta Baionara iritsi arte. Han urte asko eman zituzten. Handik bueltan Debara joan ziren bizitzera eta ez ziren harrezkero herri-ara behin ere etorri.

Jose Mari bost senideetan zaharrena zen. Abertzalea, ELA-STVra afiliatutakoa, gazte-gaztetatik Soraluzeko Uri Buru Batzarrean hainbat kargu bete zituen. 1936ko uztailean altxamendu militarra jo zutenean, EAJk herriko Defentsa Batzordeko lehendakari izendatu zuen 28 urteko gaztea. Kainoi-fabrikako makineriaren ardurduna ere bazen eta geroago Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Industria Mobilizatuen administrari izendatu zuen. Bilbo jausi zenean, berak koordinatu zuen gerrako industriaren leku aldatzea Bizkaiko hiriburutik Caldas de Besaya eta Gijonera. Irailaren 21ean, Francoren tropak herrian sartu baino egun bat lehenago, eztabaida askoren erdian, herrian preso zeuzkaten tradizionalista edo

eskuindarrak libre lagatzeko erabakia hartu eta betearazi zuen. Frankoren aldekoek herria hartutakoan izango zuten mendeku gosea apalduko zuelakoan hartu zuen erabakia. Anaia eta biak frentera joan ziren.

Bere anaia Iñaki Itxarkundia batailloian ibili zen eta zauritu zutenean, muga pasatu zuen. Sendatutakoan Kataluniara joan eta ikasketak eginda “Teniente de la República Española” titulua lortu zuen. Frantzian erre-fuxiatu zen eta Telesforo Monzonekin harremana izan zuen. Baiona aldean derrigortutako lanetan aritu zen gerrarako produkzioan eta hegoaldera etorrira, Deba hartu zuen bizileku.

Jose Mari Reinosan preso hartu eta Gijonera eraman zuten. Soraluzeko udaletxean salaketak jarri zituzten bere kontra, eta Jose Mariren amak denak atzera botatzea lortu zuen, bat izan ezik. Salaketa horrek eraman zuen Jose Mari heriotzara, fusilatuta hil baitzuten 1938ko uztailearen 2an Trubia herrian.

Hil aurretik gutuna bidali zuen etxera eta honela idatzi omen zuen: “(...) lasai nago. Egon zaitezte denok lasai. Egin ditudan ekintza guztiak zuzenak izan dira eta zuzentasun hori da oraingo nere lasaitasunaren iturria. (...)”

quierda Republicana, Euskal Abertzale Ekintza, Partido Comunista edota Juventudes Unificadas bezalako erakundeetan afiliatutako hainbat gaztek batailoiak osatu zituzten. Besteren artean, hauek: Tomas Meabe, MAOC (Milicias Antifascistas Obreras y Campesinas), Thaelman eta Carlos Marx.

Altxatutakoek hainbat zutabe antolatu zituzten Gipuzkoa bereganatzeko. Batzuk Irun aldera bideratu ziren, Frantziako muga kontrolatu eta Errepublikarentzako laguntzak eragozteko. Beste talde batzuk, berriz, Gipuzkoa bailaraz bailara okupatzera joan ziren, Oria, Urola, eta, azkenik, Deba. Uztaila bukaera eta abuztuaren hasierarako, beraz, han zeuden altxatuak Donostia eta Oria bailara eskuratu nahian; eta han pilatu ziren ezkerreko milizia eta borondatezko gazte guztien indarrak ere.

Eibarren, esate baterako, milizianoen bi konpainia sortu ziren altxamendua gertatu eta segituan, artilleruak barne. Konpainia horiek Donostiaren defentsarako bidea hartu zuten eta altxatutakoen kontrako ekintzetan parte hartu zuten, hiria Errepublikari leial mantentzen laguntzeko. Donostiaren defentsan abiatu ziren miliziano horiek sortu zuten gerora Amuategi batailoia.

Soraluzen ere gazte asko bildu zen boluntario Donostiaren defentsan borrokatzeko, edo Oriako beste fronteetan aritzeko, horretarako antolatu zen autobusa hartuta. Izan ere, altxamenduaren hurrengo egunetik bertatik, gazte askok aurkeztu zuten bere burua boluntario Errepubli-

Partido Socialista, Izquierda Republicana, Euskal Abertzale Ekintza, Partido Comunista y Juventudes Unificadas formaron batallones como Tomas Meabe, MAOC (Milicias Antifascistas Obreras y Campesinas), Thaelman y Carlos Marx, entre otros.

Los sublevados, por su parte, habían organizado varias columnas para conquistar Gipuzkoa. Desde Navarra, unos se dirigieron hacia Irún, para controlar la frontera con Francia y entorpecer las ayudas que pudiera recibir la República; otros, en cambio, se dirigieron a ocupar Gipuzkoa comarca a comarca: Oria, Urola, y finalmente Deba. Así, entre finales de julio y comienzos de agosto, los sublevados lucharon por conquistar Donostia y la comarca del Oria; y allí se reunieron las milicias de izquierda y las fuerzas de jóvenes voluntarios para hacerles frente.

En Eibar, por ejemplo, fueron dos las compañías de milicianos que surgieron nada más producirse el Alzamiento, incluidos los artilleros; y se dirigieron hacia Donostia, para defenderla de los ataques de los sublevados y ayudar a mantener la ciudad leal a la República. Aquellos milicianos que partieron hacia Donostia en los primeros momentos formaron, después, el batallón Amuategi.

También en Soraluze se reunió un gran número de jóvenes para ayudar en la defensa de Donostia o actuar en el frente del Oria. De hecho, desde el mismo día siguiente al Alzamiento, fueron presentándose voluntarios en defensa de la República, y, con las armas en la mano, bajo la dirección de aquellos que tenían una mayor experiencia, se organizaron en grupos y partieron hacia Donostia en el autobús

karen defentsan, eta armak eskuratuta, esperientzia apur bat zuenaren agindupean, taldeetan antolatu eta Donostiara abiatu ziren. Buzo urdina eta etxeko eskopeta soinean hartuta joan ziren gehienak. Gazte horiek, gero, hainbat batailloirekin bat egin zuten, besteak beste, Amuategi, Loiola eta Itxarkundiarekin.

Plazentziatarren artean jasotako zenbait testigantzek hasieran miliziano edo gudari noiz eta non hasi ziren kontatzen dute. Batzuek, altxamenduaren hurrengo egunetan, kuartela Donostian (Groseko Fronton Modernon) zeukan Azaña batailloiarekin bat egin zuten, eta Irunera joan ziren, Guztiek, ordea, ez zuten batailarik gogorrenean parte hartu, eta batzuk San Marzial ermitan geratu ziren. Erreketeak heldu zirenean, errepublikaren aldekoek atzera egin zuten eta Usurbilera joan ziren. Irailaren 5ean galdu zuten Irun.

Irun galduta, abertzaleak Azpeitiko Loiolarra joan ziren, Loiola batailloian izena ematera. Izan ere, EAJk frontierako bolondresak eskatu zituen abuztuaren erdi aldera eta eskatu zien Azpeitiko Loiolara joatea Euzko Gudarostea sortzeko. Han, hasieran, ELA-STV, ENB (Euzko Nekazarien Bazkuna), EMB (Euzkadi Mendigoizale Batza) eta EAE-ANV ere bildu ziren.

Loiolako Santutegitik, lehenengo Saturraranera eta handik Gernikara bidali zituzten. Kuartela ezarri ostean, frontera joan-etorrian ibiltzen ziren.

que se había dispuesto para ello. La mayoría partió con el buzo azul y la escopeta de casa. Aquellos jóvenes se unirían, después, a distintos batallones, tales como, Amuategi, Loiola o Itxarkundia.

Diferentes testimonios de gente de Soraluze muestran distintos caminos que, en esos primeros momentos, recorrieron jóvenes placentinos, y que llevaron a muchos de ellos a convertirse en gudarís o milicianos. Así, en los días y semanas siguientes al Alzamiento, algunos se unieron al batallón Azaña, cuyo cuartel se situaba en Donostia (Frontón Moderno de Gros); para, desde allí, partir hacia Irún, donde se habían reunido las fuerzas de izquierda que luchaban contra los sublevados. Sin embargo, no todos participaron en la batalla de Irun, ya que algunos se habían quedado en la ermita de San Marcial, y cuando llegaron los requetés, tuvieron que retroceder hasta Usurbil. Irún se perdió el 5 de septiembre de 1936.

Una vez perdida Irun, se dirigieron a Loiola, en Azpeitia, para integrarse en el batallón del mismo nombre. En efecto, hacia mediados de agosto, el PNV había solicitado voluntarios para el frente, e hizo un llamamiento a los voluntarios para que acudiesen a Loiola y formar allí el Euzko Gudarostea (Ejército Vasco). En ese principio, también se reunieron allí ELA-STV, ENB (Euzko Nekazarien Bazkuna), EMB (Euzkadi Mendigoizale Batza) y EAE-ANV.

Desde el Santuario de Loiola fueron enviados primero a Saturrarán, y después, a Gernika, donde se estableció el cuartel, y a donde regresaban tras las diversas incursiones al frente.

Soraluzetar asko EAJk dei egindakoan mobilizatu ziren eta Loiolara joan ziren boluntario, herrian horretarako jarri zuten autobusa hartuta. Handik Gipuzkoako ekialdea babestera joan ziren, karlisten tropek markatutako ibilbideak moztu nahian. Batzuk, Zarateko Bentako frontera (Zizurkil); beste batzuk Andazarratera, han izan baitzen borrokaldi gogor bat irailaren 2an. Altxatuei eustea lortu zuten.

Izan ziren Zarateko Bentako frontetik itzultzean Eibarko Amuategi batailoiarekin bat egin zuten soraluzetarrak ere. Horietako batzuek Amuategirekin jarraitu zuten, eta beste batzuek, EAJren

Otros vecinos de Soraluze que se movilizaron tras la llamada del PNV, se desplazaron directamente a Loiola, como voluntarios, en el autobús organizado con ese fin. Desde allí se encaminaron al este de Gipuzkoa, tratando de detener el avance de las columnas carlistas. Algunos de ellos se dirigieron al frente de Ventas de Zárate (Zizurkil); otros a Andazárrate, donde se produjo una dura batalla el 2 de septiembre, y a la que los sublevados lograron resistir.

Algunos de los que estuvieron en Ventas de Zárate, tras regresar del frente, se unieron al batallón Amuategi de Eibar; otros, sin embargo, se mantuvieron en el mismo batallón Loiola; y otros, res-

“ Jugábamos en las escaleras de Erlai. Serían las seis de la tarde cuando oímos las vocinas primero de coches y poco después de camiones. Chillando “¡No pasarán!”, estaban llenos de jóvenes que iban al frente. Serían cinco vehículos por lo menos. ”

Ángel Orbea

“ G erriak urten ebanian, harek jantzi ziran miliziano, gizonen moduan. Buzo azul marino iluna, bere eskopetiakin. Eta harek bixak izan dira neure kuadrillakuak. ”

Heraclia Maiztegi

deiarri erantzunez, Bermeora jo zuten Itxarkundia batailoiarekin bat egiteko.

Baziren Soraluzen bertan geratu eta antolatu zirenak ere. Hauek Compañía Placentina osatu zuten. Abuztuaren 29an, esaterako, Ilordora joateko prestatzen ari zirela, Eibarrera joan ziren, bombardaketa izan zenean. Gero, Ilordon denboraldi bat egin ondoren, Compañía Placentinako sozialistek Amuategikoekin bat egin zuten eta abertzaleak Genikara joan ziren Itxarkundia batailoian sartzeraz.

Beraz, uztailetik irailerako tartean frontierik aktiboena Oria bailara eta Irun artean egon zen, eta zonalde horretan ezkerreko miliziak izan ziren protagonista nagusi. Bertan hainbat boluntario batu ziren, modu inprobisatuan, esperientzia apur bat zuen arduradun baten inguruan. Izan ere, batailoiei gehienak ez ziren zeharo antolatu iraila bukaerara arte. Salbuespena Eibarko Amuategi izan zen, irailaren 3an osatu baitzen.

pondiendo a la llamada de PNV, se desplazaron hasta Bermeo para unirse al batallón Itxarkundia.

También hubo quien se mantuvo y organizó en Soraluze, donde se formó la Compañía Placentina. El 29 de agosto, por ejemplo, mientras se preparaba para desplazarse a Ilordo, esta compañía tuvo que dirigirse a Eibar, a causa del bombardeo. Después, tras un corto periodo de tiempo en Ilordo, los socialistas se unieron al batallón Amuategi, y los abertzales se desplazaron a Gernika para unirse al batallón Itxarkundia.

Verificamos, pues, que entre julio y septiembre, el frente más activo se situó entre la comarca del Oria e Irun; y que fue en esa zona donde las milicias de izquierda tuvieron el mayor protagonismo. Allí se unieron los voluntarios, de modo improvisado, bajo el mando de aquel que tenía una mayor experiencia. De hecho, la mayoría de batallones no se organizó hasta finales de septiembre, a excepción del batallón Amuategi que lo hizo el 3 de septiembre.

“Ilordon egin genduzen hile bi edo. Han pasatu zan, sozialistak eta nazionalistak bere aldetik joan behar dirazela. Gu denak bat eginda geunden Plaentxiakuak. Gu juañ ginan Gernikara eta sozialistak, Amuategi, Eibarren geratu ziran. Eta Gernikan formatu zan Itxarkundia.”

Asen Larrañaga

Batailoiek gerrilla-ejertzitua bildu zuten. Gerrilla bakoitzak zazpi gudarí eta kaboa zituen. Hamar gerrillek, berriz, konpainia bat osatzen zuten, herri berdineko jendez osatuta, askotan.

Bestalde, altxamenduaren ondorengo uneak korapilatsuak izan ziren Soraluzean ere, gainontzeko herrietan bezalatsu. Erasoari erantzun beharra zegoen eta horrek berrantolatzea eskatu zuen. Milizianoen talde eta batzordeak antolatzeaz gain, defentsarako prestatzen ere hasi ziren.

Terzerolak (eskopeta mota bat) banatu zituzten eta haiendako munizioak, balak, ere bai. Bakoitzak etxean zituen eskopetak ere erabili zituen. Zaintzak muniziorik gabe egin zituzten batzuek, beldurrarengatik. Zaintza-txandak aldatuz joaten ziren, egun batean leku baten zeudenak hurrengoan beste batean

Los batallones formaron un ejército de guerrillas. Cada guerrilla reunía a siete gudarís y un cabo. Diez guerrillas, por su parte, formaban una compañía, a menudo vecinos de un mismo municipio.

Paralelamente, al igual que en otros pueblos, los días posteriores al alzamiento fueron confusos en Soraluze. Había que responder al ataque, y eso exigía organización. Por ello, además de milicias y comités, empezaron a organizar la defensa.

Repartieron tercerolas (escopetas) y municiones para las armas; utilizaron, también, escopetas que tenían en sus casas; organizaron turnos de vigilancia que algunos, por miedo, realizaron sin munición; cambiaron los turnos y la ubicación de las guardias... Pronto recibirían la orden de que dejar de acudir a los talleres e incorporarse a las

*“Uri Buru Batzarreko presidente gure aitta zuan orduan. Batzokixan kafia hartzen garela, gure aitta eta hasi dittuk mahairik mahai ordenak emoten. “Hala eta hala etorri jakuk, abisuak eta kartak etorritta jeuz herrixetan diran balixoko leku guztietan guardiak egin bihar dirala. Zerrenda batzuk eginda daukaguz eta aurki etorriko jatzuez zeini zein lekutan guardixia egin bihar dozuen”.
Caja de Ahorrosian tokatu jatan neri, gau osuan,
beste batzueri elizan, konbentuan...”*

Gerardo Ezenarro

AMUATEGI BATAILOIA



Sabin Garitagoitia eta Ioseba Gardoki
Amuategiko kideak

Donostiaren defentsan joan eta uztailaren bukaeratik irailaren hasierara arte Gipuzkoako hainbat frontetan borrokan ibili ziren miliziano eibartarrek sortu zuten Amuategi batailoia, irailaren 3an. Batailoia %90 gipuzkoarra zen; gehienak eibartarrak ziren, bigarrenik soraluzetarrak eta kopuruz gutxiago elgoibartarrak, tolosarrak, mutrikuarrak... Tartean ziren soraluzetar abertzaleak geroago batailo abertzaleetara pasatu ziren. Soldadutza egina zu-

tenak aukeratu zituzten aginte karguetarako, estrategia militarrei buruzko nozioak izan zitzaizketelakoan. Batailoiko kideek eskubide eta betebeharren berri izan zuten eta baldintzak onartzen zituztela ageri zen dokumentu bana sinatu zuten. Eibarko Txaltxa Zelaiko frontoi zaharrean egiten zuten instrukzioa. Lehen lana lubakiak egitea izan zen, Akondia, Arrateko bidegurutzea, Santa Cruz, Azitain, Maltzaga, Ilordo, Olakorta eta Gaztandolan.

Amuategi batailoiko soraluzetarrak

Adánez Del Bosque, Celestino
 Aguirregoicoea, Mario
 Alberdi Alberdi, Benigno
 Alberdi Eguren, Evaristo
 Alberdi Eguren, José
 Aragón García, Julián
 Aristimuño Azcarate, Victoriano
 Ariznabarreta Juaristi, Santiago
 Ariznabarreta Juaristi, Tomás
 Ariznabarreta Zubiaurre, Lucas
 Ariznabarreta, Alejandro
 Artolazabal, Benito
 Axpe Eguren, Miguel
 Beitia Echaniz, José
 Bergara Elorza, Vicente
 Cerrajón Onandia, Angel
 Cortabarría, José
 Eceolaza Alcelay, José
 Eceolaza Alcelay, José
 Echaniz Beitia, Félix
 Errasti Larrañaga, Juan de Dios
 Gardoqui, Javier
 Guyonnet, Valentín
 Iñarra Lazpiur, Julián
 Larrañaga, Fernando
 Larrea Placencia, Luis
 Lascurain, Vicente
 Legaristi Vila, Antonio
 Legaristi Vila, Justo
 Legaristi Vila, Vicente
 Leturiondo, Constantino
 López Puertas, Felipe
 López Puertas, Gerardo
 Maiztegui Maiztegui, Nicasio
 Maiztegui Maiztegui, Saturnino
 Matas Muguza, Felipe
 Morillo Belio, Angel
 Navas Lascurain, Isidro
 Navas Lascurain, Zacarías

Navas, Esteban
 Oregui Goenaga, Ignacio
 Oregui, José
 Oruesagasti, José M^a
 Pérez Peral, Rafael
 Placencia Orbea, Serapio

Placencia, Lucio
 Sebal Aguirre, Lulo
 Sebal Aguirre, Tomás
 Uriante Artolazabal, Ignacio
 Uriarte Artolazabal, Niceto
 Zubiaurre Odriozola, Manuel

23 JUL 1985

BATAILON BURUJU 35.
 RELACION POLITICA Y CIVIL.

214

PARA INFORMAR DE LA ACTIVIDAD DEL BATAILON
 BATAILON

(1.º) Compañía. 3 Mayo. 1936. Asociación Democrática
 (2.º) Compañía. 6 Junio. 1937. Consejo de Oficiales

CAPITANES.

Bernabéido Martín..... (Controladuría) 9 Mayo. 1937. Consejo de Oficiales
 Antonio Guicochea..... (1.ª Compañía) 20 Febrer. Asociación Democrática

Alfredo Carreras..... (1.ª Compañía) 8 Junio. 1936. Consejo de Oficiales
 Juan Ibarra..... (2.ª Id.) 6 Ju. 1937. Consejo de Oficiales
 José María Guzmán..... (4.ª Id.) 6 Id. 1937. Id. Id.

COMANDANTES.

Víctor Lecumberri..... (1.ª Compañía) 11 Agosto. 1936. Comandante Guerra Civil
 Tomás Sebal Aguirre..... (2.ª Id.) 20 Septo. 1936. Id. Id.
 Angel Mendrea Guicochea..... (3.ª Id.) 30 Id. 1936. Asociación Democrática.
 José Alcarraza Guicochea..... (4.ª Id. Informante) 1 Mayo. 1936. Id. Id.
 Agustín Meleroaga..... (3.ª Compañía) 10 Id. 1936. Consejo de Oficiales.
 Pedro Gallastegui..... (3.ª Id.) 20 Id. 1936. Id. Id.
 Félix Arceaga..... (2.ª Id.) 28 Id. 1936. Id. Id.
 Juan Arceaga..... (3.ª Id.) 20 Id. 1936. Id. Id.
 Benito Aguilu Bengoa..... (Comandante) 20 Id. 1936. Id. Id.
 Antonio Arrillaga..... (Comandante) 9 Enero. 1937. Consejo de Oficiales.
 Gregorio Carreras..... (4.ª Compañía) 9 Id. 1937. Id. Id.
 Alfonso Martín..... (1.ª Id.) 6 Junio. 1937. Id. Id.
 Rafael Santida..... (2.ª Id.) 6 Id. 1937. Id. Id.
 Pedro Guzmán..... (2.ª Id.) 13 Id. 1937. Id. Id.
 Pedro de Iñabiz..... (4.ª Id.) 8 Id. 1937. Id. Id.
 Juan Benito..... (Controladuría) 6 Id. 1937. Id. Id.
 Juan Salas de Pedro..... (1.ª Ayudante) 6 Id. 1937. Id. Id.

AGENCIADOS.

COMISARIO POLITICO.

Luis Bernabe González..... 1 Mayo 1937 Comisariado Político.

CAPITAN DE GUERRA QUIMICA.

Juan Inchausti..... 1 Abril 1937 Ipto. Informa.

COMISARIO DE GUERRA QUIMICA.

Ramón Ventura..... 21 Mayo 1937 Ipto. Unidad Militar.
 en Guidoneano a 7 de Junio de 1937.

ITXARKUNDIA BATAILOIA



Soraluzetar gehienak batu zituen batailoia izan zen. Euzko Gudarosteko milizia gipuzkoarrak jatorri, 1936ko urrian osatu zen ofizialki Gernikan Itxarkundia batailoia, eta handik Bermeora joan zen.

Batailoiak Legution jardun zuen abenduan, Felipe Lizaso komandantearen agindupean, eta baja asko izan zituen. Gero, 1937ko apirilean Otxandio inguruan

ibili ziren, baita Arangion eta Urkiolan ere. Hortik Zazpigarren Brigadan integratuta, Artxandan borrokatu zuten.

Itxarkundiaren zati batek Bilbon entregatu zuen bere burua, eta beste batzuek Santanderreruntz jarraitu zuten. Horiek Santoña eta Laredon atxilotu zituzten "Santoñako Ituna" delakoa bete ez zenean.



Itxarkundiako 2. taldeko 2. saileko gudariak 1937an

- | | |
|---|---|
| 1. Ezezaguna | 17. Ignazio Leturiondo Galarraga, <i>Oitturri</i> |
| 2. Pedro Zabala Oregi, <i>Urramendi</i> | 18. Ezezaguna |
| 3. Wenceslao Ondarra Maiztegi, <i>Baraterua</i> | 19. Jazinto Errasti Elorza, <i>Marulanda</i> |
| 4. Luki Garitagoitia Larrañaga | 20. Juan Elizburu Gallastegi, <i>Molde</i> |
| 5. Ezezaguna | 21. Eleuterio Arzuaga Anduaga |
| 6. Alejo Maria Artolazabal | 22. Lorenzo Epelde Badiola |
| 7. Angel Ariznabarreta Otalora, <i>Iribe</i> | 23. Martin Zabala Oregi, <i>Urramendi</i> |
| 8. Gabin Berraondo Lamarain, <i>Txitia</i> | 24. Antonio Zabala Zubiaurre |
| 9. Ezezaguna | 25. Iñaki Ezenarro Gallastegi, <i>Mokos</i> |
| 10. Ezezaguna | 26. Ezezaguna |
| 11. Ambrosio Errazu, <i>Alkorta</i> | 27. Eulogio Arzuaga Anduaga |
| 12. Emilio Leturiondo, <i>Kuku</i> | 28. Pedro Makinai Barrenetxea |
| 13. Eustakio Errazu <i>Alkorta</i> | 29. Benito Arluziaga Basauri, <i>Trapu</i> |
| 14. Juan Arizmendiarieta | 30. Isaias Alberdi Barrenetxea, <i>Txarandela</i> |
| 15. Felix Eriz Lejardi | 31. Pedro Legaristi Vila Periko, <i>Txatua</i> |
| 16. Marzelino Barrotia Usabiaga | 32. Juan Ezenarro Alberdi, <i>Urzelai</i> |



Iñaki Ezenarro, Benedikto Ezenarro, Garitagoitia eta Benito Arluziaga "Trapu" ageri dira argazkian.

Irure eta Luki Garitagoitia

Itxarkundiako kide batzuk Bermeon.





Itxarkundia



Itxarkundia

LOIOLA BATAILOIA



Loiola bataloiko kideak Gernikan.

Abuztuaren 5ean Euzko Gudarostea osatu zen Azpeitiako Loiolan eta orduantxe sortu zen batailoi hau. Gudari soraluzetarrak ere izan ziren batailoi honetako kide, Bergara, Eibar, Elgeta eta Arrasateko abertzaleekin batera, besteak beste. Abuztuaren 26an Ernioko frontera abiatu ziren eta handik Mandubi gainera. Abuztu bukaera eta iraila Usurbil, Orioko gaina, Bidaniko gaina eta Andazarrate moduko lekuak babesten aritu ziren. Ia Gipuzkoa osoa galduta, beste batailoi batzuetako gudariekin bat egin zuten Lekeitio eta urriaren hasierara bitartean Bilbon egon ziren.

Batailoi honetako kapilau izan zen Saturnino Ganche-gi Lascurain soraluzetarra. 1907an jaioa, 25 urterekin apaiztu zen eta Eibarko Babes-Etxe Ospitaleko eta Tuberkulosiaren kontrako sendalekuko kapilaua izan zen 1933tik 1937ra bitartean. Izan ere, tropa frankistak bertatik bertara izan arren, Eibarren jarraitu zuen, harik eta martxoaren 18an Loiola batailoiko gudarien ondora boluntario joan zen arte. Otxandioko frontera abiatu zen. "Mi misión es de paz, no de guerra" idatzi zuen geroago egunerokoan. Fronte batetik bestera ibili ostean, gudariekin batera preso hartu zuten Santoñan. Hiru urte inguru kartzelan eta beste bost herbersteian eman zituen.

egoten ziren. Egunetan hala aritu ondoren, agindua etorri zitzaien tailerretara lanera joateri lagatzeko, miliziano hartuta zeudela-eta. Udaleko Defentsarako Batzordeak agindutakoa egin behar izaten zuten.

Herriko emakumeak ere berehala antolatu ziren. Abertzaleek buzo urdinak josteko ardura hartu zuten eta errepublikazaleek milizianoentzako janaria prestatzeko zeregina. Bestalde, herriko andre asko aritu ziren artilezko jertse eta galtzerdiak egiten ere, horretarako propio etxez etxe banatutako artilearekin.

Kolpe militarra izan zenean, jendea armak biltzen hasi zen, eta enpresa askotako armak konfiskatu zituzten. Tailerrik tailer ibili ziren milizianoak eskopetak batzen, Defentsarako Batzordeak emandako agiria eskuetan zutela. Ez zen Udalaren agindua, goragokoa baizik. Batzuek oztopo handirik gabe ematen zituzten; beste batzuek, ordea, ia negarrez. Eskopetak batzen aritu ziren berek jarduten zuten haiek zain-

milicias; debían seguir las directrices del Comité de Defensa Municipal.

También las mujeres se organizaron rápido. Las abertzales se encargaron de coser buzos azules, y las republicanas de preparar comida para los milicianos.

Muchas tejieron jerseys y calcetines, empleando para ello lana que se había repartido por las casas.

Desde el principio hubo necesidad de hacer acopio de armas, por lo que los milicianos, portando orden expedida por el Comité de Defensa, fueron de taller en taller requisando las que estaban disponibles. La orden, trascendiendo al Ayuntamiento, procedía de instancias superiores; pero no todas las empresas las entregaron con la misma diligencia y conformidad, produciéndose situaciones de gran descontento y malestar. Sin embargo, sus dueños pudieron recuperarlas, sin haber resultado dañadas, antes de que los milicianos se fueran del municipio, ya que los mismos que las requisaron se habían encargado de su cuidado.

“Hamen andrak segiduan organizatu ziran. Andra nazionalistak hasi ziran, batzokixan egitten eben lana, erropia gertatzen milizianuendako, buzo urdinak. Eta gero etxietara partidu zittuen, hori goguan daukat zegaittik eze gure etxera be bialdu zittuen, Kontxak egin zittuan, lanak artilezko galtzak egitteko eta jertsiak egitteko. Eta gero hori, janarixa, milizianuendako janarixa, hori hartu eben liberalekuak.”

Arantxa Lasa

“Neri pasatu jatan orduan, Erzilla anaiak eta laugarren bat zuan baten bat, eskopeta guztiak batu bihar genduzela, tailarretan eren eskopeta guztiak, sua emoteko bestian erenak, horrek batu bihar genduzela eta Erregetxera eskoletara eruan.”

Gerardo Ezenarro

tzen eta armak ez ziren kaltetu. Jabeek eskopetak berreskuratu egin zituzten, milizianoek herritik alde egin aurretik.

Eibarko sozialistak ere Plazentziara etorri ziren, kainoi-fabrikara, ametralladoreak eta kainoiak hartzera, baita kamionetak blindatzera ere. Kainoi antiaereoak ere eraman zituzten, bukatu gabe egon arren. Azken horrek kainoi-fabrikako zuzendaria zen Rafael Hernández komandantearen destituzioa eragin zuen. Izan ere, Irunera eraman zituzten kainoi horiek tiro-akatsak izan zituzten eta horregatik, fabrikako beste buru batzurekin batera, kargua utzi behar izan zuen. Bere etxean atxilotuta geratzera behartu zuten, gainera. Bere ordezt, Defentsarako Batzordeak proposatuta, zuzendariordea zen Jose Sirvent militarra izendatu zuten zuzendari.

Uztailaren 27ko data duen kainoi-fabrikako irteera agirian honako materiala azaltzen da:

- Mercedes-Benz kamioi baten gainean 40 mm-ko muntaia bikoitza.
- 4. muntaia, 7 eta 8 zenbakidun kainoiekin Donostiara.

También los socialistas de Eibar vinieron a Soraluze, a la fábrica de cañones, en busca de cañones y ametralladoras. Se llevaron, incluso, cañones anti-aéreos sin terminar. Este hecho provocó, junto a la de otros cargos, la destitución del comandante Rafael Hernández, director de la fábrica, ya que dichos cañones fueron llevados a Irún y se produjeron fallos mecánicos que dieron origen a errores de tiro. Obligaron al director a permanecer en su vivienda y, a propuesta del Comité de Defensa, fue sustituido por el que fuera subdirector de la fábrica, el militar José Sirvent.

Tal y como consta en el registro de salida de la fábrica, de fecha 27 de julio de 1936, entre el material requisado en la SAPA se encuentra:

- Montaje doble de 40 mm sobre un camión Mercedes-Benz.
- 4º montaje, con los cañones números 7 y 8, a Donostia.
- Montaje sobre camión Ford V. 8 y cañón completo de 47 mm.

José Sirvent Dargent

(1899, Malaga – 1971, Madril)



Francoren bisita SAPAra 1941ean. Aurrean ezkerretik hasita: Pío Placencia, Rafael Hernández-Francés, Francisco Franco eta Alejandro Calonje. Rafael Hernandezen atzean, José Sirvent eta honen atzean, Miguel Larrañaga alkatea. Atzerago, Angel Elizburu.

Marokoko gerran larri zauritu ostean, ingeniari-postua lortu zuen SAPAn. Erreketeak herrira sartu zirenean, bere etxean lapurretan egin zuten. Tropen etorrera zela-eta, kainoi-fabrika Sestaoko Navalera eraman zutenean, hantxe zen Sirvent zuzendari, baina Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu zutenean, Bilbotik alde egin

zuen ingelesen urpekari batean, frankisten bandora. Geroago, gerrako industria-arduradun izendatu zuen Francok. Hainbat urtez SAPAko ingeniari burua izan zen. INIren (Industria Institutu Nazionalaren) sortzaileetako bat eta Endesako zuzendarietako bat izan zen.

- Ford V.8 kamioiaren gainean muntaia eta 47mm-ko kainoi osoa.
- Kainoi horientzat fabrikari zeuden kaskillo, polbora, estopinak, hasierako kargak eta abarrak. Azken horiek zuzenean Eibarrera eramane zituzten.
- 3 7mm-ko Fauser fusil osoa.
- 16 Kg. polbora, 76,2 mm-ko kainoiertzako C.S. P.2a.
- Eibar eta Elgoibarrerako bi kamioi blindatu.

Ondorengo egunetako sarrera-irteerak ere erregratu zituzten eta kotxeen txasisak kainoiertzat moldatzeko lanak egin zituzten. Blindaje lanak egiteko, gerrako lehen astean, dagoeneko Deba, Lekeitio, Ondarroa, Berriz, Mallabia, Gernika eta Markinako ibilgailuak ekarri zituzten.

Tarte horretan, bonbardaketetatik babesteko lekua jarri ziren herrian. Erregetxe ondoan bazeo bat, trenbideko tunela ere erabiltzen zuten (bereziki Maristetako ume eta irakasleek) eta apaizaren harrizko etxea ere bai. Antxitxiketan joaten zen jendea babeslekuetara kanpaiak entzundakoan. Hegazkinek jaurtitako bonbak gertuan izan zituzten soralezetarrek, besteak beste, Eibarren abuztuaren 29an bonbardaketa izan zen-eta. Babeslekuak egiteko lanak Udalak zuzendu zituen, alkatearen ardurapean.

Saso berean, uztaia eta iraila bitartean, eskuindar esanguratsuak eta altxatutako militarren aldekoak atxilotu eta giltzapetu egin zituzten, eta

- Material necesario para el uso de esos cañones: casquillos, pólvora, estopines, cargas de inicio etc. Esas últimas se llevaron directamente a Eibar.
- Fusil Fauser completo de 37 mm.
- 16 Kg. de pólvora C. S. P.2 para cañones de 76,2 mm.
- 2 camiones blindados para Eibar y Elgoibar.

De igual manera, también se registraron las entradas y salidas en los días posteriores, reflejándose que se hicieron acoples de cañones a chasis de coches que, previamente, ya en la primera semana de guerra, habían sido transportados desde Deba, Lekeitio, Ondarroa, Berriz, Mallabia, Gernika y Markina.

Durante estos primeros días y semanas, se prepararon refugios para protegerse de los bombardeos que Soraluze también vivió de cerca, por ejemplo, el bombardeo de Eibar el 29 de agosto de 1936. A ellos acudían los vecinos al oír las campanas de aviso. Se utilizaron, entre otros, el situado junto a Erregetxe, conocido como “la cárcava”; el túnel del ferrocarril, que usaban, sobre todo, alumnos y profesores de los Maristas; o, también, la casa cural. La construcción de los refugios fue gestionada por el Ayuntamiento, bajo la supervisión del alcalde.

En esa misma época entre los meses de julio y septiembre, se produjeron detenciones y encarcelamientos de reconocidas personas de la derecha en los distintos municipios, o de personas que habían apoyado a los militares sublevados, llegándose,

*“Gero gerriak urten eta lehenenguan abioiak etozela eta tunelera
juaten genduazen eskolatikan, han jauan refujixua. Gero sartu
zittuan reketiak eta tropak eta eskolia itxi egin zuan.”*

Julen Iñurrieta

hainbat hilketa ere izan ziren herrietan. Soralu-zen, karlista batzuk atxilotu zituzten eta Erregetxeko eskolan eta Santa Ana kalean hutsik zegoen etxe batean giltzapetu.

Testuinguru horretan kokatzen dituzte garaiko hainbat iturrik Serafin Atxotegi eta Manuel Lersundiren atxilotetak, 1936ko abuztuaren bukaeran. Iturri horien arabera, karlistek arma-biltegi bat erreketean esku jartzeko gertu zutela zabaldu zen herrian, eta ondorioz, deklarazioa hartzeko preso hartu zituen Defentsa Batzordeak. Atxotegi herri-batzordeak atxilotu zuen hilaren 28an, eta Arratera eraman zuten. Abuztuaren 29an, Eibarko bombardaketaren egunean, miliziano batek jaurtitako tiroen ondorioz hil zen. Arrateko aterpetxean zegoen Mesedeetako moja batek lehen sendaketak berak egin zizkiola eta handik gutxira milizianoek eraman egin zutela adierazi zuen. 1937ko urriaren hasieran aurkitu zuten gorpua, Arraten lurperatuta. Lersundi, berriz, abuztuaren 22an atxilotu eta Erregetxean sartu zuten, beste preso batzuekin batera; 27an Arratera eraman zuten, eta Gipuzkoako Kausa Orokorrean jasotako testigantza araberak, Getariarako bidean hil zuten.

incluso, hasta el asesinato de algunas de ellas. En Soraluze varios carlistas fueron detenidos y encarcelados, en la escuela de Erregetxe y en una casa desocupada de la calle Santa Ana.

Fuentes de la época sitúan en ese contexto las detenciones de Serafin Atxotegi y Manuel Lersundi, a finales de agosto de 1936. En base a esas fuentes, se había extendido por el municipio el rumor de que los carlistas tenían preparado un almacén de armas para ponerlo a disposición de los requetés. Como consecuencia de ese rumor, el Comité de Defensa aprisionó a los carlistas para tomarles declaración. Atxotegi fue detenido por la Comisión Municipal el día 28 de agosto, y llevado a Arrate. Falleció a consecuencia de las heridas producidas por los disparos de un miliciano el día 29 de agosto, el día en que bombardearon Eibar. Según la monja mercedaria que lo atendió en la colonia escolar de Arrate, los milicianos se lo llevaron al poco tiempo de haberle sido realizadas las primeras curas. Su cadáver fue encontrado enterrado en Arrate a primeros de octubre de 1937. Lersundi, por su parte, fue detenido el día 22, y llevado a Erregetxe junto con otros presos. El 27 de agosto fue conducido a Arrate y, posteriormente, según consta en la Causa General de Gipuzkoa, lo mataron camino de Getaria.

OKUPAZIOA

Irun galdu ondoren, ezinezkoa zen armak Frantzia aldetik pasatzea, eta gainera ez zen Errepublikaren laguntzarik heldu. Donostia ere irailaren 13an hustu zuten eta erakunde ofizialak hiritik atera. Diputazioa, esate baterako, Mutrikuko Udalean ezarri zuten ofizialki. Handik aurrera, altxatutakoek bailaraz bailara bereganatu zuten Gipuzkoa. Militar profesionalek bi hilabete behar izan zituzten defentsa prestatu gabea menperatzeko, baina irailaren bukaeran Deba bailarara iritsi ziren.

“Columna Los Arcos”eko Julio Pérez Salas komandanteak Tercio de Montejurrako erreketek zuzentzen zituen, eta irailaren 20an bereganatu zituen Azpeitia eta Azkoitia. Handik aurrera egin zuen: Elgoibarrera lehenik, Azkaraten barrena, eta Soraluze-gero, Irukurutzeta eta Atxolinetik zehar.

Iluntzeko bederatzia aldera sartu zen Soraluze Tercio de Montejurra zelakoa, Estaziño aldetik, kanposantuko aldapatik behera. 600 bat erreketek ziren, lau konpainia. Viva Cristo Rey dihar-ka, kaki koloreko uniformeak eta txapel gorriak jantzita (“txapel gorriak” ere esaten zituzten nazionalen horregatik) eta fusilak soinean zituztela sartu ziren. Fusilen puntetan Santo Kristoaren eskapularioak zeramatzen lotuta. Hala, bandoa jo zuten herritarrei etxeetan har zitzaten eskatuz. Ordurako, ordea, jende gutxi zegoen herrian, gehienak joanda zeuden-eta. Irailaren 20ko iluntze aldera, pregoia jo zuten herrian, erreketek

LA OCUPACIÓN

Tras la caída de Irún, resultó imposible conseguir armas a través de la frontera, y tampoco llegaba ayuda de la República; así que Donostia tuvo que ser evacuada el 13 de septiembre, trasladando los organismos oficiales a otros lugares. Trasladaron, por ejemplo, la Diputación al ayuntamiento de Mutriku. A partir de esa fecha, los sublevados conquistaron Gipuzkoa comarca tras comarca; militares profesionales habían necesitado 2 meses para vencer a una defensa poco preparada, pero, a finales de septiembre, llegaron al valle del Deba.

El Comandante de la “Columna Los Arcos”, Julio Pérez Salas, que dirigía a los requetés del Tercio de Montejurra, conquistó Azpeitia y Azkoitia el 20 de septiembre de 1936. A partir de ahí, avanzó hacia Elgoibar, por Azkarate; y hacia Soraluze, por Irukurutzeta y Atxolin.

El Tercio de Montejurra entró en Soraluze sobre las 9 de la noche, por la Estación, descendiendo hacia el municipio por la cuesta del cementerio. Eran unos 600 requetés, 4 compañías. Entraron fusiles en mano, con uniformes color caqui y boinas rojas (fueron conocidos por ello como “txapelgorris”) y gritando “viva cristo rey”. Llevaban escapularios del Santo Cristo en la punta de los fusiles. A través de un bando, solicitaron a los vecinos que los acogieran en sus casas. Para entonces, sin embargo, casi todos los vecinos y vecinas habían huido, tras haberse anunciado mediante pregón, el 20 de septiembre al anochecer, que los requetés estaban al

bazetozela esanez, eta zortziretan Bilborako tren zegoela, dohainik, nahi zuenak har zezan. Jende askok alde egin zuen herritik: urte bereko azaroan egindako kontaketaren arabera, 1.120 lagun falta ziren herrian. Milizianoek irailaren 21ean laga zuten Soraluze, nazionalak sartu aurreko egunean.

“Geratu genduazten Plaentxian egun bixan edo, inor be ez zeuan, ez alde batetik eta ez bestetik.”

Ramon Mujika

Tropak, berriz, herrian gelditu ziren, etxeetan, eskoletan... eta hustutako etxeak okupatu edota sakeatu zituzten, baita kasu batzuetan herriko jendeak ere. Jatorduak ere herritarrek eman behar izaten zizkieten. Bertan gelditu ziren 1937ko martxoaren 28an herria utzi zuten arte.

Irailaren 22an bertan, desagertu zen Agustin Arrieta gaztea ere. Gipuzkoako Kausa Orokorean jasotako testigantzaren arabera, milizianoek Munetako Haitzetan atxilotu eta irailaren 24an Maltzagan hil zuten. Horrela jasotzen du komandanteak idatzitako okupazioaren kronikak ere: *“gaztea, erreketek gertu zeudela-eta, errepublikaren aldekoak eta herri-batzordeak herria utzi zutela jakinaraztera joan zitzairen, mendigain aldera, eta*

llegar, y que a las 8 de la tarde habría un tren gratuito para todas aquellas y aquellos que quisieran ir a Bilbao. Mucha gente dejó Soraluze, tal y como muestra un recuento realizado en noviembre del mismo año, a través del cual se estimó que en el municipio faltaban 1.120 personas.

Las tropas, en cambio, sí permanecieron en Soraluze, en las casas, en las escuelas..., y ocuparon o saquearon las casas vacías, acompañadas, a veces, por algunos de los vecinos y vecinas que se habían quedado. También hubo que preocuparse de dar de comer a esas tropas que se quedaron en Soraluze hasta el 28 de marzo de 1937.

El mismo día 22 de septiembre desapareció el joven Agustin Arrieta. Según los testimonios recogidos en la Causa General de Gipuzkoa, los milicianos lo apresaron en las Peñas de Muneta y lo asesinaron el 24 de septiembre en Maltzaga. Así lo refiere, también, el Comandante Julio Pérez Salas en su crónica de la ocupación: *“el joven, viendo la proximidad de los requetés, se dirigió hacia Mendigain, para hacerles saber que los republi-*

Desde la última posición, cuando declina ya el sol deponiendo su altivez y doblegando su cerviz ante la sublime valentía de los Requetés, descendemos del monte, por la izquierda, para entrar inmediatamente en Placencia de las Armas. A las nueve de la noche ocupábamos la población: el ocidente cubría su fondo de carmines ruborosos, las estrellas más cercanas a nuestro planeta empezaban a parpadear, cansadas de mirar de hito en hito la luz deslumbrante del sol y por las ventanaseñtrachiertas se escapaba temblorosa y tenue una línea de claridad. (...)

La sangre no ha dejado de correr: no ha salpicado el impecable traje de los eternos impacientes de la retaguardia, pero ha empapado e impregnado con su vaho caliente las enlodadas ropas de tres o cuatro Requetés (...)

"Adiós Placencia, Placencia de mi querer; Adiós Placencia, ¡Cuándo te volveré a ver!"

... y descubrir
rumores se entu
operaciones: co
cos las saldren
gar de equada pa
Tercero.

... acer
... amigos

... ab
... ofu
... s
... n
... rga
... to f
... len
... ade
... ron

... eslabones de un
... dura te este día fe
... con carcajadas.
... Perez Salas



Erreketeak

orduan atxilotu zuen han inguruan zebilen miliziano talderen batek.” Geroago, Benito Regil eibartarrari egotzi zioten haren hilketa, beste hainbat akusaziorekin batera, baina epaiketean zera adierazi zuen, Arrieta batailoi militar batek hil zuela. Regil 1940ko ekainaren 3an fusilatu egin zuten Donostiako hilerrian.

Hurrengo egunetan, hilaren 23an eta 24an, borroka gogorak izan ziren Munetako haitzetan, erreketeeek milizianoek okupatutako lekuak bereganatu nahi baitzituzten, eta mendigaina kontrolatu. Baja asko egon zen alde bietan borrokaldi horietan. Hango zauritu eta hildakoak alondegira ekarri zituzten. Florencio Arrazain botikarioa ipini zuten alondegiko atean, soldaduak zaurituta ala hilda zeuden esateko.

canos y los miembros del Comité Municipal habían abandonado el municipio. Entonces fue detenido por algún grupo de milicianos que andaba por el lugar”. Posteriormente, acusaron al eibarrés Benito Régil, entre otras cosas, del asesinato del joven; el cual, por su parte, declaró en el juicio que a Arrieta lo había asesinado un batallón militar. Régil fue fusilado en el cementerio de Donostia el 3 de junio de 1940.

En los días posteriores, 23 y 24 de septiembre de 1936, se produjeron duros combates en las Peñas de Muneta, ya que los requetés se habían propuesto conquistar los puestos ocupados por los milicianos, y controlar, así, toda la zona de la cumbre. Hubo muchas bajas en los dos bandos, y trasladaron a los heridos y fallecidos en esos combates a la alhóndiga. El boticario Florencio Arrazain fue el encargado de determinar si los soldados estaban heridos o muertos.

*“Esan juen azkenengo geratu ziranak han, hamazortzi gudarri,
Irunguak zirala. Harek resistidu juen azkenengo momentura arte.
Eta hantxe afusilatuko jittuen harek.”*

Ramon Mujika

OKUPAZIOAREN AURREKO GERTAERAK

Erreketeak Soraluzen sartu aurretik, une gogorrek bizi izan ziren Udalean. Irailaren 21ean, milizianoek herria utzi behar zuten horretan, preso zeuden eskuindarrak Eibarrera eramateko asmoak Defentsarako Batzordeko kideen artean desadostasun eta liskarrak sortu zituen. Izan ere, herrian aske uztearen aldekoak ziren batzuk, eta gogor

SUCESOS PREVIOS A LA OCUPACIÓN

Poco antes de que los Requetés entraran en Soraluze se vivieron momentos complicados en el Ayuntamiento. El 21 de septiembre, día en que los milicianos debían abandonar el municipio, la intención de trasladar a Eibar a los presos de derechas originó desacuerdos y provocó discusiones entre los miembros del Comité de Defensa. De hecho, algunos pensaban que había que liberarlos

“Sabina Oregi, entzunda daukat, euki zebela etxian, que no le dejaban salir. [...] Batzokixan zeuan erretrato bat kartzelan egon ziran guztiekin, berenak, e! Zirkulua zanian. Eta han erdixan zeuan Sabina Oregi.”

Isabel Artolazabal

“Euazen Ilordon. Onegixak ziran plazentziatarrak. Eurak beitzen zela bajatzen ziran kanposantutik behera reketiak. Eibartarrak “fuego!”, plazentziatarrak, “Ez. Geure etxiak dare. Nun bizi bihar gara gu bihar edo etzi? Plazentziatarrak ezetz, Eibartarrak baietz. Egin baeben gerrako gauzia, masakria.”

Susana Zarobe

egin zuten besteen kontra, armen mehatxupean, presoak askatu zituzten arte.

Presoak udaletxera eramán zituzten arratsaldeko lau eta erdiak inguruan. Horien artean zegoen, ia ordura arte, kainoi-fabrikako zuzendaria izan zen Rafael Hernandez Frances artilleriako koman-dantea. Bost eta erdiak inguruan, Jose Mari Letek eta Niceto Uriartek aske zeudela jakinarazi zieten presoiei, eta Gonzalo Iraeta eta beste batzuek lagunduta, etxera itzuli ziren. Askatu berri zituzten presoek milizianoak herritik irten arte etxean gelditzeko agindua zuten.

Milizianoek, joan aurretik, kainoi-fabrika hustu zuten. Eramateko moduan zegoena Sestaoko Navalera eramán zuten, baita langile asko ere, Jose Sirvent zuzendaria haien artean. Izan ere, Errepublikako ejerzitoaren artilleria piezarik ohikoenetako batzuk, Trubian ez ezik, Plazentziako SAPAn egiten ziren, eta Sestaon jarraitu zuten fabrikazio eta konponketa lanak egiten.

Soraluzeko fabrikán lagatako makinak, bestalde, erabilezin utzi zituzten, altxatutakoei fabrika erabiltzea eragozteko. Laster, ordea, berriz ere nazionalek martxan jartzea lortu zuten, SAPAko gerentea izan zen Alejandro Calonge y Motta ingeniariaren gidaritzapean.

Herriko beste lantegi batzuk ere Bizkaira eramán zituzten; Kruzelegitarren tailerra bai behintzat. Sociedad Anónima Cruceleguik espoletak egiten zituen, Eusko Jaurlaritzak materiala emanda. Soraluzetik irten eta lehenengo Deustun eta gero

en Soraluze y, bajo amenaza de las armas, se enfrentaron a quienes pensaban lo contrario, hasta que lograron la liberación de los presos.

Habían trasladado a los presos al ayuntamiento sobre la 16:30, y allí permanecieron mientras se discutía acerca de su destino. Entre ellos se encontraba, quien hasta casi entonces había sido el director de la fábrica de cañones, el comandante de artillería Rafael Hernández Francés. Hacia las 17:30, José María Lete y Niceto Uriarte les comunicaron que eran libres y, acompañados por Gonzalo Iraeta y otros, regresaron a sus casas; no sin antes advertirles que permanecieran en ellas hasta que los milicianos abandonaran el municipio.

Antes de partir, los milicianos vaciaron la fábrica de cañones, trasladando a la Naval de Sestao todo aquello que se podía llevar. También se trasladaron muchos trabajadores, incluido el director José Sirvent. Hay que subrayar que las piezas de artillería más usadas por el ejército republicano, además de en Trubia, se fabricaban en la empresa SAPA de Soraluze. Esa labor de fabricación y reparación continuó realizándose en Sestao.

Las máquinas que se dejaron en Soraluze, por su parte, fueron inutilizadas, evitando así que sirvieran a los sublevados. Sin embargo, los nacionales volvieron a ponerlas rápidamente en funcionamiento, bajo la dirección de quien fuera gerente de SAPA, el ingeniero Alejandro Calonge y Motta.


También trasladaron a Bizkaia otras empresas del municipio, como por ejemplo, el taller de los



Alejandro Calonge

Derion izan zuten lantegia. Soralezetar askok jardun zuten bertan lanean. Han urte batzuk eman da, Markinara eraman zuten tailerra.

Kruzelegi, Crucelegui SA, que fabricaba espoletas con material que proporcionaba el Gobierno Vasco. El taller se trasladó primero a Deustu, y luego a Derio, y muchos vecinos de Soraluze trabajaron allí. Después, tras unos años, la empresa fue trasladada a Markina.



FRONTEAREN EGONKORTZEA

(1936ko iraila - 1937ko apirila)

Irailaren bukaeran, beraz, altxatutako militarrek ia Gipuzkoa osoa zuten kontrolpean. Bergara ere zuten okupatu zuten, erreketek Soraluzean gelditu ziren, dagoeneko hartutako tokiak finkatu asmoz: San Prudentzian, Saleta taldea zegoen; Angiozarren, Tejero; Soraluzean, Pérez Salas; eta Kalamua eta Arraten, Díez de Rivera. Frontea hemen ezarri zen, Elgetan eta Eibarren, eta Soraluzean, okupatuta, bandoen arteko su-lerroaren erdi-erdian egon zen zazpi hilabetetan, 1936ko irailaren bukaeratik 1937ko apirilaren bukaerara arte.

Behaketa eta borrokorako leku estrategikoak hartu zituzten herri inguruko mendietan: ekialdeko lerroan “nazionalak”, mendebaldekoan “gorrixak”.

Nazionalak dagokienez, lau puntu nabarmendu ziren. Tercio de Montejurra Munetako Haitzetan jarri zuten talde bat, 2. konpainia izenekoa, Eibar aldera, Maltzaga gainean. Bertan, txabola txiki bat eraiki zuten, gero errepublikarren jaurtigai batek suntsitu zuena. Aurrerago, Scheinnder kanoi bat kokatu zuten Karakaten, lau km-ko irismena zuena, eta handik jaurtitzen zituzten tiroak Eibar aldera. Tiro horietako batzuek hildakoak eta zauritu ugari eragin zituzten Eibarren. Karakatetik, Arrate, Kalamua eta Akondian zeuden beste talde na-

CONSOLIDACIÓN DEL FRENTE

(Septiembre 1936 - abril 1937)

Para finales de septiembre, los militares sublevados tenían bajo su control casi toda Gipuzkoa, de hecho, también habían ocupado Bergara el 21 de septiembre. Así pues, ante la dificultad de seguir avanzando, los requetés decidieron quedarse en la zona para consolidar las posiciones ya conquistadas: en San Prudentio, el grupo de Saleta; en Angiozar, Tejero; en Soraluze, Pérez Salas; y en Kalamua y Arrate, Díez de Rivera. En esta línea se estableció el frente, en Eibar y en Elgeta; Soraluze, por su parte, ocupada, permaneció durante 7 meses en la línea de fuego de los dos bandos enfrentados, desde finales de septiembre de 1936, hasta finales de abril de 1937.

Ambos bandos establecieron sus posiciones estratégicas y de vigilancia en los montes que rodean Soraluze, “nacionales” en el este, “rojos”, en el oeste.

En lo que se refiere a los nacionales, los del Tercio de Montejurra establecieron cuatro posiciones. Colocaron un grupo en las Peñas de Muneta, la 2ª Compañía, hacia Eibar, a la altura de Maltzaga. Allí construyeron una pequeña chabola, que posteriormente fue destruida por un proyectil republicano.

Más adelante, colocaron un cañón Scheinnder en Karakate, con un alcance de 4 kilómetros. Desde allí lanzaban tiros hacia Eibar, algunos de los cuales provocaron varios muertos y heridos; y desde allí, también, se comunicaban por radio con otros grupos de nacionales que estaban en



Fronteak iraun zuen bitartean, nazionalen kokalekuak (urdinez) eta errepublikarrenak (gorriz) horrela mantendu ziren.

zionalekin irratiz komunikatzen ziren eta Maltzagako errepublikarren kokalekuak erasotzen zituzten. Honako beste tokietan ere ezarri ziren: 1. konpainia San Matzialen, 3.a Osintxun eta 4.a Soraluzen bertan. Guztira, 600 gizon inguru. Halaber, Bergararako errepidearen norantzan, 6 kainoi ezarri zituzten, bata, Soraluzeke irteeran, Olabarrena parean.

Errepublikarrak, berriz, Maltzogatik Arrasateraino Deba ibaiaren ezker aldeko mendietan finkatu ziren. Soraluzen, Ilordo, Azurza eta Krabelinaitzen egon ziren. Oraindik ere, erraz

Arrate, Kalamua y Akondia, para atacar las posiciones republicanas de Maltzaga. Las restantes posiciones fueron, San Martzial, 1ª Compañía; Osintxu, 3ª Compañía; y el mismo Soraluze, 4ª Compañía. En total, unos 600 hombres. También colocaron 6 cañones en dirección Bergara; uno de ellos, a la salida de Soraluze, a la altura de Olabarrena.

Los republicanos, por su parte, se posicionaron en los montes de la margen izquierda del río Deba, desde Maltzaga hasta Arrasate. En lo que respecta a Soraluze, estuvieron en Ilordo, Azur-



Munetako Haitzetako babeslekuak.



Munetako Haitzetako beste babesleku bat.



Bideo irudi bat, Maltzagako trenbidea apurtuta eta pasabidea itxita ageri dena.

“Maltzagan egon nitzan. Maltzagako estaziñuan hor zeren plazentziatarrak mordo bat, zaharrak be bai. Bazaozen kozinan egitten zebenak eta. Zubixa be itxi zeben. Lana egitten ginuan, zakuak ipini, parapetuak eta. Gabaz taberna ondoko bidetxiurrian, Irurera doian bidetxiurrian, hantxe egitten genduan guardixia. Bestekaldia dana hartuta zauan. Elgoibarko partia be itxitta zauan. Eibar partia libre. Elektrikaraino libre eukitzen ginuan. Egunez ura ekarri bihar zala eta horrek trenbidian ibiltzen diran karretila horrekin eta, bizkor xamar ibiltzen ginan. Eta Arrate aldetikan tiratu egitten oskuen. Eta hantxe pasatzen genduan eguna. ”

Justino Gabilondo

antzman daitezke leku horietan zulatutako trintxerak; leku horietatik erasotzen zituzten nazionalen kokalekuak, eta baita Soraluze eta Osintxu arteko errepeidea ere.

Osintxu aldean, nazionalak Galarraga auzoan zeuden, Sasibeltza mendian, eta frontea Basalgon. Beste batzuren artean Loiola batailoiaren konpainia bat bertan izan zen hasieran, Marcos Azkarate kapitain zela. Ekipamendua ez zen ona, eta janaria ere eskasa. Kokapenetatik joan-etorriak egiten zituzten altxatuek okupatutako baserri eta lur eremu aldera, eta handik lortzen zuten jana eta esnea.

Osintxun bertan nazionalak sei lagun atxilotu zituzten eta batek ihes egitea lortu zuen, Olako Ambrosio Agirrek. Tiro artean erreka beste aldera heldu zen. Gudariak, esku-oheta hartuta, Amutxastegi baserriraino jaitsi ziren haren bila, horiek ere Galarraga menditik jaurtitako tiroen artean. Ambrosio onik ateratu zen baina gainontzeko bost atxilotuak fusilatu egin zituzten.

Altxatutakoek erresistentzia gogorra aurkitu zuten zonalde honetan, eta uste baino gehiago kostatu zitzaizkien aurrera egitea, zazpi hilabetez eutsi baitzioten hemen ezarritako fronteari.

Hilabete horietan zehar, batailoi batzuk txandakatu ziren altxatutako erasoari eusteko ezarritako lerroan. Soraluze inguruan, esate baterako, Barakaldo batailoia Ilordon egon zen urritik urtarrilera, eta borrokaldi gogorrak bizi izan zituen

za y Krabelinaitz. Hoy en día todavía se pueden encontrar las trincheras desde las que atacaban las posiciones de los nacionales y la carretera entre Osintxu y Soraluze.

En Osintxu, los nacionales estaban en el barrio Galarraga, en el monte Sasibeltza, y el frente estaba en Basalgo. Una compañía del batallón Loiola, entre otras, estuvo allí desde el principio, bajo el mando del capitán Marcos Azkarate. El equipamiento no era bueno, ni la comida tampoco; por ello, desde sus posiciones, hacían incursiones a terrenos y caseríos ocupados por los sublevados, y allí conseguían comida y leche.

En Osintxu los nacionales detuvieron a seis personas, una de las cuales consiguió escapar, Ambrosio Agirre, de Ola. Consiguió llegar, entre tiros, a la orilla opuesta del río; y los gudaris, también entre tiros procedentes del monte Galarraga, bajaron con una camilla en su busca, hasta el caserío Amutxastegi. Ambrosio fue rescatado y vivió para contarlo, pero el resto de los cinco presos fueron fusilados.

Los sublevados encontraron en esta zona una mayor resistencia a la esperada, y el avance fue mucho más dificultoso de lo que habían previsto. El frente se estabilizó durante 7 meses.

Durante este tiempo, distintos batallones se fueron turnando en el frente para combatir el ataque de los sublevados. En Soraluze, por ejemplo, el batallón Barakaldo permaneció en Illordo desde octubre hasta enero, y protagonizó duras batallas, como la que tuvo lugar en Maltzaga, los días 25 y 26 de diciem-



“Gitarria jotzen jeuazen goizian naparrak han zerian, deposituan aurrian, San Martzialetik gora juanda. (Milizianoek) atakatu juen haura. Bat itto zuan deposituan, napar bat, eta beste danak beherutz. Eta zelan hanka egin eben, bat jarri zan labadero gainian ametralladora batekin eta botatzen beran laguneri. Hori ordenia emon otsan Perez-Salasek. Geratu ziranak bizirikan eruan zittuen kamioi baten Naparruara. Harek afusilatu egingo zittuen seguruen. ”

Ramon Mujika

Maltzagan, abenduaren 25 eta 26an. Horretaz gain, ordea, etengabeak izan ziren bando bien arteko erasoaldi txikiak.

Testigantza horrek jasotzen du 1936ko urriaren 19an San Martzialen gertatutakoa. Egun horretan hil zen Lucio Zalacain Elcoro, Tercio de Montejurrako sargentua zena. Orduko mediku agiriak jasotzen zuenaren arabera, sargentua San Martzialen hil zen itota, bertako depositoa dirudienez. Erreterriakoa zen eta han lurperatu zuten.

Elgeta inguruan, berriz, konpainiak hasieran eta batailoiak ondoren, txandakaturaz joan ziren, erreleboak eginez, Azkonabitzan, Karabietan, Elgetako herrian, Intxorta eta Asentzio arteko lerroan: Loiola, Itxarkundia, Muñatones, Otxandiano, UHP, Meabe 5.a, Itsasalde, Ibaizabal, Padura, Martiartu eta Kirikiño batailoiak, besteak beste. Ingeniarien 15. batai-

bre. Esas pequeñas batallas y reyertas, por otra parte, fueron continuas entre los dos bandos.

En una de ellas, por ejemplo, falleció el que fuera sargento del Tercio de Montejurra, Lucio Zalacain Elcoro, quien, según testimonio, se ahogó en San Marcial, en un depósito de agua que allí había. Un certificado médico de la época, por su parte, certifica que falleció ahogado el 19 de octubre de 1936, en San Marcial. El Sargento era de Erreterria, y lo sepultaron allí.

En lo que se refiere a los alrededores de Elgeta, compañías al principio, y batallones, después, fueron turnándose y relevándose en el frente. Así por ejemplo, en Azkonabitz, en el pueblo de Elgeta, y entre Intxorta y Asentzio estuvieron, entre otros, batallones como Loiola, Itxarkundia, Muñatones, Otxandiano, UHP, Meabe 5ª, Itsasalde, Ibaizabal, Padura, Martiartu o Kirikiño.



Hilario Iturbek trintxerak egiten jardun zueneko.

“E bakuatu baino lehenago juaten ginan Intxortara, trintxerak egittera, hamazazpi urtekin. Oinezian juan ginan Durangoraino, eta bonbardeopian. Jesus! Haura zan ona!”

Hilario Iturbe

loiak, bestalde, alambre-hesiak eta trintxerak ezarri zituen Galdaramiñon, Asurtzan eta inguru horietan.

El 15º Batallón de Ingenieros, por su parte, preparó las alambradas y trincheras en Galdaramiño, Asurtza y alrededores.

Aipatutako tokietan ere etengabeak izan ziren erasoaldiak eta borrokak, eta horietako batean, Elorrio inguruan atxilotu zituzten Plazentzian bizi zen José Ormazabal Arbizu eta jaiotzez ataundarra zen Ignazio Oyarzabal Olano. Biak erreketean Nafarroako lehen brigadan zebiltzan (talde ibiltarian), García Valiño generaren agindupean. Kausa Orokorrean jasotako informazioaren arabera, biak Elorrioko kanposantuko hormaren kontra hil zituzten 1936ko urriaren 4an.

Las luchas fueron constantes en todos esos lugares, y en una de ellas, que tuvo lugar en los alrededores de Elorrio, fueron detenidos José Ormazabal Arbizu, vecino de Soraluze, e Ignazio Oyarzabal Olano, ataundarra de nacimiento. Ambos eran miembros de la 1ª Brigada Requeté de Navarra, grupo itinerante al mando del General García Valiño. Según la información recogida en la Causa General, los mataron frente a la pared del cementerio de Elorrio el 4 de octubre de 1936.

“Guk geure erropak bakarrik. Guk ez genduan euki erroparik. Gero emoten zittuen holako kapa modukuak gainian ipintzeko eta bota batzuk, ura be pasatzen jakuenak. Jana be eskas gure aldetik. Ez zan egon, organizaziñorik ez zeuan.”

Inazio Ernabide

EUSKAL GOBERNUAREN SORRERA

Politikoki ere, irailaren bukaera eta urriaren hasierako etapa hark garrantzi handia izan zuen; izan ere, Espainiako Gorteek urriaren 1ean Estatutua onartu zuten eta, beraz, Euskal Gobernuua eratu zen Gernikan 1936ko urriaren 7an. EAJ eta Frente Popularreko alderdiek osatu zuten Gobernuua eta Jose Antonio Agirre izendatu zuten lehendakari. Gobernuua honako hauek osatu zuten: EAJko lau kideak, PSOEko hiruk, ANVko batek, PCEko batek eta bi errepublikarrek, URko eta IRko banak. Nazionalistak ziren, José Antonio Agirre (Lehendakaritza eta defentsa), Jesús María Leizaola, Heliodoro de la Torre eta Telesforo Monzon; PSOEkoak Santiago Aznar, Juan de los Toyos eta Juan Gracia; Alderdi Errepublikarrek Alfredo Espinosa eta Ramón María Aldasoro; ANVkoa zen Gonzalo Nárdiz eta Alderdi Komunistakoa Juan Astigarribia.

Estatutuak, hortaz, historiako lehen Euskal Gobernuaren sorrera ekarri zuen, behin-behineko koalizio gobernua. Gerra egoerak eraginda, esku-men guztiak eduki zituen gobernu hark eta Estatu independente gisa funtzionatu zuen. Esparru batzuetan jarduera zabala izan zuen: Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa sortu zuen, Dekretu eta Agindu ugari ezarriz; ikurriña bandera ofizialtzat hartu zuen 1936ko urriaren 19ko Dekretuak jasota. Defentsari zegokionez, armada eta itsas-armada sortu zituen, baita Euzko Gudarostea ere. Erreklutatutako kintoek eta alderdietako milizianoek osatu zituzten. Soldaduak hornitu behar

CREACIÓN DEL GOBIERNO VASCO

En el ámbito político, el periodo comprendido entre finales de septiembre y comienzos de octubre también fue muy importante. Las Cortes españolas aprobaron el Estatuto el 1 de octubre y, con él, la creación del Gobierno Vasco, en Gernika, el 7 de octubre de 1936. Lo formaron PNV y Frente Popular, nombrando Lehendakari a José Antonio Agirre. El Gobierno Vasco fue constituido por cuatro miembros del PNV, tres del PSOE, uno de ANV, uno del PCE, y dos republicanos, uno de UR y de IR, el otro. Entre los nacionalistas, José Antonio Agirre (Presidencia y Defensa), Jesús María Leizaola, Heliodoro de la Torre y Telesforo Monzón; del PSOE, Santiago Aznar, Juan de los Toyos y Juan Gracia; por parte republicana, Alfredo Espinosa y Ramón María Aldasoro; de ANV, Gonzalo Nárdiz; y del Partido Comunista, Juan Astigarribia.

El Estatuto, por tanto, trajo la creación del primer Gobierno Vasco de la historia, un Gobierno provisional de coalición. Debido a la situación de guerra, sin embargo, dicho Gobierno asumió todas las competencias, y funcionó como un Estado independiente. Tuvo una amplia actividad en varias áreas; así por ejemplo, creó el Diario Oficial del País Vasco, emitiendo muchos Decretos y Órdenes; y declaró la ikurriña como símbolo oficial en base a un Decreto de 19 de octubre de 1936. En lo que se refiere a Defensa, creó la Armada de Tierra y Mar, así como el ejército vasco, Euzko Gudarostea, que formaron con quintos reclutados y milicianos de los distintos partidos. Fue necesario aprovisionar

izan zituzten, armak erosi, ekoiztu, itsason-
tziak birmoldatu... Artilleria eta hegazkineria,
ordea, ahulak zituzten beste bandokoenekin
alderatuta. Administrazio lokala, berriz, be-
rrantolatu egin zuten, defentsa batzordeak de-
segin eta lehengo udal-taldeak berreskuratuz.
Ordena publikoa ertzaintzaren bitartez man-
tendu zuten. Justizia Sailak Euzkadiko Lurral-
de Auzitegia sortu zuen. Ogasunak Euskadiko
monetak atera zituen, Espainiako gobernuaren
baimenaz; ez benetako moneta, ordea: dirua
zirkulaziotik erretiratu eta txekeak sortu ziren
deposito horien kontura.

Euskal Unibertsitatea ere sortu zuen, Medi-
kuntza Fakultatea eta Bilboko Hospital Zibila-
ren Erizainen Eskola 1936ko abenduaren 1ean
funtzionatzen hasi zirenean.

Jarduera haiek, ordea, Bizkaian bakarrik izan
zuten eragina, baita Gipuzkoako Eibar eta El-
getan zein Araba iparraldeko leku gutxi ba-
tzutan ere, okupatu zituzten arte. Hori guztia
posible izan zen fronteak Deba ibaiko lerroan
eutsi ziolako.

Eusko Jaurlaritzak agintearen ardura hartu zue-
nean, ordura arte milizia-talde izan zirenak,
aginte bakarraren menpean egituratutako ar-
mada bilakatu ziren. Horretarako 1930, 1931,
1932, 1933, 1934, 1935, 1936 eta 1937ko
deialdiak mobilizatu zituzten. Azkenean, heme-
zortzi eta berrogeita bost urte bitarteko gizonez-
ko guztiak Defentsa Sailaren kontrolpean jarri
zituzten. Ejertzito horretan, miliziez gain, mer-

a los soldados, comprar armas, fabricarlas, remo-
delar los buques... ; aunque la artillería y la fuerza
aérea de que disponían fueron débiles, en compa-
ración con las del bando contrario. También reor-
ganizaron la administración local, suprimiendo los
Comités de Defensa y recuperando las anteriores
corporaciones municipales. Mantuvieron el orden
público mediante la Ertzaintza. El Departamento
de Justicia creó el Tribunal de Justicia de Euzka-
di. El de Hacienda, con el beneplácito Gobierno
de España, emitió dinero de Euskadi; no moneda
como tal, sino cheques que sustituyeron el dinero
que previamente retiraron de la circulación.

Se creó la Universidad Vasca, cuando el 1 de di-
ciembre de 1936 comenzaron a funcionar la Fa-
cultad de Medicina y la Escuela de Enfermería
del Hospital Civil de Bilbao.

Todas estas actividades, sin embargo, tuvieron
efecto sólo en Bizkaia y, hasta que fueron ocupa-
das, también en Eibar y Elgeta, en Gipuzkoa; y en
algunos lugares del norte de Araba; y fue posible
gracias a la resistencia del frente en la línea del
Deba.

Cuando el Gobierno Vasco asumió las riendas, los
que, hasta entonces, habían sido grupos de mi-
licias que actuaban de forma aislada, se unieron
en una única armada estructurada bajo un solo
mando. Para ello, movilizaron los reemplazos de
1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936 y
1937; reuniendo, finalmente, bajo el control del
Departamento de Defensa a todos los jóvenes de
entre 18 y 45 años. Formaron parte de este ejérci-

kantzia-ontziteria eta mobilizatutako industriak ere batu zituzten.

Horregatik, ikerlarien esanetan, bi gertakari haiek (Deba ibaiko frontea egonkortzea eta Euskal Gobernuaren eratzea) etapa berri bat ireki zuten gerraren bilakaeran, Bilbo jausi zen arte iraun zuena, 1937ko ekainaren 19ra arte, hain zuzen ere.

OKUPAZIO GARAIA HERRIAN

(1936ko iraila - 1937ko apirila)

Bitartean, ordea, Soraluze okupatuta zegoen. Aurreko leherketan jasota geratu da, etxea eta ondasunak bertan lagata, herritar askok alde egin behar izan zutela Tercio de Montejurrako erreketek herria okupatu zutenean. Okupatzaileek herria gobernatzeari ekin zioten hasiera-hasieratik eta haien lehen zeregina udal-talde berria izendatzea izan zen.

Udalaren berrantolaketa

Udal ordezkariak herritik alde eginda zeudela eta, irailaren 23an goizeko 9retan egindako bileran, tropen komandanteak udal-gobernu probisionalaren osatu zuen herriko Círculo Tradicionalistaren ki-deak izendatuz:

to, además de las milicias, la naviera comercial y la industria movilizada.

Los dos hechos descritos en este apartado, de consolidación del frente del Deba y de creación del Gobierno Vasco, constituyeron, en base a la historiografía, una nueva etapa en la evolución de la Guerra, etapa que se desarrolla hasta la caída de Bilbao, el 19 de junio de 1937.

ÉPOCA DE LA OCUPACIÓN EN EL PUEBLO

(Septiembre 1936 - abril 1937)

Mientras tanto, Soraluze permanecía ocupado, y aquellos que la ocuparon asumieron, desde el principio, el gobierno del municipio. Como se ha mencionado anteriormente, fueron muchos los vecinos y vecinas que, dejando atrás casa, familia y bienes, se marcharon del pueblo poco antes de que el Tercio de Montejurra lo ocupara; incluida la mayoría de los representantes municipales. Lo primero que hicieron fue nombrar un nuevo gobierno municipal.

Reorganizando el Ayuntamiento

Así pues, el 23 de septiembre de 1936, en reunión celebrada a las 9 de la mañana, el Comandante de las tropas formó un Gobierno municipal provisional nombrando para los distintos cargos a miembros del Círculo Tradicionalista:

Alkatea Miguel Larrañaga Madina

Zinegotziak Esteban Oregi Solabarrieta
Claudio Onandia Ortuzar
Sabino Madina Azcarate
Basilio Aizpiri Ariznabarreta

Gero, urriaren 1ean, beste lau zinegotzirekin osatu zuen udal talde hura, herriari zegokion zinegotzi kopurua osatu arte:

Carlos Lizarralde Altuna
Domingo Ucin Atxotegi
Rufino Zabaleta Zangitu
Ceferino Garai Vergara

Udal-taldearen barruan lan-batzorde ezberdinak osatu zituzten: Herri-lanak, Ogasuna, Gobernu, Hezkuntza eta Jaiak; eta, herriko “normaltasuna” berreskuratu nahian, egunerokoaren kudeaketari ekin zioten, horretarako adostu zituzten hama-bosteroko bileren bidez. Izan ere, ejerzito nazionalak lurraldeak erraz bereganatuko zituenaren ustea zeukan. Egoera, ordea, “normaltasunetik” urrin zegoen, eta hainbeste luzatu zen okupazioak eta gerrak berak markatu zuten udal-gobernuaren dinamika.

Tropen egonaldi-kostua

Tropak herrian sartu eta lehenengo unetik, lapurretarako aukera izan zuten; joandakoen etxeetan sartu eta bertan zegoena harrapatu zuten: koltxoiak, etxeko arropak, ontziak eta egonaldiako

Alcalde Miguel Larrañaga Madina

Concejales Esteban Oregi Solabarrieta
Claudio Onandia Ortuzar
Sabino Madina Azcarate
Basilio Aizpiri Ariznabarreta

Posteriormente, el 1 de octubre, nombró otros cuatro concejales, hasta completar la cifra que correspondía a Soraluze:

Carlos Lizarralde Altuna
Domingo Ucin Atxotegi
Rufino Zabaleta Zangitu
Ceferino Garai Vergara

Se crearon distintas comisiones de trabajo: Obras, Hacienda, Gobierno, Instrucción y Festejos; y, con el ánimo de recuperar la “normalidad” en el municipio, empezaron a gestionar el día a día, acordándose, para ello, realizar reuniones quincenales. No hay que olvidar el hecho de que el ejército nacional pensaba realizar una conquista rápida y sencilla; la realidad, sin embargo, fue bien distinta y la dinámica, lejos de la “normalidad”, estuvo marcada por una ocupación que se alargó en el tiempo y por la guerra.

Costo de las tropas

Desde el momento en que entraron, las tropas tuvieron oportunidad y ocasión para el saqueo. Entraron en las casas de las y los que huyeron, apropiándose de colchones, ropa de casa, menaje y todo

behar zuten guztia. Izan ere, lehenengo zereginetako bat hainbeste gizoni ostatu ematea izan zen, eta horretarako, besteak beste, eskolak erabili zituzten. Hala bada, tropak Erregetxeko eskolan kokatu zituzten eta lekua atontzeko hustutako etxeetan zegoena baliatu zuten. Horrek eskolak martxan jarzea oztopatu zuen eta ondorioz, ikasturte hartan ez zen eskolarik izan. Perez-Salasen komandantzia, berriz, Udaletxe pareko etxean ezarri zuten, lehenengo solairuan.

Orokorrean, hasierako egun haiek lapurretarako proposak izan ziren eta herriko jende askok ere aprobetxatu zuen joandakoen etxeetan sartu eta gauzak harrapatzeko. Etxe asko hustu zituzten. Gero, etxeak prezintatu egin zituzten eta joandakoak itzuli ahala, herritarrek kuarteletik pasatu behar izan zuten nork bere etxean sartu ahal izateko.

Okupazioak eta tropen egonaldiak, bestalde, gastu handia eragin zuten herrian eta gastu haiei aurre egitea izan zen Udalaren eta herritarren zere-

cuanto quisieron o necesitaron para su estancia. El primer objetivo había sido alojar a los hombres y, además de otros lugares, utilizaron la escuela para ello. Fueron ubicados en la escuela de Erregetxe, que equiparon con utensilios procedentes de las casas vacías. Esta ubicación de las tropas impidió la puesta en marcha del curso escolar, por lo que durante todo ese tiempo no se impartió enseñanza.

La comandancia de Pérez Salas, por su parte, se ubicó en una casa de la calle Santa Ana, frente al Ayuntamiento, en la 1ª planta.

El saqueo, pues, fue generalizado en esos primeros días, y muchos vecinos de Soraluze también se aprovecharon de la situación. Las casas vacías fueron precintadas, y sus dueños y dueñas necesitaron el permiso de la Comandancia para volver a ellas, siendo obligatorio pasar previamente por el Cuartel.

Por otra parte, la ocupación y la estancia de las tropas supusieron un gran gasto al municipio,

“Eneeee! Orduan dana horixe. Zela aurrera juanda euan jentia, juaten zittuan eta hartu. Baina ez zuan lapurretia, zuan rekisa. Hori izen hori ipini otsen. Gure amama eta aittitta gero etxe bare gëratu zittuan. Gure amak bastante balore eukan, harenetik ahal ebana etaratzia edo salbatzia edo.”

Julen Iñurrieta

gin garrantzitsuenetako bat. Horretarako, herri osoak diruz lagundu behar izan zuen, enpresa zein partikularrek, eta bakoitzak emandako diru laguntzaren errejistroa egiten zen.

Diru-iturri haietaz gain, tropen egonaldiko gastuei aurre egiteko beste baliabide batzuk ere bilatu nahi izan zituen Udalak. Hala, alde egindako etxejabeek maizterrengandik jaso beharreko errentak kobratu ahal izatea eskatu zion Udalak Gipuzkoako gobernadore zibilarri, baina hark eskumena ukatu zion, aginte militarri zegokiola esanez.

Okupatutako gainontzeko lurraldeetan moduan, Defentsa Batzorde Nazionalak gerra-kanpaina ordaintzeko diru-eskaerak egiten zituen eta hari ere aurre egin behar izan zion herriak, baita bestelako kanpaina zehatzetan egindako eskaerei ere: Gipuzkoako Gerrarako Batzorde Karlistak irekitako harpidetzari (diruz edo urrez egindako laguntzak eskatu zituen) edo gerrak iraun bitarteko gabonetako kanpainari (El Aguinaldo del Combatiente izenekoari). Gainera, Udal-funtzionarioek Espainiar Nazioaren gastuetan laguntzeko ekarpenak egin behar izaten zituzten; izan ere, Batzorde Nazionalak dekretu bidez agindutakoaren arabera, soldata egun bat edo bi eman behar izaten zuten, irabazten zuten diru-kopuruaren arabera, eta Donostiako Banco de España-ra bidali.

Dirua batzeko ekimenen artean aipatzekoa da “El día del Plato único” izeneko eguna, 1936ko urriaren 30eko Aginduaz ezarri zena. Hil bakoitzeko lehen eta hamabostgarren egunetan egiten zen, eta kartel eta iragarkien bidez gogorarazten

gasto al que Ayuntamiento y vecinos y vecinas tuvieron que hacer frente. Así pues, particulares y empresas, todos tuvieron que colaborar económicamente, realizándose registro minucioso de todas y cada una de las colaboraciones efectuadas.

Además de estas aportaciones, el Ayuntamiento tuvo que buscar otras vías de financiación. Así, por ejemplo, solicitó al Gobernador Civil de Gipuzkoa facultad para poder cobrar las rentas de arrendados y arrendadas en casas cuyos dueños y dueñas habían abandonado Soraluze. El Gobernador, por su parte, denegó tal autorización, argumentando que dicha facultad correspondía al mando militar.

Otros medios de financiación fueron, el dinero requerido por el Comité Nacional de Defensa que, como en el resto de territorios ocupados, solicitaba dinero para hacer frente a la campaña de guerra; la suscripción solicitada por la Comisión Carlista de la Guerra en Gipuzkoa (solicitaban dinero u oro); o las Campañas de Navidad durante el tiempo que duró la Guerra (el Aguinaldo del Combatiente)... Además, los funcionarios municipales debieron hacer aportaciones periódicas y contribuir, así, a los gastos de la Nación española. Las aportaciones, reguladas mediante Decreto de la Comisión Nacional, fueron de un día o dos de sueldo, en función de los ingresos, y eran enviadas a la sede del Banco de España en Donostia.

Entre todas esas iniciativas para recaudar fondos cabe destacar la que fue llamada “El día del Plato único”, que se estableció por Orden del 30 de octubre de 1936. Se realizaba los días 1 y 15 de cada mes,

351.

Excmo. Sr.:

Cumpliendo acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de mi presidencia, y de acuerdo con el señor Comandante Militar de esta villa, ruego a V.E. tenga a bien ordenar de conforme a esta Alcaldía sobre su tiene facultades para retener o cobrar el importe de los alquileres de casas particulares cuyos propietarios han huído del pueblo, con el fin de destinar esas cantidades a la liquidación de los gastos que está ocasionando la estancia de la tropa en esta villa.-

Dion guarde a V.E. muchos años.

Placencia, 19 de Nvbra. de 1936.

EL ALCALDE,

Excmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa.-SAN SEBASTIAN.

Ihes eginda zeuden etxejabeek jaso beharreko alokairuko dirua udaletxeak berak jasotzeko baimena eskatu zion alkateak gobernadore zibilarari.

En la presentación de los presupuestos quedan consignadas dichas cantidades sin las cuales no podrá tener curso legal y aprobación dichos presupuestos.

CARTILES PARA LAS ESCUELAS

Que comuniquen el número de escuelas y colegios y número de aulas en total que hay en ellos.

COMIENZO DE FRASEO

Fomento del homenaje y recolección de pliegos.

SEÑALES DEL FRIO

Intensificar su propaganda y denunciar al Gobierno Civil a quienes sistemáticamente rechazan el sueldo.

COLEGADORES Y MENESTES

No obligar a nadie, pero observar a quienes no las cumplen.

PLATO UNICO

- 1a.- " EL DIA DEL PLATO UNICO " se celebrará el 1 y 15 de cada mes.
- 2a.- La propaganda del mismo se efectuará:
 - a) Mediante conferencias, artículos y avisos recordatorios durante los tres días anteriores a su celebración.
 - b) Por medio de carteles y anuncios que se harán fijar de manera ostensible y se conservarán en los muros y escaparates de los establecimientos; en las calles, en los casinos, cafés, bares, etc.
- 3a.- La observancia del mismo es obligatoria para toda clase de personas y familias, cualquiera que sea su condición social y posición económica, siendo igualmente obligada la aportación o donativo que su celebración supone, que ha de ser general y proporcionada a las posibilidades económicas de los donantes.
- 4a.- Las personas o familias que no contribuyan con su aportación o que lo hagan con una inferior a sus posibilidades económicas, serán denunciadas y sancionadas severamente.
- 5a.- Cuando no existan datos concretos entre las posibilidades y aportación económica de los obligados a contribuir, los encargados de la recaudación y los Alcaldes, en su caso, se atenderán a los signos indiciarios de riqueza o bienestar de los donantes.
- 6a.- La recaudación de los donativos se verificará los días 3 y 15 de cada mes, presentando a efectuarla a domicilio, mediante la entrega del correspondiente recibo.
- 7a.- Para el mejor éxito de la organización deberán crearse Juntas especiales, integradas por personas de reconocido prestigio y solvencia en la localidad de las que formarán parte señoras y señoritas, que serán las encargadas de efectuar la recaudación a domicilio. Dichas Juntas serán presididas por el delegado de la "Gruposión de SERVICIO DE ESPAÑA" en la localidad, o en su defecto por el alcalde.

Plater Bakarrekot egunari buruzko zehaztapenak eta herritarren beste hainbat bete-behar jasotzen dituen dokumentua.

zuten. Egun horietako jatorduetan plater bakarra janz aurretzen zen diruak osatzen zuen egin beharreko diru-ekarpena. Derrigorrezkoa zen guztientzat, baita taberna zein jatetxeentzat ere. Horretarako izendatutako arduradunak etxerik

y se anunciaba mediante carteles y anuncios. En esos dos días, se comía un único plato, y el dinero que se ahorraba en ello constituía la aportación. Era obligatorio para todos, también para las tabernas y restaurantes, y responsables expresamente designados

etxe pasatzen ziren diru eske. Dohaintza guzti horiek Donostiako Barcaiztegui y Maestre bankura bidaltzen zituzten.

Erregimenaren jomuga estrategikoak

Lantegiak militarizatzea

Militarren beste helburu garrantzitsu bat izan zen herriko armagintza altxamenduaren zerbitzura jartzea, militarizatzea. Horrela, kainoi-fabrika militarizatu eta berriro ere martxan jarri zuten, frontera ez zihoazen gizonekin. Okupazioaz geroztik 360 bihargin izan zituen, eta, bereziki, artilleriarentzako munizioa fabrikatzeari ekin zioten. Fronteak hemen iraun zuen zazpi hilabeteetan, kainoi-fabrikak etengabe jasotzen zituen milizianoen erasoak. Ondorioz, SAPA parean babesleku eraiki zuten biharginak bertan gorde zitezten, eta orduan erabaki zuten fabrikazioa Andoainera eramatea ere. Gerraren eraginez eraiki zen, beraz, Andoaingo fabrika 1943an. SAPAren batera, beste tailer asko ere militarizatu zituzten:

- Agustin Arias
- Sabino Achotegui y Compañía
- Inocencio Madina
- Viuda e Hijos de Salvador Amuchastegui

Hala ere, herriko fabrika asko lanik gabe geratu ziren okupazioa izan zenean, batzuk lan faltagatik, eta beste batzuk ugazabak herritik joan zirelako. Haien artean:

para ello pasaban casa por casa recogiendo el dinero. Todas estas donaciones eran registradas y enviadas al banco Barcaiztegui y Maestre de Donostia.

Objetivos estratégicos del Régimen

Militarización de fábricas

Además de la financiación, otro de los principales objetivos de los militares fue poner el armamento del municipio a su servicio. Así, militarizaron la fábrica de cañones y la pusieron en marcha otra vez, con hombres pertenecientes a reemplazos que no acudían al frente. Tras la ocupación, la fábrica contó con 360 trabajadores y, principalmente, se dedicaron a la fabricación de munición de artillería. En los siete meses que el frente permaneció en Soraluze, la fábrica de cañones fue objeto de sucesivos ataques por parte de los milicianos, por lo que, para proteger a los trabajadores tuvieron que construir el refugio que se encuentra frente al edificio principal. Fue también debido a esos continuos ataques y tiros que se decidió trasladar parte de la fabricación a Andoain; por lo que podemos decir que la guerra tuvo mucho que ver en la posterior construcción, en 1943, de la fábrica que SAPA tiene en aquella localidad. Además de SAPA, también otros talleres fueron militarizados:

- Agustin Arias
- Sabino Achotegui y Compañía
- Inocencio Madina
- Viuda e Hijos de Salvador Amuchastegui



SAPAKo babeslekua, lantegiko biharginentzat eraikia.

“P remiñia jeuan eta Amutxasteginian 11 urtekin, ixa 12, 2 de Enero del 37, hasi nitzuan. Eta han ibili ginuazen gerria akabatu eta gero be, hasta el febrero del 40.”

Julen Iñurrieta

AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA PROVINCIA DE GUZUMBOA

RESUMEN de las declaraciones juradas de existencias que han presentado en esta Alcaldía los comerciantes, industriales, etc., de esta localidad, referidas al día 17 de febrero último.

		GANADO VACIO	
		Compra	Venta
Aceite corriente	429 kgs.		
Aceite de colza	2164 "		91
Almidón de maíz	895 "	Terma.....	5
Alubias blancas	488 "	Vacas.....	296
Alubias pardas	454 "		
Alcohol	490 litros	Zanajos.....	8
Aguardiente	404 kgs.	Zanajos.....	5
Bechuan	123 unidades		
Cañones	114 kgs.		
Café	88 "		
Conservas de pescado	1156 "		
Id. vegetales	24 "		
Id. de leche	70 "		
Chocolate	30 "		
Cuchillos	181 "		
Frutas secas	1107 "		
Gardenas	11 "		
Galletas	4425 "		
Herrajes rectificables	15 "		
Huevos	1440 "		
Leche condensada	298 "		
Leche fresca	1000 "		
Pastillas	11 "		
Pimentón	205 "		
Pasta para copas	1400 "		
Sal gruesa	395 "		
Tecidos	1700 litros		
Vino común	168 "		
Id. generoso	106 "		
Yngre			
GARDONIN	1800 kgs.		
Halla			
		GANADO LABOR	
		Carneros.....	17
		Ovejas.....	616
		Goats.....	15
		Corderos.....	0
		GANADO Y CERDA	
		Vaca.....	15
		Cerdo de vientre	9
		Cochinillos	16
		Machos para ceba	

Nota.- Tanto los ganados en el presente resumen se encuentran en esta villa de Placencia.

Se entiende que de los ganados y ceba no existen en esta villa de Placencia.

Placencia, 17 de marzo de 1.937.

EL ALCALDE, EL SINDICADO,

Herriko lehengaien zerrenda.

- Alberdi Hermanos, aizo fabrika
- Arana Hermanos, torlojuak
- Aguirregomezcorta y Cia , eskopeta kainoiak
- José María Galarraga, eskopeta kainoiak
- Juan Pedro Leturiondo, mahai-tresnak
- Fundiciones Soraluze, metalurgia
- Muñoa y Eceiza, trefiladoreak
- Juan José Lete, burdindegí-fabrika
- Pagnon Hermanos, burdindegí tailerra

Tailer horiez gain, ehiza-eskopeta tailer guztiak ere itxi zituzten, militarren baimena lortu arte. Eta, nahiz eta martxoan lanean hasteko baimena lortu, arma eta munizioaren produkzio

Igualmente, fueron también muchas las fábricas del municipio que pararon durante la ocupación, bien por falta de trabajo, o bien porque sus dueños habían dejado el pueblo. Así, por ejemplo:

- Alberdi Hermanos, fábrica de cuchillos
- Arana Hermanos, tornillos
- Aguirregomezcorta y Cia , cañones de escopeta
- José María Galarraga, eskopeta kainoiak
- Juan Pedro Leturiondo, utensilios de mesa
- Fundiciones Soraluze, metalurgia
- Muñoa y Eceiza, trefiladoras
- Juan José Lete, fábrica de ferretería
- Pagnon Hermanos, taller de ferretería

Además de éstos, también se cerraron todos los talleres de escopetas de caza, quedando a la espera de conseguir el permiso de los militares. Consiguieron dicho permiso en marzo, pero toda la producción de munición quedó reservada para el Ejército, por Orden de 8 de noviembre de 1937, firmada por Franco.

Así pues, se constata una grave situación de desempleo en el municipio que queda reflejada en el Registro de Trabajadores para la Ocupación de Puestos de Trabajo, elaborado por el Ayuntamiento siguiendo orden del Gobierno Civil. El objetivo era crear un censo de trabajadores en paro, a renovar cada mes. De igual manera, los patronos debían realizar un registro de trabajadores en los talleres militarizados, y entregar los datos al mando militar.

osoa ejertzitoarentzat erreserbatuta gelditu zen, 1937ko azaroaren 8ko Francoren beste agindu baten bidez.

Pentsa daitekeenez, herrian langabezia handia zegoen eta, Gobernu Zibilaren aginduz, Lanpostuak Betetzeko Langileen Erregistroa sortu zuen Udalak. Haren zeregina langabezian zeuden langileen errolda osatzea zen, hilero datuak eguneratuz. Era berean, militarizatutako tailerretan, ugazabek lanean ari ziren pertsonen erregistroa jaso behar zuten eta agintaritzza militarri bidali behar zizkioten datuak.

Konfiskatzeak

Lehengai asko konfiskatu zituzten herrian eta fabriketako materiala ere bai. Armen produkzioa ez ezik, fundiziorako txatarrak errekisatu zituzten: burdin eta latoi birutak, esaterako, granadak eta nekazal makinariako piezak egiteko. Txatarra hori dena gobernu zibilaren esku geratzen zen, hark Udalarari dirutan zegokion ordaina eman ostean. Dirua zertarako erabili Udalak erabakitzen zuen: langabezia gutxitzeko, txatarra-jabeei ordaintzeko...

Artilea ere konfiskatzen zuten. Gobernu Zibilak eskatutako datuetan, hilero jasotzen zen herrian zenbat artile zegoen (dendetan, biltegetan, baseritarrengandik...) eta artile haren egoera zein zen (garbia, landua, irundakoa...). Janariarekin ere gauza bera egin zuten (olioa, kontserbak, arraultzak, ardoa eta gantzak). Adibidez, gantzaren ekoizpen osoa Gipuzkoako jabetza fabriketara bideratu zuten 1937ko irailean.

Requisas

Incautaron muchos bienes en el municipio, incluido material de las fábricas; así por ejemplo, además de la producción de armas, se requisó chatarra para fundición, virutas de hierro y latón destinadas a la fabricación de granadas y piezas de material agrícola. Toda esa chatarra quedaba en manos del Gobierno Civil, una vez pagada al Ayuntamiento. El Ayuntamiento decidía, después, el uso de dicho dinero, reducción del desempleo, pago a los dueños de la chatarra...

También requisaron lana. A solicitud del Gobierno Civil, todos los meses se elaboraba un registro de la cantidad de lana que había en el municipio, en tiendas, almacenes, en propiedad de baserritarras...; así como el estado en que se encontraba, limpia, trabajada, hilada... Otros productos de requisa fueron aceite, conservas, huevos, vino y grasa, cuya producción total, por ejemplo, se destinó, en septiembre de 1937, a las fábricas de jabón de Gipuzkoa.

Cierre de escuelas y maestras y maestros inhabilitados

La situación de guerra y ocupación impidió la puesta en marcha y el desarrollo del curso escolar, por lo que no llegó a impartirse enseñanza durante aquel curso de 1937. Como se ha dicho anteriormente, gran parte de las tropas habían sido hospedadas en las escuelas de Erregetxe, y este hecho impedía efectuar los traba-

Eskolak itxita eta irakasleak kargugabetuta

Gerra egoerak eraginda, okupazioa hasi eta 1937ko ikasturtean eskolak itxita egon ziren. Batetik, tropak Erregetxeko eskoletan zeudenez, ezin ziren egokitze eta garbiketa lanak egin. Bestetik, hainbat maisu-maistra atxilotu eta kargugabetu egin zituzten: Angel Navarro Azofra maisua azaroaren 20an atxilotu eta Ondarretako kartzelara eramán zuten; Juan Antonio Allue maisua, Deustuko kartzelan atxilotuta eduki eta 1937ko martxoan, betirako kargugabetu zuten; eta Guillermina Altolagirri herriko lanpostua kendu zioten.

Gainontzeko esparruak bezala, hezkuntza ere oso garrantzitsua zen nazionalentzat eta bertan haien gizarte eredu ezartzeko baliabide denak erabili zituzten. Maisu-maistrei zegokienez, altxatuko enereduari buruzko jarraibideak eman eta prestakuntza saioak antolatu zituzten Donostian, 1937ko urtarrilaren 7, 8 eta 9an, egoera berrira molda zitezen, nahiz eta eskolak martxan egon ez. Han izan ziren Plazentziako maisu-maistrak ere.

Gerora izendatutako irakasleak Hipólito Gutierrez, María Teresa Banda-Ormaechea, Patrocínio Ribera Bies eta María Mercedes Arrillaga izan ziren.

jos de adecuación y limpieza. Además, varios de los maestros y maestras que se ocupaban de impartir enseñanzas sufrieron detención y/o inhabilitación en sus cargos. Así, por ejemplo, el profesor Ángel Navarro Azofra fue detenido el 20 de noviembre de 1936, y trasladado a la cárcel de Ondarreta; Juan Antonio Allue fue encarcelado en Deusto e inhabilitado de por vida para ejercer su cargo, en marzo de 1937; o la maestra Guillermina Altolagirre, que sufrió el mismo castigo.

El de la educación también era un ámbito fundamental para los nacionales, y lo utilizaron, con todos los medios su alcance, para implantar su modelo social. Así, en lo que se refiere a maestras y maestros, y a pesar de la no impartición de clases, se organizaron cursos de formación en Donostia los días 7, 8 y 9 de enero de 1937, al objeto de dar directrices sobre el modelo a seguir en la nueva situación, y a los que también acudieron desde Soraluze. Posteriormente, fueron nombrados por el Gobernador Civil y ocuparon las plazas de las escuelas del municipio Hipólito Gutierrez, María Teresa Banda-Ormaechea, Patrocínio Ribera Bies y María Mercedes Arrillaga.

ALDAKETAK EGUNEROKO BIZIMODUAN

Udalaren ekimenak komandante militarren eta gobernu zibilaren gainbegiratze eta agintaritzapean zeuden eta okupazio egoera haiek zuzentzen zuten. Horren adierazgarri da, besteak beste, udal-talde berriak herriko plazan eta hainbat kalerekin izenak aldatu izana. Lehenengoa Plaza Zaharra izan zen. 1936ko azaroan hartutako erabakiaren ondorioz, Plaza Zaharrak Plaza de Navarra izena hartu zuen. Lekuen izenak aldatzea okupatutako lurraldeen menperakuntza adierazteko modua izan zen altxatuentzat, garaipenaren ikur. Aurreago, 1937ko irailean, beste izen batzuk ere aldatu zituzten: Plaza Berriak, Plaza Tercio de Montejurra izena hartu zuen; Elizburu kaleak, 22 de Septiembre; eta Kalebarrenek, Mártires de Arrate.

Jaiei zegokienez ere, Errepublika garaiko jai asko desagertu eta beste batzuk finkatu ziren, gerora urte askoan zehar mantendu zirenak, Francoren diktaduraren amaierara arte. Desagertutakoekin artean, aratusteak zeuden, gobernadore zibilak 1937an debekatu zituen-eta. Beste ospakizun batzuk ezarri ziren: maiatzaren 2a (meza eta desfilea egiten ziren); uztailearen 18a, altxamenduaurren urteurrena; irailaren 22a, erreketek herrira sartu zirenekoa...

Horiez gain, gerra garaian nazionalen estatuko hiri edo eremu garrantzitsuren bat bereganatzen zutenean, ospakizuna egiten zuten herrian eta desfileak, musika saioak eta mitinak antolatzen zituzten. Umeez ere parte hartzen zuten, “pelai” eta “mar-

CAMBIOS EN LA VIDA COTIDIANA

Todas las iniciativas del Ayuntamiento estaban bajo la supervisión y el mando del comandante militar y el Gobierno Civil, que eran quienes dirigían la nueva situación. Citamos, como ejemplo, la decisión del nuevo Gobierno municipal de cambiar los nombres de varias plazas y calles del municipio, ya que el cambio de nombre de los lugares suponía una forma de mostrar dominio en las zonas ocupadas. Primero fue la Plaza Vieja que, en noviembre de 1936, pasó a llamarse Plaza de Navarra. Posteriormente, en septiembre de 1937, se cambiaron otros nombres, la Plaza Nueva pasó a llamarse Plaza Tercio de Montejurra; la calle Elizburu, calle 22 de septiembre; y la calle Kalebarren, calle Mártires de Arrate.

En lo que se refiere a festejos, muchos de la época republicana desaparecieron, instaurándose otros nuevos que, por otra parte, se mantuvieron durante muchos años, hasta el final de la Dictadura de Franco. Entre los que desaparecieron cabe destacar el de Carnaval, que el Gobernador prohibió en 1937, o la festividad del 1 de mayo; mientras que se instauraron, entre otras, la fiesta nacional del 2 de Mayo, misa y desfile; la del 18 de Julio, por el aniversario del Alzamiento; y la del 22 de septiembre, para celebrar el día en el que los requetés entraron en Soraluze.

Además de esas fiestas, los requetés también celebraban la conquista por los nacionales de ciudades o plazas importantes; y organizaban mítines,

garita” moduan, eta musika banda aurrean zutela, kantuan erabiltzen zituzten. Kaki koloreko jantzia izaten zuten, mutilek frakak eta neskek soinekoa, eta buruan txapel gorria eta borla horia. Desfileak egiteaz gain, instrukzioa ere ematen zieten.

Arantxa Lasak gogoan dauka ama mehatxupean oihal zintzilikaria ipintzera derrigortu zutenekoa: “*Amenazua beti gainian geunkan. Gure ama amenazatu eban, etorri jakon egun baten etxera aguazila. Herri bat jausten zanian, kriston jaixa armatzen eben, kanpaiak jo eta musikia jotzen eben eta agindu eben ipintzeko kolgadura nazionala, gorri-hori-gorrixa. Gure amak, ba, ez eban ipini. Aitta kartzelan eta nun ipiniko eban ba! Etorri jakon aguazila eta esan otsan ez ebala ipini kolgaduria. Ba, nahikua ez baeukan, gehixago nahi baeban, ez ipintzeko*”. Soldaduen kamioian Bergara joan, oihala erosi eta ipini egin behar izan zuen.

música y desfiles en los que también participaban niñas y niños, conocidos como “margaritas” y “pelayos”, respectivamente.

Desfilaban cantando, acompañados por la banda de música; vestían de caqui, pantalones los chicos y falda las chicas, y llevaban boina roja con borla amarilla. Además de desfilan, recibían también instrucción.

Arantxa Lasa recuerda cómo amenazaron a su madre obligándole a poner la enseña: “*Amenazua beti gainian geunkan. Gure ama amenazatu eban, etorri jakon egun baten etxera aguazila. Herri bat jausten zanian, kriston jaixa armatzen eben, kanpaiak jo eta musikia jotzen eben eta agindu eben ipintzeko kolgadura nazionala, gorri-hori-gorrixa. Gure amak, ba, ez eban ipini. Aitta kartzelan eta nun ipiniko eban ba! Etorri jakon aguazila eta esan otsan ez ebala ipini kolgaduria. Ba, nahikua ez baeukan, gehixago nahi baeban, ez ipintzeko*”. Así pues, se desplazó a Bergara en un camión de soldados, compró la enseña y se vio obligada a colgarla en el balcón de su casa.

*“Lehenago Plaza Barrixa baina orduaintxe ipini otsen El Tercio Montejurra. Eta ni akordatzen naiz danok hor, aiuntamentuan zeoze esaten eta danak halaxe (eskumako besoa jasota) eta ni halakoren baten aspertu nitzan hola egoten eta bestia (ezkerreko besoa).
“Quita eso, pon el otro” nere lehengusina batek.”*

Isabel Artolazabal



Plaza Barrixari izena aldatu eta El Tercio Montejurra jarri zioten momentua.



Pelaioen desfileetako bat.



Raquel Lete margarita.

“Egoten zan pasakallia beti, “Han cogido Zaragoza!”, pasakalle. “Que han cogido Teruel!” eta isiltzen ziran. Handik piskatera ez zeben esaten galdu ebenikan eta “Que han cogido Teruel!” Otra vez. Y dale con el Teruel. Debieron de coger tres o cuatro veces.”

Isabel Artolazabal eta Ana Mari Argarate



“Zan organizazinua umieri instrukzinua erakutsi eta, “los soldados de mañana, los que van a salvar a España el día de mañana”, gerrarako, beti gerriakin pentsatzen. Neu be ibilita nago, Batzokiko frontoian.”

Julen Iñurrieta

ANAIK ANAIEN KONTRA

Frontea egonkortu egin zenez, soldadu kopuru handiagoa behar zen. Horrela, Euskal Gobernuak Bizkaian egin zuen bezala, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936 eta 1937ko kintoak mobilizatu eta ejertzito nazionalera batzeko deialdiak egin zituen. Udalak deialdietako zerrendak osatzen zituen kintoen izenekin eta ondoan jasotzen zen bakoitzaren egoera: aurkeztua, ez aurkeztua, desertorea, fabrikan militarizatua, iheslaria... Herrian geratutako plazentziatar askok derri gorrean joan behar izan zuten.

Ez da ahaztu behar urte haietako deialdiei zegozkien gazte asko milizietan eta Euzko Gudarostean ari zirela altxamenduaren hasieratik, Errepublikaren defentsarako bandoan.

Horrek egoera gogorak eragin zituen: familia bereko semeak edo lagunak bando banatan egotea ere ekarri zuen, eta askori entzun izan zaio herrian esaten nola fronteko alde batetik bestera jarduten zuten anaiek edota lagunak elkarri berbetan, Ilordotik Munetara elkarren berri galdetzen eta ematen.

Gainerakoan, gerra-egoerak baldintzatzen zuen herriko bizimodua. Ilordo eta Elgetako frontetik jaurtitako tiroek, esate baterako, babes-neurriak hartu beharra eragin zuten.

Soraluzek bombardaketak jasan zituen 1936ko irailaren 24an eta 25ean, eta baita urriaren 22an ere. Gobernadore zibilari bidalitako informazioaren arabera, 12 kilo inguruko bonbak ziren, eta soldadu

HERMANOS CONTRA HERMANOS

La consolidación del frente trajo consigo la necesidad de aumentar el número de soldados; por lo que, al igual que el Gobierno Vasco hiciera en Bizkaia, el Gobernador Civil de Gipuzkoa movilizó a los quintos de 1931, 1932, 1933, 1934, 1935 y 1936, para que se unieran al Ejército nacional. El Ayuntamiento elaboró listas de reemplazos, especificando al lado de cada nombre inscrito la situación en que se encontraba: presentado, no presentado, desertor, militarizado en fábrica, huído... Así, algunos vecinos de Soraluze que se quedaron en el municipio tuvieron que incorporarse obligatoriamente al Ejército nacional.

Hay que tener en cuenta que muchos de los jóvenes pertenecientes a esos reemplazos se encontraban en las milicias y en el Ejército Vasco desde el principio del Alzamiento, en el bando en defensa de la República.

Ese hecho provocó penosas situaciones, como la de familiares y amigos repartidos en ambos bandos, siendo muy conocida entre los placentinos y placentinas la comunicación que se daba, en el frente, entre amistados, desde Ilordo hasta Muneta, para intercambiar información y recibir noticias.

Por lo demás, la situación de guerra condicionaba la vida cotidiana en Soraluze. Así por ejemplo, los disparos que llegaban desde los frentes de Ilordo y Elgeta obligaron a tomar medidas de protección.

baten heriotza eragin zuten. Kokalekuak ere inoiz nahastu ere egin zituzten; nazionalek behin Untzeta-gaina bonbardatu zuten, Ilordo zelakoan. Izara zuriak atera zituzten eta gero bai, gero Ilordora joan ziren. Kanpaiak joaz ematen zuten hegazkinen etorreraren berri.

Horretaz gain, asko izan ziren morteroekin frontetik jaurtitako tiroak ere. Haietako batzuek bi herritarren heriotza eragin zuten kainoi-fabrikari, 1937ko martxoan: Jose Garay Elorza eta Timoteo Ucin Artolazabal, biak 17 urtekoak. Morteroek jaurtitako bomba haiek kalte materialak ere eragin zituzten herrian, kainoi-fabrikari ez ezik, beste eraikin askotan ere: Batzokian, Erregetxean... Herrian geratu ziren asko etxerik aldatu ziren arrazoi horrexegatik, eta baserri batzuetara edo Errekalde ingurura alde egin zuten. Baserri batzuetatik derri gorrean atera zituzten etxeko bizilagunak, besteak beste Iturbe Zahar, Eitza eta Barrenakoak, frontea bertan zutelako. Iturbeberri baserriaren kasua aipatzekoa da. Milizianoak bertan zeudelakoan, Munetako haitzetako erreketek su eman zioten baserriari eta erabat kiskali zuten, abere eta guzti.

Soraluze fue bombardeada el 24 y 25 de septiembre de 1936, y también el 22 de octubre. Según información remitida al Gobernador Civil, fueron bombas de 12 kilos, y causaron la muerte de un soldado. También se dieron errores de localización y, en una de las ocasiones, bombardearon Untzeta-gaina pensando que era Illordo. Tras ondear sábanas blancas desde dicho punto, corrigieron la posición y bombardearon Illordo. Se solía anunciar la llegada de aviones mediante repique de campanas.

Además, eran continuos los tiros de morteros que lanzaban desde el frente. Uno de ellos, lanzado sobre la fábrica de cañones en marzo de 1937, provocó la muerte de dos vecinos de Soraluze, José Garay Elorza y Timoteo Ucin Artolazabal, ambos de 17 años. Todos esos “morterazos” causaron, además, muchos daños materiales, no sólo en la fábrica de cañones, sino también en otros edificios como el Batzoki, Erregetxe etc. y debido a ellos muchos de los vecinos y vecinas que se quedaron en Soraluze tuvieron que acogerse en otras casas, desplazándose desde el centro a la zona de Errekalde o a algún caserío; aunque también hubo que desalojar alguno de éstos, como por ejemplo, Iturbe Zahar, Eitza

*“Atabozetikan esaten otsen honeri, plazentziatarrerri, falangisteri
“bajakixat zein haizen! Hi haiz fulano!” eta han ibiltzen zittuan
Karakatetik Ilordora eta Ilordotik Karakatera.”*

Ramon Mujika



Inazio Ernabide Goiaga

(1917)

Zizurkilen jaioa bada ere, urte asko egin zituen Osintxun eta gehiago Soraluzen, ezkondu eta gero. Hamalau urterekin Eibarko Star lantegian hasi zen lanean, aprendiz. Gero, Bergarako algodoneran peoi lanetan aritu zen. Gerra hasi eta gutxira, Donostiara joan zen eta Frontoi Modernoan Azaña batailoiko kide sartu zen. Irunera joan zirenerako baja mordo bat izan zituzten. Ez zuten bataila hartan parte hartu baina ordurako erretiradan hasi ziren eta Usurbilera gerturatu. Loiola batailoiko kide egin zen gero. Mutrikutik pasatu eta Gemikara joan ziren, han eduki zuten koartela. Frentean ibiltzen ziren eta gero Gemikara bueltatu. *“Guk hamar pezeta genkan sueldua. Eta ni kabo egin ninduen, hemeretzi urtekin, eta nik hamaika pezeta nakazen, pezeta bat gehixago.”* Inaziok gogoan du Jose Antonio Agirreren Bilboko Hotel Carltoneko agerraldian, Loiola batailoikoek desfilatu egin zutela.

Albertian eta Legution frentean ibili ziren. San Andres egunez, azaroak 30, Gasteiz hartzera bidali zituzten. *“Han soldauak zeren eta erreketiak be baietz uste dot. Elizako kanpandorrian ametralladora zeken harek. Eta gu han frente-frentetik han, traizinoa egon zan. Haura Goikoetxea edo, gero talgua inbentatu zeban hori. Harek dana egin zeban. Gu han frentetik juan ginan ba haura atakatzer! Harek ametralladorakin guri egin zoskuen sarrazina bat!”* Elurretan, hotzetan, ibili ziren.

Inguruko lagun denak hil zizkioten han Inaziori. Soldaduekin gauez hizketan aritzen ziren eta umorerik galdu gabe gainera. 1937ko apirilaren 4an bonbardatu egin zituzten Legution hegazkinek eta, soldaduak zetozenez, atzera egiteko agindua eman zieten. Fusila eta manta bat soinean hartuta, Otxandio aldera ihes egin zuten eta hildako asko izan ziren. Gorbea azpikaldetik Bizkaia aldera heldu ziren.

Igorre inguruan mendia galdu eta berriz ere hura hartzera bidali zituzten. Elkarri begira jarri eta geldi, isilik, geratu ziren. Norbaitek Gora Euskadi edo Viva España oihukatutakoan, borrokaldia hasi zen. Hildako eta zauritu asko izan ziren. Antolakuntzarik ez eta mendia galdu zuten berriz ere.

Horrela bada, Azaña eta Loiola batailoietan ibili zen, Irundik hasi eta Laredoraino fronteetan. Bala artean ihes egindakoa da behin baino gehiagotan eta gerra osoan zehar erretiradan ibili zirela kontatzen du. Castro Urdialeseko kontzentrazio-esparruan eduki zuten eta langileen batailoetan ibili behar izan zuen Lerman eta beste hainbatetan. Lan gogorak egiten zituzten, baita gauez ere. Matxakante postua lortu zuen eta orduztik egoera hobean bizi izan zuen hango egonaldia. *“Nik ez dotset gorrotorik hartu hareri. Absurdo bat izan zan. Gerra zibila ez zan izan haura.”*

“ Nik ez dotset gorrotorik hartu hareri. Absurdo bat izan zan. Gerra zibila ez
 zan izan haura. Haura izan zan un levantamiento militar, nada más.
 Gerra zibila hori izen hori borratu egin bihar da. ”

CAMPO DE CONCENTRACION DE SAN PABLO DE CORDOBA - Mes de Octubre 1937

RELACION mensual por oficio, naturaleza y estado de los prisioneros
 ingresados en este Campo de Concentración desde el día 9 del expresado mes
 a las 11 horas procedentes de Estella.

APellidos	NOMBRES	PROFESION U OFICIO	EDAD	ESTADO	NATURALEZA	Nº	COM
Anduechea Anduechea	Aneleco	Journalero	27	soltero	Portugalete	1	
Anduega Maronista	Santiago	Metaldigo	26	id.	Olite	2	
Apitia Maguregui	Sabino	Apostador	19	id.	Sestao	3	
Arribas Lopezategui	José M.	Albañil	24	id.	Berberio	4	
Arribas Galerna	Tomas	Barbero	28	casado	Siboto	5	
Arribas Arribas	José A.	Laborador	28	id.	Bolivar	6	
Arribasbalaga Idoia	Leandro	Carpintero	21	soltero	Sarriena	7	
Aseguidillas Arribas	Coeno	Carpintero	20	id.	Amulo	8	
Ayo Sestao	Sabino	Escritor	19	id.	Cramaio	9	
Balantziaga Flanacia	Isid	Sastre	27	id.	S. Sebastian	10	
Barrutia Petralana	Miguel	Journalero	22	id.	Sestao	11	
Barrutibengoa Uribe- Cheverria	Enrique	Sastre	19	id.	Flanacia	12	
Bianco Aramburu	José	Men. Nuevo	19	id.	Berberio	13	
Briegas Larriaga	Gregorio	Calderero	28	casado	Barasalea	14	
Celaya Sesterrechas	Martin	Carpintero	20	soltero	S. Sebastian	15	
Encarnación Alberdi	Gerardo	Armero	29	soltero	Flanacia	16	
Encarnación Alvarez	Ignacio	Journalero	20	id.	Vergara	17	
Erquilla Alzopua	Donatilo	Armero	33	id.	Flanacia	18	
Erquilla Alzopua	Florencio	id.	30	id.	id.	19	
Galarraga Alzopua	Franzisco	Tropero	34	casado	Urdax	20	
Gorriobelegui Arriaga- Alzopua	Cafarino	Armero	22	casado	Salazar	21	
Gurrutxaga Gabilondo	José Fern	Papelero	30	casado	Tolosa	22	
Iribarretxe Astola	Felix	Laborador	28	soltero	Urdax	23	
Iribarretxe Maguregui	Cecilio	Journalero	26	id.	Vergara	24	
Joaquín Rodríguez	Manuel	Cantero	40	casado	Valdomero	25	
José Garayo	Patrio	Ingeniero	23	soltero	Alzopua	26	
Martinez Iglesias	Gregorio	Ped	28	id.	Vergara	27	
Masala Larunbe	Juan	Barbero	19	id.	Luziano	28	
Masala Elizondo	Bonifacio	Oficinista	20	id.	Berberio	29	
Masala Oñativio	Pedro M.	Intendente	20	id.	Berberio	30	
Masala Malar	Juan	Laborador	24	id.	Tolosa	31	
Masala Arribas	Abel	Moldeador	45	casado	Tolosa	32	
Masala Oñativio	Angel	Moldeador	30	id.	Berberio	33	
Masala Gellatxaga	Claudio	Ped	23	soltero	Vergara	34	
Masala Oñativio	Claudio	Cantero	25	soltero	Lasaia	35	
Masala Oñativio	Santiago	Ay. Men.	30	id.	De. Ayo	36	
Masala Oñativio	Manuel	Metaldigo	42	id.	Villafraña	37	
Masala Oñativio	José	Oficinista	24	id.	Ormaiztegui	38	
Masala Oñativio	José M.	Journalero	27	id.	San Sebastián	39	
Masala Oñativio	José M.	Journalero	31	casado	Asocio	40	

San Pablo de Cordoba 9 Octubre 1937.
 11 AÑO TRIENAL

EL CAPITAN JEFE DEL CAMPO.

Manuel de Arribas



“Zortzi urtekin kanpantorrera juañ hadi! Eta kanpantorrian, bai ba, negua zan. Hotz egitten eban, orduan Bolianian emoten oskuen txorixo bokadillua eta gaseosia bakoitzari. Juaten genduazen granujarik haundixenak. Zubixa jauan aurre-aurrian. Eta jode, ez zetorrela abioirik eta ezebe. Artetako astronomua, harek jotén juañ San Andresen kanpaia, tin-tin-tin-tin! Abioia ikusten ebanian. Eta karo, guri emon oskuen ordenia, harek jotén dabenian zuek kanpai haundixa jo, errefugixuetara juateko.”

Ramon Mujika

Tiroen gaiak, bestalde, desadostasunak eragin zituen Ilordon zeuden milizianoen artean, hasieran batez ere; izan ere, bertan zeuden plazentziatarrek, familiakoengan eta ezagunengan pentsatuz, ez zuten herrira tirorik bota nahi, eta horrek eztaibada sortarazten zuen gainontzeko milizianoekin. Berdintsu gertatzen zen Elgetako hilerrian kainoiaren ardura zuten soraluzetarrekin ere; herrira botatzeari behin eta berriz uko egiten zioten.

Esan bezala, asko ziren fronte hartan milizianoen artean zebiltzan soraluzetarrak eta bazuten inguruaren berri. Herrira jaisten ziren jateko bila, senide eta lagunekin egon edota Igarate aldean ezkailluak harrapatzera.

Aurreko lerroetan jasota geratu den moduan, Bergara eta Maltzaga batzen zuen errepidea oso arriskutsua zen, baita Elgoibar aldera ere, ban-

y Barrena, por encontrarse muy cerca del frente. Es de destacar el caso del caserío Iturbearri, al que los requetés situados en las Peñas de Muneta prendieron fuego, pensando que los milicianos estaban allí. El caserío ardió por completo, incluidos los animales que allí tenían.

Por otra parte, se sabe que la cuestión de los tiros originó controversia entre los milicianos situados en Illordo, sobre todo al principio; ya que los de Soraluze, pensando en sus familiares y amistades, no querían disparar hacia el municipio, y ello generaba discusiones con el resto de milicianos. Sucedió lo mismo los placentinos encargados del cañón del cementerio de Elgeta, se negaban una y otra vez a disparar hacia Soraluze.

Fueron muchos los placentinos que actuaron como milicianos en este frente. Conocían bien el entor-

do bietako sua gurutzatzen zelako. Horrez gain, erreketeeek errepeidea eta trenbidea apurtuta zeuzkaten (Mendiola baserrian, trenbideak bira egiten zuen lekuan, errailak moztuta eta errepara begira jarrita zeuden). Horrek herrira etortzeko eta irteteko zailtasunak eragin zituen. Herriak hornikuntza arazoak izan zituen eta, dendariak salgaiak ekarri ezin zituztenez, eskasia egon zen. Ikatza, arraina eta olioak ekartzea, esate baterako, ardura garrantzitsua izan zen Udalarentzat eta bilera askotako lehentasunezko gaia. Bideko segurtasun ezak zerbitzuetan ere izan zuen eragina: adibidez, Elgoibartik zetorren albaitariak herrira etortzeari laga zion eta posta jaso eta bidaltzea ere oso zaila zen, tren zerbitzuak murrizketak eta geldialdiak izaten zituelako.

Inkomunikazio hark herritik kanpo gertatzen zenaren berririk ez izatea ekarri zuen fronteak iraun zuen bitartean. Herrian geratu ziren familiek ez zeukaten frontera zein ihesi joanda-

no y no fue raro que, a veces, bajaran al pueblo a aprovisionarse de algo, ver a la familia, o pescar “ezkailus” (piscardo) en Igarate.

Como ha quedado patente, la carretera entre Maltzaga y Bergara era muy peligrosa, también en dirección a Elgoibar, ya que allí se cruzaba el fuego de los dos bandos. Los requetés habían inutilizado la carretera y la vía férrea hacia Maltzaga; desviaron hacia el río los raíles junto al caserío Mendiola, allí donde la vía trazaba una curva. Esa situación dificultó las entradas y salidas del municipio, y hubo problemas de abastecimiento, provocando falta de provisiones y escasez. Conseguir carbón, pescado o aceite fue fundamental para el Ayuntamiento, y tema prioritario de muchas reuniones. La falta de seguridad en las carreteras también influyó en los servicios. Así, por ejemplo, el veterinario (de Elgoibar) dejó de acudir a Soraluze, y mandar y recibir correo se convirtió en tarea complicada, ya que el servicio ferroviario sufría continuas retenciones y restricciones.

“Felix Etxaniz, “Arruza el vasco”, torerua, astuan bajatu juen llordotikan. Jausi zan mendixan eta hankan min haundixa hartu eban. Eta sartu zan Bidebarrixetatikan Eibarren, bera beste asto baten gainian eta jentia, danak, “Gora Euskadi!” bera diharka “La revolución!”. Andra guztiak balkoietan txaloka “balientiak gudarixak”. Eta astotik jausi jakuen.”

Ramon Mujika

“Mi hermano estaba aquí en el frente, ¿y sabes qué hacían? Bajar a Placencia, y hasta solía hablar con chavalas de Placencia. Parece que bajaban por el frontón, por ahí (Txarakoa). Fíjate si arriesgaban, y luego volvían otra vez a Elgeta. Claro, eran chavales jóvenes.”

Resu Gallastegi

koen berririk; ezta herritik derrigorrez eraman-dakoenik ere, batez ere hasierako hilabeteetan. Hala, okupatu gabeko eremuan zeuden hainbat eta hainbat herritar erreklamatu zituen Udalak. Abenduaren 12ko dokumentuak horrela azal-tzen zuen:

- Luis Calonge Frances, Serapio Placencia eta Eugenio Lamariano Orueta, Sestaoko taile-rrean lanean zebiltzan, Frente Popularrak hara derrigorrean eramanak.
- Serafin Achotegui eta Manuel Lersundi, Arra-tera eraman eta desagertutakoak
- Luis Hernández Gallardo, Aranzazumendi its-asontzian preso zeukatena, Bilbon
- José Ormazabal Albizu, Falange indarretan ze-goela Angiozarren desagertu zen urriko lehe-nengo igandean.

Esta situación de incomunicación que se produjo mientras el frente se mantuvo en la zona conllevó, además, la falta de noticias e información de lo que pasaba fuera de Soraluze. Las personas que se quedaron en el municipio no tenían noticias de las que se fueron, ni de las que fueron trasladadas forzosamente, ni de las que estaban en otros frentes, sobre todo en los primeros meses. El Ayuntamiento reclamó a varias personas que faltaban del municipio y de las que no se tenía noticia. Así, por ejemplo, un documento del 12 de diciembre de 1936 reclama a los siguientes vecinos:

- Luis Calonge Frances, Serapio Placencia y Eugenio Lamariano Orueta, que trabajaban en el taller de Sestao, llevados allí a la fuerza por el Frente Popular.
- Serafin Achotegui y Manuel Lersundi, llevados a Arrate y desaparecidos.
- Luis Hernández Gallardo, preso en el buque Aranzazumendi, en Bilbao.
- José Ormazabal Albizu, que desapareció el primer domingo de octubre en Angiozar estando en las fuerzas de la Falange.



BIZKAIKO OFENTSIBA
1937KO APIRILETIK UZTAILERA

LA OFENSIVA DE BIZKAIA
DE ABRIL A JULIO DE 1937



ERASO HANDIAREN HASIERA

1937ko martxotik aurrera, Madril eskuratu ezinik, frankistek estrategia aldatu zuten eta beste fronte batzuetara bideratu zituzten eraso nagusiak, Iparraldeko Frontera esate baterako. Hilaren 31n Durango bonbardatu zuten; hori izan zen Bizkaia hartzeko ofentsiba handiaren hasiera. Apirilaren 20ko eta 24ko erasoekin Elgeta hartu zuten, eta apirilaren 26an, Eibar. Horiek eskuratu, Bizkairako bidea irekita zeukaten.

Apirilaren 26an berean Gernika bonbardatu zuten. Francoren hedabideek zabaldu zuten miliziano sozialistek, anarkistek eta komunistek eraso zutela. Egun, ordea, ezaguna da alemaniar hegazkinek (Condor legioa) eta italiarrek gauzatu zutela; izan ere, Errepublikaren kontra altxatu ziren agintariekin elkar-

EL COMIENZO DE LA GRAN OFENSIVA

A partir de marzo de 1937, tras los fallidos intentos por tomar Madrid, los sublevados cambiaron de estrategia y dirigieron su ofensiva hacia el frente del norte. El día 31 bombardearon Durango, iniciándose con ello la gran ofensiva para tomar Bizkaia., entre los días 20 y el 24 de abril atacaron y tomaron Elgeta; por su parte, cayó dos días más tarde, el día 26. Una vez conquistados estos dos últimos pueblos limítrofes con Bizkaia, los nacionales tuvieron vía libre para entrar en dicho territorio.

El mismo día 26 de abril bombardearon Gernika. Los medios de comunicación de Franco publicaron que el ataque fue obra de milicianos socialistas, anarquistas y comunistas. Actualmente, se sabe que fue la aviación alemana (Legión Cóndor) junto a la italiana quien materializó el ataque, y que éstas esta-

lan estuan, eurok aritu baitziren aire erasoetan. Tamalez, eta historialariak ahalegiuagatik, oraindik ez da agertu Francok eta Molak erasoaren aginduan izan zuten erantzukizun zuzena frogatzen duen agiririk. Espainiar gobernuak ez du oraindik ofizialki aitortu, alemaniar eta italiarrekin batera, altxatutako agintariak agindu hartan izandako erantzukizuna. Alemaniak, ordea, 1975ean azaleratu zuen faxisten gezurra. Gezur hori, bestalde, hasieratik gezurtatu zuten, nola Euskadin hala nazioartean ere, hainbat komunikabidek (ingelesak batez ere) eta lekukoek zabaldutako berriei esker. Gerora, Picassok eta alemaniar oposizioak unibertsalizatu zuten Gernikan gertatutakoa.

SORALUZETIK IHESI

Bizkaiko lurraldean sakabanatuta zeuden 1936ko irailaren 20an Soralezetik Bilborainoko tren hartu zuten ehundaka plazentziatar. Baziren Durango, Gernikara eta inguruetara joan zirenak, baita Bilboraino joandakoak ere. Azken hauek, Bilbora heltzean Atxuriko eskoletan sartu zituzten eta hurrengo goizean handik alde egin behar izan zuten, Bilboko beste tokiren batera edo kamioiz inguruko herrietara. Fronteak egonkor iraun zuen bitartean, eguneroko bizimodua ere egonkorra izan zen

ban llevando a cabo las ofensivas aéreas en estrecha colaboración con el mando de las tropas que se habían alzado contra la República; aunque, aún hoy en día, y a pesar de los esfuerzos de historiadores e historiadoras, siga sin aflorar documentación alguna que pruebe la responsabilidad directa de Franco y Mola en la orden de ataque. Tampoco el Gobierno español ha reconocido oficialmente, todavía, la responsabilidad que los sublevados, apoyados por alemanes e italianos, tuvieron en la misma. Alemania, en cambio, desmintió públicamente, en 1975, la falsa versión difundida por los fascistas, que, por otra parte, fue desde el principio cuestionada, tanto en Euskadi como en el ámbito internacional, gracias a la labor de parte de la prensa (inglesa, sobre todo) y a la de testigos presenciales que difundieron los sucesos reales. Posteriormente, la oposición alemana y Picasso contribuyeron a universalizar lo ocurrido en Gernika.

HUIDA DE SORALUZE

Cientos de placentinos y placentinas se encontraban dispersos en Bizkaia tras haber dejado Soralez en aquel tren que partió hacia Bilbao el día 20 de septiembre de 1936.

Algunas personas se quedaron en Durango, Gernika o alrededores, y otros fueron hasta Bilbao. Éstos últimos fueron instalados en las escuelas de Atxuri, que tuvieron que abandonar a la mañana siguiente, marchando, a algún otro lugar de

“**A**morebietan, behian bizi ginan eta barreria euan eta han gelditzen ziran gabian, geure etxe aurrian. Gabian izaten zan hori. Ni jaiki eta aulkira igo eta ikusten, kamioiak, hildakuak, danak apurtuta. Bonbardeo gogorak egin zittuen Durangon eta Gernikan. Egurrezko kajetan, horrek kaja kuadrauok, jaboï kajetan edo, [...] enda kajan sartuta, apurtuta bonbardeuakin eta odola darixola bittartietatikan [...] Gero kanposantura juan hurrengo egunian, atia zabalik egoten zan, eta zulo haundi bat einda euan. Han kajak sartu eta lurrakin tapatzen zittuen [...]. Danak hantxe, danak leku baten. Gero zela juaten zara hara hazurrak topatzera.”

María Luisa eta Asun Gorostidi

“**G**u Amorebietan genden. Danok kanpantorrian, kanpantorria zan refugixua. Eliza onduan bizi ginan gu eta jotzen ebenian kanpaia, “ene! badator abioia!”. Eta abioak etorri eta bonbardeatu eben Gernika, bonbas incendiarias, erre ei eben Gernika guztia, erre ei eben. Eta papelak be bota zittuen, ez dakit aurretik ala gero, abioittikan papelak, ba, amenazatzen eta. Halaxe zan haura gerriaura.”

María Luisa eta Asun Gorostidi



Benita Gallastegui Galarza

(1923 – 2011)

Resu Gallastegui Galarza

(1921)



Donostian harrapatu zituen gerrak, hamabost eta hamairu urte zituztela. Hantxe bizi ziren Mirakruz kalean eta liburu denda zuten etxepean. *“Estuve tres años que viví en la gloria. Empezó la guerra y ya se cortó aquello.”* (Resu) Lehenengo tiroak entzun zituzten, Tolosan hildako ama-semeen gorpu zatikatuak ikusi zituzten eta milizianoek egindako fusilamendu bat ere bai. Aita eta anaia frentera joan ziren eta beraien etxera itsasontzietatik jaurtitzen zituzten tiroen metralla iritsi zen. Horiek izan ziren hasierako bizipenak.

Ama eta hiru alabak Donostiatik Soraluzera etorri eta berehala hemendik trenez Bilbora joan ziren. *“No recuerdo cuándo llegamos a Bilbao; nuestra familia ocupábamos un vagón entero y solamente quedó un hermano de mi padre en el pueblo y mi abuelo llorando en la estación. Era bastante tarde cuando llegamos y nos dieron un vaso de leche a cada uno. Esa noche nos alojaron en las escuelas de Atxuri.”* (Benita) Han senide batzuen etxean egon ziren hilabete batzuk eta Mercedes ahizpa zaharrenaren ezkontza ere ospatu zuten. *“Salíamos a la calle y donde veíamos una cola, allí nos poníamos, sin saber siquiera qué vendían. A veces eran unos caramelos de Santiaguito, otras veces era un*

poco de mermelada, pues ya empezaba a haber hambre. Luego empezaron los bombardeos. Cuando sonaba la sirena, nos hacían bajar a un refugio, que no era más que un bajo de la casa de al lado, donde estaba la fábrica de caramelos “La Milagrosa”. Mi hermana Resu y yo decidimos no bajar más, así que cada vez que sonaba la sirena, nos quedábamos en casa; pero un día cayó una bomba en la casa de al lado y nos asustamos de verdad. Aquella tarde nos fuimos a Begoña, a casa de un practicante que era pariente de mi cuñado, allí estuvimos una temporada.”

Resu, urte bukaera aldera, Durangora eramán zuten izeba baten etxera eta bonbardaketa bizi izan zuen. *“Oía como en sueños “Resuuuu!”, hasta que con el ruido de los aviones me desperté. Entonces ya me di cuenta de lo que era, salí corriendo al pasillo, me quedé así en un rincón y ya me caía todo”.* Zortzi egun gehiago eman zituen han eta egunero ametrallatu eta suzko bonbak bota zizkieten. Gero, Bilbora itzuli zen amarengana.*

*(Hortik aurrerako Benita eta Resuren bizipenak liburuan zehar txertatuta daude)

“ Ya empezaba a haber hambre. Luego empezaron los bombardeos en Bilbao. ”

baina Bizkaiko ofentsiba hasi zenean, berriz ere alde batetik bestera, bomba artean bizitzea toka-tu zitzairen. Bizkaian ibili ziren guztiek kontatzen dute zela bonbardatu zituzten batean eta bestean. Hildakoak, zaurituak, suntsitutako etxeak ikusi zituzten. Gehienetan, lotarako lekua topatzen zuten, berehala antolatzen baitziren harrera herrietan ihesi zihoazenak artatzeko.

BILBOKO BURDINEZKO HESIA

Bonbardaketa eta erasoengatik, ihesean joandako soralezetar asko Bilboko Burdinezko Hesiraino heldu ziren babes bila, eta han geratu ziren 1937ko ekainaren 19an Bilbo jausi zen arte.

1936ko abuztuan eta irailean hartu zuten Bilboko hesia eraikitzeko erabakia. Lehen arduraduna Pablo Murga izan zen, baina planoak espia faxistei eman zizkien (berandugo fusilatu egin zuten).

Bigarren arduradun Alejandro Goikoetxea izendatu zuten. Baina hark ere 1937ko otsailean desertatu zuen, eta nazionalen zonaldera pasatzea lortu zuen hesiari buruzko informazioa eta planoak aldean hartuta. Hesiak bazituen ahulguneak eta haien berri eman zuen.

Bi izan ziren aldi horretako bataila azpimarregarrienak:

Bilbao o, en camiones, hacia pueblos cercanos. Mientras el Frente se mantuvo estable, la vida diaria también, pero al comenzar la ofensiva de Bizkaia, se vieron obligados a desplazarse continuamente, de un lado para otro, siempre bajo la amenaza de las bombas. Aquellos y aquellas que lo vivieron cuentan cómo sufrieron bombardeos, cómo vieron personas muertas, heridas, casas destruidas... Casi siempre, sin embargo, encontraban algún lugar para dormir, ya que en los pueblos se organizaban con rapidez para ayudar a los que llegaban.

CINTURÓN DE HIERRO DE BILBAO

En un continuo desplazarse huyendo de ataques y bombardeos, muchos vecinos y vecinas de Soraluze llegaron hasta el Cinturón de Hierro de Bilbao, hasta que la ciudad también cayó, el 19 de Junio de 1937.

La decisión de construir el Cinturón de Hierro se había tomado entre agosto y septiembre de 1936. El primer responsable fue Pablo Murga, pero fue descubierto pasando a los nacionales información sobre planos y defensas. Juzgado y condenado a muerte, fue fusilado en noviembre de 1936.

A continuación, nombraron a Alejandro Goikoetxea responsable de las fortificaciones de defensa, pero también desertó en febrero de 1937, y consiguió llegar al bando de los nacionales llevando consigo la información y los planos del Cin-



Nikanor Iñurrieta Goikoetxea

(1920 – 2013)

Nikanor Iñurrietak kontatu zuenaren arabera, berak herritik alde egin zuen erreketek etorri baino lehen. *“Irailan hogeixan urten genduan, akordatzen nok, domekia uste juat zala. Eta Iñaki nere anaia eta ni, ba, gu nausixak ginuazen, harek hamazortzi urte eta nik hamasei. Eta urten genduan trenian, senide batzuen etxera juan ginuazen. Orduan pentsatzen genduan hamabost eguneko ipuina izango zala.”* Trena hartu eta Zornotzan jeitsi ziren. Han tren geltokian bertan lo egin zuten Iñakik eta biek, Etxabetarrek lagatako koltxoi baten gainean. Ume txiki-txikiekin Muxikara zihoazen haiek; Iñaki eta Nikanor, berriz, Gernikara senide batzuen etxera. Hilabeteak egin zituzten bertan. Egoera gero eta zailagoa zen, jatekoa gero eta gutxiago zeukaten eta goseak zeuden. Baserrietatik artirina lortu eta morokilla jaten zuten. Oraindik ere gerra laster bukatuko zen itxaropena bazuten.

1937ko apirilaren 26ko Gernikako bonbardaketa bertatik bertara bizi izan zuen. *“Gernikan zentro-zentruan nenguan ni lagunekin. Zerbezia-edo etorri zuan orduan. Zerbezia etorri zala ta “joño!” kaña bana hartu ta hantxe jarri mahaixan eta... “Café Norte” edo zuan,*

oso leku politta. Kanpuan mahaixan jarritta eta abioia, inspektzinokua edo. Eta kanpaiak eta joten jittuen eta... ohittu egin ginuazen! Ez juen botatzen bonbarikan be eta gu ezta mobidu be ez. Baina, horraittiokan, beste bat etorri zuan eta “daunba!”. Aiba dios! Lehenengo bonbia! Orduaintxe hasi ginuazen mobitzen. Gero, junkerrak, abioi-garauak kargau-kargau eindda bonbaz, etortzen zittuan “por oleadas” esaten dana. Mordua, e! Kazak aurretikan eta hurrengo atzetikan kazak berriro.” Atsedendietan pixkaka mendi gain batera igotzea lortu zuen eta handik bonbardaketa ikusi zuen gernikar lagun batekin batera. *“Izan zuan bonbardeo bat, hiru ordu t’erdi edo lau orduan edo, jo eta bota eta bota eta bota bonbak. Txikittu juen, dana txikittu juen! Ez zuan ezer geratu han.”* Bonbak jaurti eta ametralladoreekin ihesi zihoazenak tirokatzen zituzten. Dena erretea zegoenez, eta ezer gabe geratu zirenez, gudara joatea erabaki zuen. Hamazazpi urte zituen Nikanorrek. Ordurako, Iñaki Saseta batailoian zebilen.*

**(Hortik aurrerako Nikanor eta Iñakiren bizipenak liburuan zehar txertatuta daude)*

“Izan zuan bonbardeo bat, hiru ordu t’erdi edo lau orduan edo, jo eta bota eta bota eta bota bonbak.”

- Bizkargi mendiko bataila (Zornotza-Larrabetzu). Alemaniako hegazkin eta pilotuen laguntza izan zuten nazionalek.
- Lemoako Haitzetako bataila (maiatzaren 28tik ekainaren 5era). Amuategi batailoiko eibartar gazte asko hil eta soraluzetar asko zauritu ziren.

Burdinezko hesiari egin zioten azken asaltua Gamiz-Fikatik egindakoa izan zen. Goikoetxeari esker, ahulguneak ezagututa, laster lortu zuten altxatutakoek defentsarako egitura apurtzea; izan ere, kilometro inguruko zuloa zabaldu ostean, ordu gutxitan menperatu zuten defentsa-lerroa, eta milizianoek atzera egin behar izan zuten Bilborantz.

J.A. Agirrek, bestalde, telegrama ugari bidali zizkion Espainiako Errepublikako gobernuari erre-

turón, incluyendo los puntos débiles que facilitarían el avance de las tropas.

Son dos las batallas a destacar en esta fase:

- La batalla del Monte Bizkargi (Zornotza-Larrabetzu). Los Nacionales recibieron ayuda de pilotos y aviones alemanes.
- La batalla de Peñas de Lemoa (del 28 de mayo hasta el 5 de junio), en la que el batallón Amuategi sufrió muchas bajas; murieron muchos jóvenes de Eibar e hirieron a otros muchos de Soraluze.

El último asalto realizado al Cinturón de Hierro comenzó en Gamiz-Fika. Los sublevados consiguieron romper con facilidad la estructura de defensa, gracias a Goikoetxea y la información que facilitó sobre

“ Bizkargin be bai. Ni eridu ninduen, mordua placentziatarrak be bai, monte Esturon, Lemoa baino aurrerago. Plazentziatarrak gehixenak hantxe zaren. Eta abioiak etorri ziazen. Gu gaozen orduantxe barberua etortzeko ulia ebatera eta abioiak, etorriko ziran hogeittik gora abioiak. Eta bonbardeua. Emon oskuezen honek eskuko bonbak. Etorri jakuan tankiori eta hantxe egon zan geratuta. Halako baten urten genduan handikan eta tokatu jakun berrehun metroko despejia, llanua, eta ametralladorakin hartu ginttuen. Ni besuan jota. Abioiak baju-baju-baju, danak burua bistan darella. Zelako triskantzia! Ez zeken kontrarixorikan. ”

Justino Gabilondo

“Gizonak bialdu zittuen eittera “cinturon de hierro”, baina haura, aintzen zebanak, egin zeban tranpa eta laga zeben entradia libre. Cinturon de hierro faltua egin zeben, reketiak sartzeko moduko lekua lagata.”

Maria Luisa eta Asun Gorostidi

fortzuak eskatuz, hegazkinak bidal zituzten, baina ez zuen erantzunik jaso.

Bilbo eskuratzeko Enekuri-Artxanda-Santo Domingo posizioak falta zitzaizkien. Defentsa Artxandan zegoen eta bertan egin zuten borroka Karl Liebknecht batailoi komunistak eta Itxarkundia batailoiak.

Ez dakigu soraluzetar emakumerik miliziano moduan ibili ote zen baina badakigu ordura arte gizonezkoek egindako lanetan jardun zutela. Gizonezkoen artean bajak areagotuz joan ahala, emakumeak lanerako deitu zituzten. Antoni Orbea trintxerak egiten aritu zen Artxandan eta Resu Gallastegi Bilboko egonaldian pilotutarako prestakuntzak egiteko hautatu zuten. Horrez gain, frontean zebiltzanentzat jertseak eta galterdiak egiten aritu ziren emakume asko. Artilea banatzen zuten hainbat lekutan eta bertara eramaten zituzten etxean egindako jantziak. Resuk gogoan du: *“¡Hemos hecho más calcetines y jerseys! Mi madre, mis hermanas y yo íbamos a las colas*

los puntos débiles. Tras abrir una brecha de cerca de un kilómetro, en pocas horas lograron derribar la línea de defensa, y los milicianos tuvieron que retroceder hacia Bilbao.

José Antonio Agirre remitió numerosos telegramas al Gobierno de la República de España, pidiéndole refuerzos aéreos, pero no obtuvo respuesta.

Faltaban las posiciones de Enekuri-Artxanda-Santo Domingo proceder a la conquista de Bilbao. La defensa estaba en Artxanda, y fue allí donde, entre otros, lucharon el batallón comunista Karl Liebknecht y el abertzale Itxarkundia.

No sabemos si alguna mujer de Soraluze fue miliciana o no, pero sí sabemos que realizaron labores que hasta ese momento estuvieron destinadas a los hombres; ya que a medida que aumentaron las bajas masculinas, ellas fueron llamadas a trabajar. Antoni Orbea, por ejemplo, trabajó haciendo trincheras en Artxanda y a Resu Gallastegi la eligieron para prepararse como piloto mientras estaba en Bilbao. Además, muchas mujeres tejieron jerseys y calcetines

para coger pan, para todo. Pues haciendo, todo el tiempo haciendo (punto) para el frente. ¡Sí, sí! ¡Nosotras hemos hecho muchísimo!

Artxandako bataila oso gogorra izan zen. Bataila galtzeaz ari zirela eta eskuinaldea frankisten esku geratuko zela ikustean, Bilboko zubiak dinamitatu zituzten.

Bilboko azken defentsak, berriz, ezker aldeko hegoaldean, San Adriango meategiaren inguruan egon ziren, baina ekainaren 18an alde egin zuten Bilbotik, 17an Jauraritzak Santanderreruntz erretiratzeko agindua eman ondoren. Bilbo, 1937ko ekainaren 19an jausi zen altxatuen eskuetan.

Margarita Aranberri bertan zegoen nazionalak sartu zirenean. Horrela kontatu zuen bizi izan-

para aquellos que luchaban en el Frente. Repartían lana en muchos lugares, y llevaban al Frente las prendas tejidas en casa. Así lo recuerda Resu: *“¡Hemos hecho más calcetines y jerseys! Mi madre, mis hermanas y yo íbamos a las colas, para coger pan, para todo. Pues haciendo, todo el tiempo haciendo (punto) para el frente. ¡Sí, sí! ¡Nosotras hemos hecho muchísimo!*

Tras la cruenta batalla de Artxanda, perdida la posición, vieron que la margen derecha iba a caer en manos de los franquistas, y dinamitaron los puentes de Bilbao, para facilitar la evacuación y la retirada. Las últimas defensas de Bilbao resistieron al sur de la margen izquierda, alrededor de la mina de San Adrián. Sin embargo, el 18 de junio abandonaron de Bilbao, después de haber sido evacuada y de que el Gobierno Vasco hubiera dado, el día 17, orden



Andres Larrañaga (eskumatik bigarrena) Zornotzako ospitalean zaurituta. Lagunak eta senideak bisitan joan zitzaizkion. Besteak beste, goian eskuinean Sole Larrañaga; beheko lerroan: Gonzalo, Jesus eta Javier Iraeta.

dakoa: “*Gu bagare bentanan, “eta oin zer? Oin be badatozik eta ze egin bihar dogu guk?” Eta betozen reketiak eta reketien tartian anaia. “Migel!” neuk holaxe. Lehenenguan ez eban entzun baina bigarrenian altutxuago nik esango neban, eta da! Holaxe beittu eban baina ezin, frentian formatuta zoiazen eta ezin handikan zertu baina bilatu genduzen harek. Desfilia geratu zanian, etorri jakun hara. Anaiak anaien kontra baina, segi!”* Hiria ia hutsik zegoen, baina deuseztu gabe utzitako industria, laster izango zen sartu berri zen ejerzito frankistak ustiatzeko gertu.

Lurraldeak okupatu ahala, bonbetatik ihesi jarraitu zuten herritar askok, harik eta erabakia hartu behar izan zuten arte: herrira itzuli edo atzerrira ihes egin.

de retirada hacia Santander. El 19 de junio de 1937 Bilbao cayó en manos de los sublevados.

Margarita Aranberri estaba allí cuando entraron los nacionales. Así contó lo que vio: “*Gu bagare bentanan “eta oin zer? Oin be badatozik eta ze egin bihar dogu guk?” Eta betozen reketiak eta reketien tartian anaia. “Migel!” neuk holaxe. Lehenenguan ez eban entzun baina bigarrenian altutxuago nik esango neban, eta da! Holaxe beittu eban baina ezin, frentian formatuta zoiazen eta ezin handikan zertu baina bilatu genduzen harek. Desfilia geratu zanian, etorri jakun hara. Anaiak anaien kontra baina, segi.”*. La ciudad estaba prácticamente vacía, pero el ejército franquista pronto comenzó a explotar la industria, que no había sido inutilizada.

“*A* bixatu zeben boluntarixo juateko lanera. Eta danok nahi genduan lana egittia eta presentatu ginan lana egitteko eta zan trintxerak egittia Artxandan, hamasei urtekin.”

Antoni Orbea

“*Y*o estuve aprendiendo de piloto porque faltaba gente, fijate, faltaba gente, y ya pues mujeres pidieron que irían. Para aprender de piloto me eligieron. Un montón, ¿eh? Pero luego hubo que evacuar y ya me quedé así.”

Resu Gallastegi

